


400 anaitasuna 400

1981.ko - EKAINA. 412.ALEA . 100 PEZETA

KRUTWIG: "Euskal Kulturaz Sueziako Gobernuak Euskal Gobernuak baino gehiago egin lezan jakin nuenean zera erran nuen: **A ver si al gobierno vasco se le cae la cara de vergüenza**".

MANU AGIRRE:
"O.N.C.E. faxisten aterpea. Frankoren koñatuak egin zituen honen egiturak mozkinak haientzat gordez".

VIÑASPRE: "Enrike Urkijo, idazkari orokorrak" **A ver si te mueres de una puta vez**" esan zidan".



ZUEK OPORRETAN GU GARTZELAN

500 euskal atxilotu politiko dago gaur egun Espainiako presondegietan. Herri ttiki batentzat kopuru itzela.

Eta herri ttiki honen askatasun handiagorik eskatu duten guztiek elkar laguntza osoa merezi dute, **geu haiekin gaudela, haiek gurekin direla erakusteko**. Gizarte honen atal biziak direla erakutsi behar zaie eta zaigu. **Kemena denok behar dugu.**

Elkarren arteko laguntza ttiki ttikina ere **balio-tsua** bihurtzen da borondate osoz egiten denean. Gainera maitasuna edo eta adore iraultzailea denean ez dago ezer txikirik.

Zuen kartak, gutunak, errebistak, liburuak eta elkarrizketa batez ere behar dute eta behar dugu. **Izen bat** hautatu dugu gartzela bakoitzean. Beraren bidez gartzela horretako **edozein presorekin harremanetan sartzeko**. Izenik ez badakizu, **idatzi**, beraiek proposatuko dizkizute izenok. Eta ez ahaztu...**geu gara haien itzaropena... beraiek dira gurea.**



Madrid: Centro Penitenciario Femenino de Yeserias. Arrate Mardaras Lejarreta.

Soria: Prision Provincial. Marques de El Saltillo. J. Antonio Torrealtonaga.

Madrid: Centro Penitenciario de Carabanchel. Joseba Sarrionaindia.

Bizkaia: Centro Penitenciario de Basauri. Joseba Cardenal.

c.c.: CLP/LAK: 19001589-1
"Para carceles".

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALTAINDIA BILBO
8813
3 JUL 1981

IPARRALDEAN



Ekainaren hogeita batean Frantzia barna sozialistek irabazi dute. Lehen aldikoz sozialista bat, Destrade, hautatua izan da Iparraldeko kostaldean. Lehen aldikoz Ezkerrak Eskuina garaitu du ezker abertzaleen laguntzaz. Ate berria ireki ote da Frantziako euskaldunentzat? Hala espero behar da Euskal Herri horren eta honen deserrian. Itxaropena, hitzemana, hitza janda izan ez dadin Giscard-ek ohitura zuen bezala.

Gordeko al dute? ala Espainiako sozialisten antzera Nafarroan egin dutena haiek ere eginen al dute? Geroak esanen digu, iraganak erakutsi baitu libertateez eta pertsonen askatasunaz harrotzen zen Estatu horrek zer abantail ekarri dioen euskal populuari. 300.000 euskaldunen destierroa Frantzia barnera, euskal hizkuntza eta kulturaren beheratze eta ia ia deuseztapena, ekonomiaren zatikatze eta hitz batetan atzerritar botere baten kolonizapen krudela. Ez al dira lotsa izanen Frantziaren izenean, pertsonen eta guttiengo etnikoen askatasunen izenean, giza-teriaren izenean, halako herri ttiki bati tamainako kastigua emateaz?

Uste dugu, sinestu egin nahi dugu, Iparraldeko Euskal Herri horren asasinatze geldoa mugekin topo egin duela. Uste dugu, sinestu nahi dugu prometatu den euskal departameta eginen dela eta euskal kultura, euskaldunon hizkuntza eta hezkuntzarentzat tresna baliagarria bihur dadila.

Hala ezbalitz, hitz utsak, edukirik gabeko erakundeak balira, Herri honen etsipenak ez luke mugarik aurkituko eta zuzentasunean etsipenezko bideari jarraitzea bidezkoa liteke.

*Irun hiri
1981.ko
literatur sariak*

Literaturaren sorkuntza eta hedapena sustatu nahirik, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, Irungo Udalatxearekin lankidetzan, 1981.eko Irun Hiri Literatur Sarietarako deia egiten du bere XII.urtean, jarraiko oinarri hauen arabera:

1. Lehiaketa euskaraz eta espainieraz idazten duten idazleentzat da. Obra originalak eta argitara gabeak aurkeztu behar dira.

2. Originalak, hiru kopian aurkezturik eta foliotan bi lerroko tartea utziz eta alde batetik bakarrik mekanografiaturik, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialesa igorri behar dira (Jendar-teko Harremanak eta Marketing-eko Zuzendariordetza), Donostiako Garibai kalera, 13-15, 1981.eko abuztuaren 31 eguneko 13 orduak baino lehen.

3. Originalek, lehiaketarako onartuak izan daitezten, obraren izenburua eta idazkun ezaugarria besterik ez dute ekarriko estalkian eta barruan ez da agertuko egilea nor den ager lezakeen ez sinadurarik ez beste azarnarik. Gainera, itxita etorriko den kartazabal batean, estalkian lana zein sailetakoa den eta beraren idazkun ezaugarria jarriko dira eta barruan, berriz, egilearen izena eta abizenak, helbidea eta telefonoa.

4. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak izendatuko ditu saif desberdinetarako Epaimahajkoak.

5. Sariaketen epaia Irun Hirian emango da 1981.eko azaroaren 28an.

6. Sariak eman gabe utz daitezke.

7. Saritutako obrak Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren jabetzapean geratuko dira eta berak gordetzen ditu argitalpen-eskubideak.

8. Ondorioak jakin ondoren plikak irekiko dira eta, Lehiaketan sarituak izan direnen berri emango delarik, sarituak izan ez diren obrak beren egileei itzuliko zaizkie.

9. Lehiaketari buruz ez da gutun-harremanik egongo.

10. 1981.eko Irun Hiri Literatur Sariak sail hauetan ematen dira:

IPUINA EUSKARAZ

Lanak 6 eta 10 folio bitarteko hedapena eduki beharko dute, gai eta kondaketa librean. Gaztelua eta 100.000 pezeta.

POESIA EUSKARAZ

«Jose Artetxe Saria» Neurri, puntu eta gai librean. Lanek gutxienez 800 bertso eduki beharko dituzte. Gaztelua eta 200.000 pezeta.

NOBELA EUSKARAZ

Lanen gutxienezko hedapena 125 foliotakoa izango da, gai eta kondaketa librean. Gaztelua eta 400.000 pezeta

IPUINA ESPAINIERAZ

Lanak 6 eta 10 folio bitarteko hedapena eduki beharko dute, gai eta kondaketa librean. Gaztelua eta 100.000 pezeta

POESIA ESPAINIERAZ

«Jose Artetxe Saria» Neurri, puntu eta gai librean. Lanek gutxienez 800 bertso eduki beharko dituzte. Gaztelua eta 200.000 pezeta

NOBELA ESPAINIERAZ

Lanen gutxienezko hedapena 125 foliotakoa izango da, gai eta kondaketa librean. Gaztelua eta 400.000 pezeta

**JOSE MARIA IPARRAGIRREREN
HERIOTZAREN MENDEURRENA**

Aurten Jose Maria Iparragirrearen heriotzaren mendeurrena betetzen delarik, Euskal Jauriritzako Kultur Sailak olerki lehiaketa bat antolatzen du.

OINARRIAK

1.- Nahi duten guztiek parte har dezakete euskarazko eta gaztelarazko lanekin, orijinalak eta argitara gabeak izanik.

2.- Olerki gaia Iparragirrekin loturik egongo da, haren edozein alderdi hartuz: bizitza, nortasuna, lana, garaia, etab.

3.- Poesiek neurri eta rima librekoak izan daitezke eta gehienez 200 bertso.

4.- Orijinalak hirukoizturik aurkeztu beharko dira, bi lerrotara mekanografiaturik, alderdi bakar batetik. Haiekin batera sobre itxi baten barruan idazlearen izena eta helbidea emango dira, kanpoko aldetik ezizen bat ezarritik.

5.- Jatorrizko emateko lekuak, Urriaren 10 aurretik,

hauek izango dira: Bilboko Kultur Ordezkaritza (Mazarredo 63); Donostiako Kultur Ordezkaritza (Andia 13) eta Gasteizko Kultur Etxea (Paseo de la Florida).

6.- Lehen Sari bat jartzen da, euskarazkoentzat 50.000 pezetakoa eta beste bat gaztelarazkoentzat era berean 50.000 pezetakoa. Areago bi Bigarren Sari izango dira 25.000 pezetakoa bakoitza, hizkuntza bakoitzeko.

7.- Euskal Jauriritzako Kultur Sailak beretzat gordetzen du saritutako posaiak eta epaimahiaren ustetan argitaratzeko duin diren saritu gabeak argitaratzeko eskubidea. Beren lanak argitaratzen zaizkien idazleek zenbait ale jasoko dituzte.

8.- Epaimahiaren erabakia itzulezinekoa izango da. Lehiaketaren parte hartzaileek berak oinarri hauek erabiltzen onartzen direla esan behar du. Oinarri hauekiko edozein ulerpen zalantza antolatzaileek erabakiko dute.

Eusko Jauriritza

URRASPIDE

Euskararen Didaktikari buruzko aldizkaria.

Euskara ikastera jende gehiago zetorrela-eta, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak, duela bi urte, Euskararen Didaktikan sakonetan arituko zen taldea sortzea erabaki zuen. Talde Didaktiko honen lana ikerketa zen; hau da, deskubritu ahal denik eta azkarren adinetako pertsonei euskara ikasteko nola irakatsi behar zaion.

Euskal Herriko euskara irakaskuntzako zerbitzua izateko asmoaz, bada sortu zen 1979-an Talde Didaktikoa. Lehenengotan, 3 pertsonak osatzen zuten talde hau. Gaurregun 7 dira. Bi urte hauetan egin dituzten lana URRASPIDEN argitaratu dira. Lan hauez, gainera, aldizkari honetan bildu izan dira baita ere Euskal Herriko toki ezberdinetan egin diren esperientzia didaktikoak.

Gaurdaino, 8 ale argitaratu dira. Lehenengoan (agortua) Euskara Irakaskuntzak Iraspide Didaktiko orokorrak eta Euskara irakasteko metodoen analisisa eman zen.

Bigarrenean euskararen irakasketa mailakatuari buruzko lanak agertu ziren.

Hirugarrenean, Materialen Osagarriak eman ziren, eta Kataluniako esperientziak.

Laugarrenean: Goi Mailetakoko Irakaskuntza estudiatu zen. Eskema Globalak eta Analitikoak.

Bosgarrena Alfabetatzearen dedikatutakoa da.

Seigarrena: Atzikiari dedikatua.

Zazpigarrenean Euskara irakaskuntzako lehen ehun orduak azaltzen dira.

Zortzigarrenean, Oinarriak euskararen bigarren mailan. Eta bertan, 2500 hitz baino gehiagoko hiztegitxo bat agertzen da.

2000 ale inguruko aldizkaria da. Eta, gaurregun, AEK-entz bidez bakarrik, lortu ahal dugu arren (Diputazio kalea, 3-11 eskuina Bilbo) liburutegietan saldu ahal izateko jestiok agertzen ari dira.

100 pezetatik 300-era koartzen dira, batzuk bestizko baina orri gehiagokoak direla-ko.

- 3.or.- Artikuluburua
- 4.or.- Agiriak
- 5.or.- Aurkibidea
- 6.or.- Viñaspre: Kapitalaren esku janzaniko hainbat ondoren kontatzen digu Viñaspre-k argitaratzer dugun elkarrizketaren lehen zati honetan.
- 8.or.- U.E.U.Bederatzigarrenez ospatzen dugu aurten Udako Euskal Unibertsitatea.
- 11.or.- Krutwig: "Euskaldunek lehenik erdietsi behar dute soberanitatea Kulturari".
- 15.or.- Noren eta norentzako unibertsitatea
- 16.or.- Hankaz gora.
- 17.or.- Frantzian zerbait berri espero: Hilebetea dela irabazi zuen Mitterrandek bere postua Eliseon, doala. Dossier gisa eginiko artikulua dugu hau hauteskunderen historia luze bat eginez.
- 23.or.- Josep Lluís Pitarch: Valentziak gloria berria eman behar diola Españari...
- 26.or.- Gauzak argi ikusten dituan itsua: Hitz gutxitan esango diuzet zein izan den nere bizitza, nola dagoen itsu baten bizitza eta orokorrean elbarri guztien bizitza.
- 33.or.- Bertsoak: Bertso berriak despetolteari jarriak. Bertso paperak Bilbon.
- 34.or.- Foruen hobekuntza: Bi artikululu ditugu gai berberaz.
- 37.or.- 18.000 Km. euskara ikasteko
- 38.or.- La paz: gatazka handiko auzoa: Donostia inguruko "La Paz" auzoan jazorikoak berri dira oraingo honetan.
- 40.or.- Gay-en harrotasuna: Ekainaren amaieran Gay-en egun internazionala ospatuko da munduan. Euskal Herriko gayek badakarte berriak.
- 42.or.- Abortoaren inguruan hainbat aburu (eta II): Aurreko ANAITASUNAn hasitako lenari ematen zaio jarraipena orain Holanda eta Alemaniako legeak aztertuz.
- 45.or.- Anaitasunak bere harpidedu-nei
- 46.or.- Udan ere Euskaraz: Uda honetan ospatuko diren ikastaroen berri.
- 48.or.- Besteak
- 49.or.- Komikia
- 50.or.- Urrezko astabelarriak



anaitasuna

Ale honetan lankide izan gara:

I. Antiguedad
I. Alvarez
J.I. Basterretxea
J.R. Bilbao
J.R. Etxebarria
M. Gereka
J. Idigoras
M.A. Merino
J.M. Pastor
K.G. Puente
M. Sanchez.
T. Trifol
U.E.U.ko prentsa bulegoa
G. Urrutikoetxea
R. Zumalabe
M. Izagirre
Anaitasuna
Zabalbide 68 - entlo.
Tfnoa: (94) 411 66 20


Moldiztegia

Estudios Gráficos
Lege G.D.L. BI 1753-1967
Printed in the Basque Country



ALE HONEK Ekaina eta Uztailaren data agertzen du. Hurrengoak, Uztailaren bigarren hamabostaldian ateratzeko denak, Uztaila-Abuztuaren data agertuko du. Abuztuan zehar ez dugu alerik argitaratuko. **ANAITASUNA.**

JUAN JOSE VIÑASPRE, EGIAREN MINA EUSKO TRENBIDEETAN



FF.VV.edo Eusko Trenbideak deitzen diren zerbitzu publiko-
etako langile bat kanporatu zutenean, bakarrik azalegituraz
adierazi zen arazo hau egunkarietan eta beste informabide ba-
tzutan. Baina FUNTSA, MAMIA, EZ DIGUTE ARGITU NAHI
IZAN EDO-TA EZ DIETE ESATEN UTZI. Bilbo-ko Areatzako gel-
tokirantz Juan Jose Viñaspre Ozaeta langile kanporatuaz gal-
dezka joan garenean entzungorrenak egin dizkigute hango
artekari eta geltoki-buruak. LAB sindikatuaren egoitzara jo
beharrean izan gara Viñaspre jaunaren helbidea ezagutzeko eta
azkenean berarekin mintzatu gara xehetasun gehiago jakin
nahiaz.

AL COMITE DE EMPRES DE LOS FERROCARRILES VASCOS

Por compañeros delegados del Comité de
Empresa, he sabido que el compañero presiden-
te, tenía que haberme comunicado, que obra en
su poder el EXPEDIENTE DISCIPLINARIO: que
la dirección tiene abierto contra mi persona:

Por tanto, espero ser informado documental-
mente d'elos contenidos de toda comunicación
al efecto, de la dirección al Comité de Empresa,
y de los acuerdos que sobre lo mismo, vaya to-
mando el Comité de Empresa.

No admito ningún expediente:

No admito ningún castigo.

Y sobre la responsabilidad de la dirección de
los FF.VV. sobre quien pesa:

- El hecho pernicioso, de que es está negando
DESDE SIEMPRE, resguardo firmado a las can-
tidades recaudadas y entregadas por interventor-
es y jefes de tren.

- La obligación de facilitar de forma ineludible
o inmediata, a cada agente de tren, los resguar-
dos de las cantidades ya entregadas, y de las
que entreguen, aunque no lo exijan. Pasar del
cohecho de dirección, al derecho humano: abo-
lir el sempiterno látigo. Su rigor inhumano.

- La persecución contra mi persona por direc-
ción, y sus ansias de aplastarme, se cifran en
obligarme a trabajar de JEFE DE TREN, sin dotar-
me de credencial, a gritos y amenazas del Sr.
Taín Latorre. Quitarle mi DIA DE DESCANSO
SEMANAL, sin consultar conmigo, en forma a
la brava, desaforada y amenazante, fruto de
vieja costumbre en este ferrocarril, como si de
esclavos se tratara.

Dirección a pisoteado sus propias leyes, tro-
cando suculpa de ABUSO DE PODER, en ajusti-
ciamiento de sus victimas, que hace sufrir contra
derechos humanos y laborales. Defendí mis de-
rechos, pero está patente el odio de dirección.

- Ahora vuelve dirección a querer asesinar mi
vida, quitándome todo derecho a vivir, con su
sempiterno sadismo, por haber defendido mi

dignidad, contra su eficiente cohecho, de reco-
ger dineros de recaudaciones en ruta, negando
los RECIBIS. Negra historia de trucar el DE-
RECHO en COHECHO.

Dirección arriesga vidas y trenes, enviando es-
tos aún hoy, a reparar, entre Algorta y Lutxana,
con el maquinista solo. Sin agentes de tren.

- Sin dejar de ser directores, Magistratura de
trabajo en Bizkaia, autorizó como obreros a
dichos directores, concediéndoles licencia para
votar en todas las elecciones sindicales, causa
defendida por el secretario general de FF.VV.
Sr. Urquijo. Votaron en las últimas elecciones
sindicales.

- Mi examen para jefe de estación, me fué
descalificado por ILEGIBLE. El mismo puño, y la
misma letra fué calificado para mi acceso a inter-
vendedor. Obran en mi poder los documentos que
testifican esto, con la firma del director F. Escu-
dero Unamuno.

Dado que esta situación es de descarada ocu-
pación militar, donde se priva de todo derecho
humano y laboral, con amenaza patente y pro-
caz del sr. Pradera del Organo Gestor de los
FF.VV. de abolir todo derecho sindical adquirido
hasta la fecha:

INVOCO


Al tribunal contra criminales de guerra nazis de
Nuremberg, para que previa investigación de de-
rechos internacional, haga justicia.

Al tribunal internacional de La Haya, para que
previa investigación, haga justicia.

A la comisión internacional de la DECLARA-
CION UNIVERSAL DE LOS DERECHOS HU-
MANOS, para que previa investigación, procla-
ma veredicto.

A la opinión pública, para que EXIJA INVE-
STIGACION PUBLICA, de la conducta de esta di-
rección, en el pisoteo y conculcación de todo
derecho humano y relación pública de los cul-
pables.

Bilbao: 3-5-1981
Viñaspre



Anaitasuna-k: "Esaiguzu noiz eta ne-
la sartu zinen Eusko Trenbideetan".

J.J. Viñaspre-k: "Orain lau urte edo
1976.ko Abenduan izan zen. Bilboko gel-
tokian bagoiak eskobatzan hasi nintzen
Sei hilabete geroago artekari izateko exa-
minak egin nituen eta aprobatu".

A.- "Noiz hasi ziren istiluak?"

V.- "Hasieratik zenbait huts ikusi nuen
material, langile eta bidaiarientzat kalte-
garria zena. Aldibidez: Areetatik edo Al-
gortatik Lutxanako lantegietaraino trenak
hutsik bidaltzea bakarrik motoristarekin
edo artekariarekin eta motoristarekin. Ho-
nek guztionez seguritatea kentzen zion
trenbideari trenetan aberia izanez gero

"Nik ez nuen tren-buru ibili nahi izan zeren eta haiek ez zidaten
horrentzako kredentzialarik eman. Gero, istripuren bat izanez
gero, noren gainean eroriko litzateke erresponsabilitatea?"

Zergatik? Ezin estal daitekeelako trenbidea motorista bakarrik doanean.

A.- "Adieraziezaguzu hori".

V.- "Esan dudanez, modu horretaz ez le-

tzan geltoki-buruari abisatzeko esanez. *Eta arraoia !!! Ricardo del Corte-k esan zidan bera ez zela gauza halakoak agintzeko bere sozial-zuzendaritzatik!!! Nork gero?*

sartu Seguridad Social-ean. Martxoaren 20an erakunde horren egoitzara joan nintzen neure filiazio hori egiazkoa ote zen frogatzeko. Hango langile batek ordubete bat eman zuen ni artxiboetan aurkitzeko baina dena alferrik. *Ez nengoen.* Orduan inpreso bat bete erazi zidan neure datu ofizial guztiez eta hamabost egun buruan erantzuna edukiko nuela esan zuen. *Gezotik ez dut inolazko oharrik hartu. Seguridad Social-ean afiliatuta egon gabe faktura pagatzeko akordiora iritsi ziren enpresa eta erakunde hori?"*

"Odolez blai zorabiatzear nengoenean Enrique Urquijo idazkari orokorrak — "A ver si te mueres de una puta vez" —. Esan zidan oihuka".

goko seguritateak. Motorista eta artekaria egotekotan trenbideko punta bat zainduko lukete soilik. Tren honen seguritateak handiena ekipo osoan datza, hots, motorista, artekaria eta tren-burua doazenean. *Eta hau ez da inoiz ere betetzen. Trena irteteko aginkera beti egiten dute arau hau kontutan hartu barik, zuzendaritzak eta buruek dena dakitelarik.*

A.- "Zer pasatu zitzaizun gero?"

V.- Baldintza hoietaz zirkulatzeko ez nintzen prest. *Nik ez nuen tren-buru ibili nahi izan zeren eta haiek ez zidaten horrentzako kredentzialarik eman.* Gero, istripuren bat izanez gero, *noren gainean eroriko litzateke erreponsabiitatea? Nigan? Eta gainera kredentzialarik gabe? Guttienez hiru pertsona hoiek joan behar dute. Bi, puntetako geltokietara joan daitezten abisatzera - aberia sortuz gero - eta beste bat tren barruan geratzeko".*

A.- "Zure ezetza horregatik sortuzen diru-biltzearen arazoa?"

V.- Bai. Geroztik makina bat probokazio jaso dut, zuzendaritza eta goikoengandik. Azkena, 1980.ko Otsailaren 27an. Egun horretan bidaian eginiko diru-biltzea ematera joan nintzen Areetako geltokira. *Bidaian kobratutako dirua emateraokoan, geltoki-buruak ez zidan gordekinean sinatu gura izan, erregelamenduan ipintzen den bezalaxe.* Gordekinean hutsune bat agertzen da, *"cantidad de pesetas -recibi-*

A.- "Salatu al zenuen joera hori?"

V.- Bai. Lau egunetan ixadon nuen ea baten batek Carmelo Fraguas-ek sinatu nahi zuela zioetan. Epe hau pasatuta gero

A.- "Noiz kanporatu zintuzten?"

V.- Maiatzaren 6an.

"Zergatik botatzen dute "recibi" horren sinadura exijitzen duena? Galdera honi Garaikoetxea jaunak erantzun beharko lioke, dena argitu beharrean burusitik tiraka zegoen artekariari lanpostua kentzea erabaki omen duelako".

Ricardo Del Corte-ri emaniko eskribua fotokopiatu eta geltokietako iragarki-taletan ipini nuen. Denbora aurrera zihoranez, Martxoraren 4an beste ohar bat jarri nuen geltokietan. Honetan Enpresa egiten ari den irregulartasunak salatzen nituen. *Martxoaren 12an disziplinazko expedientea egin zidaten. Biharamunean, Martxoak 13, zainak ebaki nituen atxuri geltokiko zuzendaritza-bulegoen aurrean. Odolez blai zorabiatzear nengoenean eusko trenbideen idazkari orokorra den Enrique Urquijo-k "A ver si te mueres de una puta vez" esan zidan oihura.*

A.- "Eta gero?"

V.- Bueno, egun bereko hamabiak ingurutan esnatu nintzen Basurtoko ospitalean eta arratsaldeko seietan "alta" hartu nuen. *Martxoaren 18an ospitaletik faktura ailegatu zitzaidan. Ondoko paper batek zera zioen: "Baja 1975.ko Irailaren 30an".*

A.- "Eta orain, nola doa, kasua?"

V.- Antza denez enpresak indemnezio bat eman nahi dit eta eritasun egoera luzatua jubilatu arte eduki. *Hau l ABeko lagunek esan didate baina nik ez dut hau onartzen eta neure lanpostuaren alde burruka egingo dut. Nire lanpostua errespetatzea ala kaleratzea, baina dena argiro, txorradarik gabe.* Eta hau guztiau sinadurak eskatzeagatik. Nire lankideak ikara dira eta ez diote geltoki-buruari eskatzen sinadurarik. Hau beti egiten da. *Nora doa diru hori? Zer egingo ote dute hartaz? Nik etxean 127 errezibu ditut eta guztiak sinatu gabekoak. Zergatik botatzen dute "recibi" horren sinadura eskatzen duena? Galdera honi Garaikoetxea jaunak erantzun beharko lioke, dena argitu beharrean burusitik tiraka zegoen artekariari lanpostua kentzea erabaki omen zuelako.*

A.- "Jendeak lagundu dizu?"

V.- "Beldur handia dago. Komite anti-nuklearrekoek, LAIAkoek, LAB, e.a. LAIAK trenak pintatu zituen martxoaren 6an. Orain berriro egin dute, "Viñaspre admisión" inpitzen..."

A.- "Burrukan segitzeko prest?"

V.- "Jakina. Pasa den hilabetea ez dut oraindino kobratu... Familia ere ba dut eta egoera honetaz ezin egon naiteke gehiago. *Fineraino heltzea erabaki dut, goiko buru asko bustirik utziko dudan arren".*

Elkar agurtu dugu. Oraingoz amaituta dago baina oraindik falta zaizkio beste gauza batzuei kondatzeko. Eusko trenbide-etako bidaiari bati J.J.Viñas pre-z galdeztzean esan dit: "Oso gizon ona zen "Egunon" esaten zuen bakarra txartelak eskatzerakoan..."

"Enpresak ez zidan "alta" eman Seguridad Social-ean".

jefe de estación- jartzen dena. Geltoki-burua sinatu beharrean, *"no se me pongan los cojones"* batez erantzun zidan, sinatzeko hutsunerik bazuela esan banion ere. Orduan diru-biltzea hartuta, bulegotik alde egin nuen. Goizean zen eta geroago, lanean ari nintzela, artekari-buruarekin egin nuen topo. Hau txartelez eta diru-biltzeak emateaz arduratzen da. *Carmelo Fraguas geltoki-buruak egin istilua kondatu nionean esan zidan: "dejeme en paz y no me venga con hostias".*

Arratsaldean, etxean, gertaera hoiek idatzi nituen eta biharamunean sozial-zuzendari den Ricardo del Corte-ri aurkeztu nion kopia bat, hal gordekinak sina zi-

A.- "Nolatan izan zen hori, bada?"

V.- Lehendabizikoan Enpresak ni lasaitzen ahaleginak egin zituen Seguridad Social-ek oro ordaindu behar zidala esanez. Bueltaka ibili ondoren Seguridad Social-goek *enpresak ez zidala "alta" eman haiek erakundearen aitortu zuten.* Juan Ramón Areitio azpizuzendari orokorrari esan nion Bilboko kaleetan zehar pankarta batez azalduko nintzela arazo hori konpondu ezik. Hark, ados zegoela eta biharamuneko dena konponduta izango nuela. *Bai bostak!!! Fakturaren arazoa konpondu zen baina Seguridad Social-ekiko filiazioarena ez.. Administrazioak ordaina pagatu zuen baina ez ninduen*

IX. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA



Aurten ere, Iruñean ospatuko da Udako Euskal Unibertsitatea Uztailaren 20tik Abuztuaren baterarte Larraona Ikastetxean. Matrikula epea Ekainaren batean zabaldu da, eta matrikula tokiak hauek dira:

Gasteizen Axular liburudenda, Donostian Elhuyar elkarte, Iruñean Auzolan liburudenda, Baionan Zabal liburudenda eta Bilbon UEUren idazkaritza (Urkijo zumardian 18, telefonoa 444 09 29). Matrikularen kostua 4.000 pta izango dira eta pentsioarena beste 11.000 pta. Matrikula epea ekainaren hogeitamarrean bukatuko da.

Giza eta gizarte zientziak.

Deretxoaren arloan ikastaldi bi emango dira: Estatuaren hiztegiaren azterketa eta finkamena eta Estatuak ematen dituen eskubideak lan-zuzenbide alorrean. Mintegia Akordio Ekonomikoen azterketaz izango da, Ekonomian sailekoekin batera.

Ekonomian ikastaldiak ekonomiaren irakaskuntzaz arituko dira: hiztegia landu, Fa-

kultateetarako textua prestatu. Mintegiak: Sistema dinamikoen azterket, Kontzertu ekonomikoen azterketa (Deretxo sailekoekin batera), langabezia kalkulatzeko teknikak eta Reaganen politika ekonomikoren azterketa (Sarrikoko ikasle taldeak eginik).

Filosofia sailean ikastaldiak, komunikazio arloa joko dute: Komunikazioaren arazoa filosofiaren ikuspegitik, komunikazioa eta "adieraren" auzigintza Filosofiaren historian zehar eta Wittgenstein-engan bereziki, "ikurraren" arazoa komunikazioaren baitan: simbologia, psikoanalisi eta komunikazioa; komunikazioa Soziologia berriaren ikuspegitik: Mc Luhanen teoriaren aurkezpena eta balorapena, komunikabideen arazoa komunikazioaren baitan: euska komunikabideak eta "euskal komunikazioaren" auzia, komunikabide eta komunikazioarekiko irtenbide eta joera berrien bila. Arlo hontan Filosofiaren irakaskuntzaz topaketa batzu egingo dira.

Historia arloa hiru azpisailetan bananduko da: Irakas azpisaila, Lexikografi azpisaila eta Iker azpisaila.

Hizkuntzalaritza

Aurten, alor hontan Bertsolaritzak toki edukiko du, bere historia, izatea azala eta forma: teknika eta errima.

B titulorako ikastaro bat emngo da; Eusko Kaltzaindiak D eta B mailetako konbokatuko egingo du, nafarrentzat eta UEUn matrikulatutako ikasleentzat bakarrik.

Glotodidaktika eta Linguistikaren arloetan sartzen dira programa.

Natur Zientziak

Botanika eta geologiazko arloak ikusiko dira, ikastaldi, hitzaldi eta mintegiak emanen alde batetik, eta praktikak eginez bestetik eta hortik aparte interak izango dituzte.

Zientzi zehatzak

Fisika, kimika, matematika eta alfabetatze zientifikoa dira arlo hontatik ikusiko diren gaiak: Astronomia, Fisikaren historia, elektromagnetika, eguzkitiko energia, Erresonantzia magnetiko nuklearra, analisisirako metodo elektrokimikoak, matematikaren irakaskuntza (Irakasle eskoletan, BUP, COU, LH eta Unibertsitatean), integrazioaren historia laburra, matematika hiztegia: balorapena eta erabilpena. Alfabetatze zientifikoa Lanbide Heziketako irakasleentzat prestatuko dago, gai hauekin: fisika orokorra, fisika elektrokoa, marrazketa tekniko, teknologia elektriko, teknologia mekaniko eta hizkuntz prestateta.

Hau da aurtengo UEUko programa laburra. Gai hauetatik gainera, izango diren ekintza osagarri batzu: musika, mahai irakurleak, modari buruz hiltzaldiren bat, euskal sukaldaritzaz besteren bat eta abar.

Eta bukatzeko, esan beharra dago: Mintegietan txapelketak ere ospatuko direla eta hantxe beste ekintza osagarri batzu jendearekiko matuko dituela espero dugula.

UEUko Prentsa Bulegoa

IX.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

IRUÑEA 1981

PROGRAMA

I.- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

1.- DERETXO

A- IKASTALDIK

1.- Estatuaren hiztegiaren azterketa eta finkamena

2.- Estatuak ematen dituen eskubideak lan-zuzenbide alorrean.

B- MINTEGIAK

Kontzertu Ekonomikoen azterketa
(Disziplinarteko lana Ekonomia Sailekoekin batera)

2.- EKONOMIA

A- IKASTALDIAK

Ekonomiaren Irakaskuntza:

- Hiztegia landu
- Fakultateetarako Textua prestatu

B- MINTEGIAK

- 1.- Sistema dinamikoen azterketa
- 2.- Kontzertu Ekonomikoen azterketa
(Lan disziplinartekoa Deretxo Sailekoekin batera)
- 3.- Langabezia: Kalkulatzeko teknikak
- 4.- Reagan-en politika ekonomikoren azterketa (Sarririkoko ikasle taldeak).

3.- FILOSOFIA

A.- IKASTALDIAK.

- 1.- Komunikazioaren arazoa Filosofiaren ikuspegitik
- 2.- Komunikazioa eta "adieraren" auzigintza Filosofiaren historian zehar eta Wittegenstein-engan bereziki.
- 3.- "Ikurraren" arazoa komunikazioaren baitan: Sinbologia, Psikoanalista eta Komunikazioa
- 4.- Komunikazioa Soziologia berriaren ikuspegitik: Mc Luhan-en teoriaren aurkezpena eta balorapena.
- 5.- Komunikabideen arazoa komunikazioaren baitan: Euskal komunikabideak eta "euskal komunikazioaren" auzia
- 6.- Komunikabide eta komunikazioarekiko irtenbide eta joera berrien bila.

B-TOPAKETAK

Filosofiaren Irakaskuntzaz.

4.- HISTORIA

A.- IRAKAS AZPISAILA

- 1.- O.H.O.erako Programa berrituak eta hauek dakartzaten aldaketak.
- 2.- Historiaren irakaskintzaren Metodologia:
 - O.H.O.ean
 - B.U.P.en
 - Giza Zientzien irakaskuntza irakasle Eskoletan
- 3.- Irteera: Iruñeko Museora Iruñeko ibilbide historikoa

B.- LEXIKOGRAFI AZPISAILA

- 1.- "Denbora" kontzeptuari buruzko lexikoretaren aurkezpena.
Taldearen lan prozedura; arazoak eta irtenbieak Bildutako lexiko-altxorra, Epekapen historikoa Ahozko literatura: zenbait testu eta itzulpen.
- 2.- Histori lexikogintzaren arazo praktiko nagusienak.
- 3.- Histori hizkeraren lanketarako taldearen aurkezpena.

C.- IKER AZPISAILA

1.- Histori topaketak

Gaia: Lege zaharren edo aintzinako erjemnaren etena Euskal Herrian (1750 - 1900)

Ponentziak eta mahaingurua

2.- Irteera: Nafarroako Erdialde eta Ebro aldeko populaketaren azterketa.



II - HIZKUNTZALARITZA

5.- BERTSOLARITZA

- 1.- Bertsolaritzaren historia
- 2.- Bertsolaritzaren izatea.
 - a.- Testularitza, koplaritza, bertsolaritza.
 - b.- Bertsolaritzaren berezitasunak: batbatekotasuna edo inprobizazioa. Zer den hori. Beste arteengandiko alde nagusia: sortu eta interpretatu eta batera.
 - c.- Bertsolaritzaren inguru soziologikoa, sargardotegietatik gaur arte.
 - d.- Gaiak eta gai jartzaileak
 - e.- Lehengo eta oraingo entzulegoaren arteko aldea
 - f.- Berezkoa eta ikasia. Zer da bata eta zer bestea
 - g.- Etorkizuna.
- 3.- Bertsolaritzaren azala edo forma: teknika
 - A.- Doinua edo kantua. Zer doinu mota den bertsolariena.
 - B.- Neurria. Zer den hau eta nola lor litekee.
 - a.- Hitz betegarriak
 - b.- Hitz konposatuen jokoak: genitiboz ala ga-be
 - c.- Hitz sinonimoak eta antzekoak
 - d.- Hitz desberdinak, baina kontestuan berdintsu direnak.
 - e.- Atzikiak, kendu nahiz ipintzekoak

f.- Laburdurak edo kontrakzioak

g.- Elipsisak

4.- Errima

- a.- Kontsonante familiak
- b.- Bariazioaren beharra eta nola
- c.- Errimakera progresiboa
- d.- Hiztegi errimatuaren azterketa

6.- B TITULURAKO IKASTAROA

GAIAK

Euskaltzaindiak, maila honetan eskatzen dituen gaiak emango dira:

- * Morfosintaxia
- * Fonologia
- * Dialektologia
- * Literatura

OHARRA:

Euskaltzaindiak, U.E.U. Iruñean egiten dela aprobetxatuz, D eta B mailetakoko konbokatoria egingo du.

Konbokatoria hau nafarrentzat eta U.E.U.n matrikulatutako ikasleentzat bakarrik izango da.

Bestalde, U.E.U.n egin daitekeen ikastaroa lagungarri modura hartu behar da eta inondik ere ez gehiagorako.

7.- GLOTODIDAKTIKA

0.- SARRERA. Programaren aurkezpena eta lan metodologia

1.- Busturiko Ikastaro Intentsiboa:

- Ikastaroaren:
- planteiamendua eta helburuak
 - baldintzak
 - plangintza eta programaketa

Erabilitako materialeak eta teknika didaktikoak.

Eskolatik kanpoko harremanak.

Emandako eskolen aurkezpen praktikoa

2.- Euskalduntzeko Ikasprozesuaren ikuspegi orokorra (I).

Oinarriko euskara eta bere barneko mailak.

Oinarriko euskararen programaketa. Kriterioak

3.- Oinarriko Euskararen programaketa. Ariketak. Ariketa mota ezberdinak, mailaz eta helburuz. Lau hizkuntz-trebetasunak.

4.- Ariketa globalen eta analitikoaren aurkezpen praktikoa.

5.- Gipuzkoako euskal-eskolekoko Ikastaro intentsiboen esperientzia.

6.- Euskalduntzeko ikasprozesuaren ikuspegi orokorra (II) Oinarriko euskara maila eta hobekuntza maila Alfabetatzea.

7.- Hizkuntzen ikasprozesuari buruz gaurre-gun dauden ikuspegi orokor ezberdinak.

Programaketa estrukturo-linealak eta globalak.

Ikuspegi sintagmatikoak eta komunikati-
boak.

- 8.- Hizkuntzaren funtzio komunikatiboa.
Gaurko egoera haurren eta adinekoen ira-
kaskuntzan.
Nola aurrera jo eta zer medioz.

8.- LINGUISTIKA.

A.- IKASTALDIAK

- 1.- Hizkuntza zeltikoak
- 2.- Nominalizazioa:
- Sarrera: teoria eta historia.
- Aplikazioa: euskararen kasua.
- 3.- Komunikazioa, filosofia eta hizkuntzaren
aldetik:
- Mc Luhan-en teoria
- Euskal Herriarentzako aplikazioak.
- 4.- Hemeretzigarren mendeko Linguistika
- 5.- Euskara eta Ideologia

B.- MAHAI INGURUAK

- Gau Eskolak
- Ikastola

III.- NATUR ZIENTZIAK

9.- DOTANIKA

A.- IKASTALDIAK

- 1.- Landaredi potentziala
- 2.- Landaredi erreala
- 3.- Klimaxa

B.- PRAKTIKAK

Europako landarediaren azterketa, mapetan,
hiru zuhaitz mota hartuz:

- Artadia
- Bagadia
- Harizti-ameztiak

C.- IRTEERAK

Mapen bidez egindako praktiken aplikapen
praktikoak egin Arbaiun aldean:

- Leire mendikatearen zehartebaketa
- Arbaiungo Arroilaren ebaketa
- Pinuddi baten ebaketa
- Artadi baten ebaketa
- Amezti baten ebaketa

10.- GEOLOGIA

A.- HITZALDI ETA MINTEGIAK:

- 1.- Euskal Herriko historia geologikoa
- 2.- Erlieben eta klima
- 3.- Paleontologia

B.- PRAKTIKAK

- Mapa topografikoak interpretatu
- Mapa geologikoak interpretatu
- Argazki aereoak erabili

C.- IRTEERAK

Arbaiun aldera beste taldeekin batera

IV.- ZIENTZI ZEHATZAK

12.- FISIKA

A.- IKASTALDIAK:

- 1.- Astronomia: Klase teorikoak eta gaueta-
ko irteerak.

- 2.- Fisikaren Historia
- 3.- Elektromagnetika: Klase teorikoak.
Laborategiko praktikak.
- 4.- Eguzkitiko energia: Panelen eraiketa pra-
koak.

B.- AURREZPENAK:

- 1.- Tranformadore trifasiko baten eraiketa
- 2.- Galdetsu: Konputagailuz lagunduriko ira-
kaskuntzarako sistema.
- 3.- Makina-tresna baten zenbakizko kontrola

C.- HITZALDIAK:

Hiru bat izango dira, Leioako Unibertsita-
teko hiru irakaslek emanak.

13.- KIMIKA

A.- IKASTALDIAK


- 1.- Erresonantzia: magnetiko nuklearra
- 2.- Analisisirako metodo elektrokimikoak

B.- MINTEGIAK

- 1.- Oreka kimikoa
- 2.- Hizkuntza kimikoa

C.- PRAKTIKAK

Eroankortasunari buruzkoak.



14.- MATEMATIKA

A.- MINTEGIAK

- 1.- Matematikaren Irakaskuntzaz:
- Irakasle Eskoletan
- B.U.P. eta C.O.U.n
- L.H.tan
- Unibertsitatean
- 2.- Integrazioaren historia laburra
- 3.- Matematika Hiztegia: balorapena eta era-
bilpena.

B.- AURKEZPENAK

- TESI DOKTORALA.: Problema erdilinealak
ireki ez-bornatueta.
- Egile eta aurkezle: MARIA JESUS ESTE-
BAN.

- ARGITALPENAK: MATEMATIKA ORO-
KORRA. II.

Prestatzaile: MARIA JOSE ZARATE

NEURRIA ETA INTEGRAZIOA

Prestatzaile: XABIER DUOANDIKOETXEA
MARIA JESUS ESTEBAN

15.- ALFABETATZE ZIENTIFIKOA (LANDIBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEENTZAT)

GAIAK

- 1.- Fisika Orokorra
- 2.- Fisika Elektrikoa
- 3.- Marrazketa Teknikoa
- 4.- Teknologia Elektrikoa
- 5.- Teknologia Mekanikoa
- 6.- Hizkuntz prestaketa

OHARRAK:

Hona hemen ikastaro honen berezitasunak

Egunak: Ekainaren 29tik Uztailaren 11ra

Tokia: LA SALLE IKASTETXEA (Donostia)

Matrikula: Maiatzaren hogetamarreko ego-
beharko da ELHUYAR-en (Garibay kalea 29)
3 Tfno. 42 99 45)

Kostua: Matrikula: 2000 pta.

Bazkaririk eta afaririk ez da emango

Ordainketa: BANKOan k/k 1001648.

OHARRAK

- 1.- Fetxa: Uztailaren 20tik Abuztuaren lere

- 2.- Tokia: LARRAONA KOLEGIO NAUSUA
Alda. Pio XII z/g. Tfno. 948/25 04 03
IRUÑEA.

3.- Matrikulak:

- Epea: Ekainaren lehenetik hogetamarre

Tokiak:

ARABA:

AXULAR LIBURUDENDA

Avda. Sancho El Sabio, 29. Tfno.
945/22 51 95

GASTEIZ

BIZKAIA:

U.E.U.ren IDAZKARITZA

Alda. de Urquijo, 18 pral. izda. Tfno. 94
444 09 29

BILBAO-8

GIPUZKOA:

ELHUYAR

Garibay, 23-3°. Tfno. 943/42 99 45

DONOSTIA - 4

IPARRALDEA:

ZABAL LIBURUDENDA

Pannecau karrika, 52. Tfno. 25 43 90
BAIONA.

NAFARROA:

AUZOLAN LIBURUDENDA

5. Gregorio, 3. Tfno. 948/21 34 47
IRUÑEA

4.- Haurtzaindegia:

Izanen da Haurtzaindegi zerbitzua klase-
duetan.

5.- Kostua:

- Matrikula: 4.000 pta.
- Pentsioa: 11.000 pta.
- Denetara: 15.000 pta.

"EUSKALDUNEK LEHENIK ERDIETSI BEHAR DUTE SOBERANITATEA KULTURAN"

FEDERIKO KRUTWIG-EKIN EL-KARRIZKETA

Orain dela aste gutxi Toledo-n bildu ziren Europa-ko sei naziotako ordezkariak gutiengoan hizkuntzek dituzten arazoak aztertzeko. Ihardunaldiok Suezia Madrilen daukan enbaxadak antolatzen zituen, Apeti (**Asociación Profesional de Traductores e Intérpretes**) delako elkartearekin batera. **Catalunya, Galiza, Suezia, Danemarka, Noruega eta Euskal Herriko** ordezkari bina joan ziren. Euskaldunak **Juan San Martin eta Federiko Krutwig** izan ziren eta azken honekin mintzatzako aukera izan dugu.

Bileraren ondorioz nagusienak gutun batetan ezarri ziren eta datorren bilera **Mallorcan** egitea erabaki. **Krutwig-ek** adierazten digunez, "dirudenez, badago Suezian problema bat; Suezia herri handia da, 10 milioikoa uste dut. Estatu hizkuntza dute (euskara Euskal Herrian bertan hirugarren klaseko hizkuntza da ofizialki) Suezian badute beren alde estatuaren indarra. Hala ere ikusten dute nola orain ingelesezko literatura zabaltzen den mundu osoan eta nola munduan kultur kolonialismo bat kreetzen den".

Hau dela-ta bildu zituen sueziar enbaxadoreak. Bestalde, Krutwig bera da Euskaltzaindian literatur batzordea bultzatzen ari dena. Bere ustez, beste herrietan bezala Akademiaren bizkar hezurra literatoek osatu behar luke. Puntuotan oinarriturik zurrubiño baten moduan abiatu zaigu kulturaren bideetatik.

Suezian ikusten dute nola kultur morroitzak hasten den eta honen kontra egin nahi dute. Ona litzateke kultura bakoitzak izpiritu unibertsalaz bere hizkuntzan kreetzea eta beste kulturekin harremanetan sartzea.

Nordisk Rödret, Consejo Nórdico espainolez eta euskaraz **"Aholku Nordikoa"**, hauek badute dirua eta orain zerbait egin nahi dute Iparraldeko kulturak beste herrietan sartzeko. Walden jauna ministerioko dirua zaintzen duena da. Nirekin mintzatu zen eta erran zidan Suezia, bertako literaturari buruz euskaraz itzulpenak, edo lan originalak ere, finantzatzeko eta publikatzeko gerturik legokela. Nik erran nuen: **"A ver si al Gobierno Vasco se le cae la cara de verguena"**. Suezia-ko Gobernuak Euskal Gobernu baten beharra dugu.

A.- Euskaltzaindiako Literatur batzordea noiz sortu zen?

K.- Uste dut Otsailean. Aspaldidanik ez nuen entelegatzen literatur saila bat ez zegoen. Ba dauke Jagon Sail bat eta Iker sail bat.

Bertze akademietan inportantea da literatur kreetzaile saila eta geroz ikertzaile saila eta jagon saila.

Akademiak ez du kulparik, aukerarik ez zegoen. Baina zerbait antolatu behar litzateke. Euskal Herrian azken urte hauetan zerbait aldatzen ari dela dirudi, orain 20-40 urte sortzen den mugimendu hori. Orainarte ez zegoen horrelakorik. Euskaldunek orain, batzuek behintzat, badute irakurtzen frantsesezko, alemanezko, ingelesezko literatura. Baietz esian zidaten eta antolatzeko baimena eman. Antolatzen hasi nintzen; egin nuen lehen gauza, Lehendakariari euskararen egoera zein den irakurtzeko informe bat igorri.

Harekin egon nintzen Azkoitian eta pertsona zibilizatu bat zela iruditu zitzaidan. Orduan pentsatu nuen, ba; ni ez naiz antijeltzalea. Uste dut jeltzaleak ere orain aldatzen direla. Europako beste mugimenduak bezala gehiago eta gehiago bilaktzen dira. Badirudi, zabaltzen badira, Italiako Demokrazia Kristaua bezalakoak izanen direla eta ez Espainiako UCD-ren moduan jarri. Badakit momentu batetan **Arana Goiri** oso kabernikola eta reaktionarioa zela baina orain demokristauak ez dira kabernikolak.

A.- Gais zahatzuz, zuk zergaitik igorri, bidali zenion informe hori? Ez al zen Euskaltzaindiaren barruko gauza bat?

K.- Bai, lehenik barrukoa zen. Baina Euskaltzaindia aldatu nahi badugu Estatuaren laguntza behar dugu, euskal kulturgintza pagatu egitea behar da.

Akademiako batzordeko estruktura badut eta kondizioak baditut, baina kondizioak betetzen dituzten pertsonak ez ditut. Bost nahi nituzke, bi edo hiru baditut gora behera, baina egiazkoak ez ditut. Bertsolekeriak izkiriartzen dituztenak sartzen badira, korrupzioa litzateke bere barnean. Nik ezarri nituen kondizioak hauek lirakeke:

- euskara orain dagoen minus egoketatik gorantz atera nahi luketenak.
- elite izpirituaz literatura idazten dutenak
- literatur prosan ari direnak
- literatur kritikariak

- bigarren mailan, neurtzetan poesia kultibatzen dutenak. Eta ez dira izanen:

- linguistika baizik kultibatzen ez dutenak

- herri literaturan ari direnak. Herri literatura ez da literatura, literatura ez da herrikoikeria, beti da pertsona konkretuen ekintza.

- herri literatura aztertzen dutenak: populista, folklorista eta herrikoiak, elite ekintzaren etsaiak Mundu osoan elite hitzak zentzu zentzu ona dauka. Elitea da herri baten burua, piramidearen burua, elite gabe ez dago herri bat.

A.- Zuk diozuna ez al doa Demokraziaren kontra?

K.- Bai zera! Euskaldunok, espainolaren bidez, espainol kulturaz kolonizatuta gaude. Espainolez "pueblo" diozunean, beti da "pueblo" **contra la cabeza, contra los de arriba**". Euskarazko hitza "herria" "volk" alemanezkoa bezalakoa da, piramide osoa da. Baina piramide bat da, ez da bietan tronkatua, Euskaldunek espainolezko kontzeptuez pentsatzen bait dute, "pueblo = herria". Kontuz, "herria" osoa da, eta ez soi soilik beheko parta. Euskaldunek ez dute ikusten nola euskaldun gehienek espainolako kulturaren morroiak diren. Euskaldunek bere kultura osoa espainolaren bidez hartu dute eta munduan beste kulturarik ez dagoela ere uste dute. Soil soilik euskaldun batekin mintzatzea duzu eta berehala ikusten duzu nola euskaldunek munduko beste literaturen ezagutzerik duten eta ez dagozela ere usten duten.

A.- Baina, hori zer, jende arruntak ala...?


K.- Kulturadunak ere. Hemen beti, Euskal Herrian, kultura espainolako eskolen bidez sartzten baita... Espainolako institutoan zuk irakurtzen duzuna beti da Cervantes, Lope de Vega, Calderón, eta bertze literaturatako gauzak beharbada aipatzen dira baina ez irakurtzen. Beraz, aspaldidanik nik horri buruz proposatu nuen: bazeuden frantses'eskolak, aleman eskolak... zergaitik euskaldunek ez zituzten beren haurrak eskolaotan sartzten? Orduan behintzat alienazioa alemana, ingelesa, frantsesa izanen zen; orduan behintzat euskaldunak ez lirateke kultur morroiak, kolonizatu herri orduan behintzat euskaldunak ez lirateke kultur morroiak, kolonizatu herri bat. "**Baina hori ezina da... espainol kultura...**" Eta holako exenplurik ba ditut.

Orain 10-15 urte eratu nahi genuen Iparraldean "bachiller europeo" baten jartzeko eskola bat. Bazegoen gerturik Inchauspe, senadore izandakoa, harekin mintzo ginen: han bada gaztelu bat, Donibane Garazin, eta gure dispoziotionean jartzen zuen.

Euskal Herrian zabaldu genituen holako deiak, 500, euskaraz, bachiller europea emaitakoeta soil soilik lau pertsonak erantzuna eman zuten. Besteak "ah, gure haurrak atzerrira joaitea...", zeren eta Baxenabarra atzerria baita, bainan Suizara joaitea ez da atzerrira joaitea.

A.- Eta hori zein jenderi zuzendu zenien?

K.- Abertzaleak bezala ezagutu zirenei eta dirudunak zirenak hori pagatzeko. Hola erakusten da euskaldunak eta abertzaleak espainol kultur morroiak diren.





euskal kulturagintzan dago. Herri bat kultura kreadzen duen talde berezi bat dat da. Kulturagintzan dago euskaldunen pertonalitatea. Euskaldunek kultura egiten ez badute ez dira herri bat eta herri bat izaiteko eskubidea ez dute eta estatu administrazio bat kreadzeko ere ez. Gobernua soil soilik litzateke parasito batzuen zaku bat. Euskal gobernuaren eskubide guztia euskal kulturagintzan datza.

Adibidez, badakizu, Alemanian Errepublika Federal bat dago. Lehenik estatu batzu geratu ziren eta geroz estatuak bildu dira. Soberanitatea Bund edo Federazio Alemanean dago, salbu eta kulturagintzan: estatu bakoitza subira-noa da, heiek hoin inportantea dela ikusten dute. Euskaldunek lehenik erdietsi behar dute soberanitatea kulturagintzan.

Baina kulturagintza zer da? Batez ere, herri batek berarizkoa, propioa, literatura du. Baina kulturagintza honetan ez dira bertsoak, bertso-larikeriakariak gutiago, kultura ez baitira. Herri kultura ez da kultura, hori folklorea baita, kultura begi gizon batzuen ekintza da. Kultura kreadzen ez duen herrian desagertzen da.

Herri Hizkuntzan dago oroitzen etnikoa baina literatur hizkuntzak kreadu direnean, Sumerian eta geröz grekoekin, kultura kreadzen ez duen herria desagertzen da eta hizkuntzaren bidez herria desagertzen da.

Euskal Herria desagertuko da euskal literatura kreadzen ez dugun bitartean. Baina literaturaren muina prosa literarioa da; beraren bidez hizkuntza literarioa sortzen da, ez bertsoen bidez. Hori baino gehiago: honen kreadzeko herri guztiek literatur hizkuntza batua kreadzen dute. Literatur tradizioen bidez kreadzen dute eta horregatik beti lapurteraren alde izan nintzen. Lapurtera ongi hasi zen XVI. mendean. Geroz holako petralkista bat, Etxepare; Geroz, Biblia itzulpena izan da beste herriaren bezala, hizkuntza burjesa kreadzeko, protestanteek mundu osoan burjesia kreadu baitute eta heien hizkuntza ere bai. Leizarraga nolabait hasten eta reazio bezala Axular, kontrareforma izan zen.

Jesuitek Italiako kultura eta Renaissance-a erhai dute. Pentsa dezakezu Italian hil badute bere sortzearen herrian zer egin duten. Sortzen zen kultura fetus-ean hil zuten.

A. - Baina Axular ez zen jesuita...

K. - Ez zen jesuita baina kontrarreformaren alde zegoen. Dena dela Axularren literaturan, mezu bezala, ez dago mezurrik, beraz zero da; baina hizkuntza bezala ona da. Orduan sortu zen egokera hura Euskal Herrian jarraitu da, Euskal Herrian beti ukan ditugu euskarari buruz izkiriaren dutenak, baina euskaraz ez. Eta hau ikusten da Akademian. Mundu guztian beti egin da, lehen partean, kultur kreadzaileen bilkura; eta geroz ba daude kultur kreadzaile hauen kritikoak edo ta linguistak. Baina euskal Akademian zegoen lehen saila linguistena zen. Eta euskal akademiak errepikatzen du soil soilik Euskal Herriaren egoera. Nik ez dut esaten borondate txarrik dagoenik, baina hau ikusirik begiak zabaldu behar dira.

Nor izan da euskal literaturaren hasieran? Pello Abarka; ez Peru Abarka, pelokeriak izkiriaren baitzuten, tontokeriak eta orduandantik (batez ere Bizkaian, bizkaitarra bait zen) hasten

Informean zer proposatzen nuen? Euskal Gobernuak Euskal Herrian zabaltzen den liburu bakoitzaren 500 exemplare erostea eta zabaltzea. Beharbada gehiago egin beharko litzateke.

Suezian aurtorek ez dute soilik %10 kobratzen, %16 eta bi heren baizik. Geroz, Estatuak edizioeak garantizatzen ditu. Editore batek lan bat hartzen duenean beti autoreari edizioe osoaren komisiorearen heren bat pagatu behar dio, eta bi heren geroago. Han Suezian, 10 milioi biztanle dituen herri batetan beren pertonalitateaz, nazionalitateaz arduratzen dira eta euskaldunak ez.

Inkesta bat egin dut hemen Zarautzen. Saltzen diren liburuetatik hiru laurden erdarazkoak dira eta laurden bat euskarazkoa. Eta laurden erdia, zortzitik bat beraz, metodoak dira eta zortzitik bat literatura. Eta askotan ikastolentzat dira. Euskaldunek, ikastolatik ilkitzen direnean ez dute irakurtzen. Eta ikusten duzu, footing egiteko ba dute ordu batzu egunero baina liburu bat irakurtzeko ez dute ordu laurden bat. Eta Zarautz burjes hiri bat da, gutxi gora behera.

Bertze herriekin konparatzen baduzu, euskaldunek ez dute euskara maitatzen, hau dudarik gabekoa da. Zoaz Belgikara. Zer gertatzen da Belgikan?

Flamenkoek, iparraldean, lortu nahi dute hizkuntza ofiziala flamenkoa izaitea. Hiriburua bilinguala da, Bruxelles, eta funtzionarioak bilingualak izan behar dute. Iparraldean inpuestoen deklarazioe flamenkoz egin behar duzu. Flamenkoz egiten ez baduzu, atzera igortzen dizute deklarazioe eta ipsofakto exoficio pagatu behar duzu triplea. Eliza katolikoak ere soilik flamenkeraz predikatzen. Eta hemen espainolez predikatzen du Eliza katolikoak. Eta hiri batzutan, turistak badaude, frantsesez predikatzen en badute, flamenkoek protesta egiten dute elizaren barruan. Lovainan, ni bizi nintzen herrian, farmazeutiko batek, flamenkoz apoteke eta frantsesez "pharmacie", jarri zuen letre-

roa, bi hizkuntzatan. Bi hizkuntzetan jartzeagatik behin baino gehiagotan kristalera apurtu zituzten harriez. Euskal Herrian abertzaleek nola jartzen dituzte guztiak? Espainolez.

Hemen haurrekin euskaraz mintzo dira, zakurrekin ere bai, baina haien artean erdaraz.

Hori baino gehiago. Zuk badakizu La Salle-n (Zarautzen) gertatu dena. Eskolan fraileak euskaltzaleak dira, eta sail bat, paraleloki, euskaraz antolatu dute. Hau gertatua da gutxi gora behera Zarautzen hiru guardia zibil hil zituzten egunean. Niri kondatu didana espainol bat izan da. Gurasoen bilerak espainolez egiten dira beti; holako bilkura batetan norbaitek erran zuen nola euskarazko haurrek matematiketan difikultate batzu zeuzkaten. Orduan bilera horretan euskal gurasoek botatu, eta tartean abertzale bezala ezagutzen diren persona batzuek, eta zer erabaki dute? Euskarazko haurrak kendu beharko lirateke euskarazko klaseetatik! Nik ezina zela pentsatu nuen eta pertsona bati galdetu nion ea baietz erantzuna izan da. Hau, espainol batek harrিতa kontatua: "Nosotros no, los vascos han dicho que hay que quitar la sección vasca" Eta horietan euskal abertzaleek! Hori da bere hizkuntza maite duen herri bat?

Hemen, Zarautzen, bada moja eskola bat eta guraso abertzaleak bidaltzen dituzte alabak erdalduntzera. Hau ez da euskara maite duen herri bat.

Nik askotan pentsatu dut: Euskal Herrian badaude etorkiz bi herri. Bata euskara ekarri zuena ez dakit noiz eta beharbada euskaldunak baino lehen bizi ziren baskoak. Eta baskoek ez dute euskara maitatzen, baskoak euskararen etsaiak dira, euskara suntsitu behar dela pentsatzen dute baskoek. Euskara suntsitzeko edozein hizkuntzaz loaligatzeko, elkartzeko gerturik daude. Askoz gehiago maitatzen dute euskalduntzen diren inmigranteek.

Euskal Gobernuaren dretxo morala soil soil

da hori: herriko tontoa, euskalduna, holako arrogantziak, estupitateak; bere stupidakuntza holako gauza ona bezala presentatzen dute. Eta zerbait ikasi duen Maisu Juane ez burlatzen dira.

Eta hori ez da batzuek uste duten bezala kasualitatea, ez. Mogekek inkisizoneko zentsorea izateko eskubidea eskatu zuen. Hori integrista, oskurantista eta antikulturalista bat da. Beraz, pertsona horri omenaldia ez, kontra omenaldia egin behar zaio. Hori izan da Euskal Herrian sortu duen izpiritua: jebokeria. Eta jebokeria honetaz Euskal Herria suntsitzen ari da eta izpiritu hori oraindik ere bizi da. Hau da dialektuetan izkiriatzeko arrazoia. Ni dialektuen alde nago, bizkaieraren alde nago, maitatzen dut bizkaiera. Baina izkiriatu hizkuntza ez badugu, euskara hilen da.

Badakizu zer den "Kresala": han apez bategen deretxo zibilean ezkondu nahi zuen, arraioa. Eta bertzean, Garoa, mendi garaian bizi den gizona onena; geroz, hirietan, zantar guztiak. Frantziako literaturan Arcadia dorada" bat egon dela erraiten da. "Arcadia dorada" honetan beti erregeren semea artzaien jantziez jantzita zegoen eta filosofiari buruz aritzen zen.

Euskal hirietan bizi diren burjesek, abertzaleak direnean, beren abertzaletasuna artzaien jantziez jantzen dute, baina mintzo direna ez da holako gauza gora, Beraz, euskarazko egokera ez da "arcadia dorada", "arcadia chatarra" baizik. Frantziako literaturan artzaien arteko dialogoak filosofikoak dira, baina euskal burjesen artzaien arteko dialogoak tontokeriak dira; ez dira urrezkoak, txatarrezkoak baizik.

tuzte katolizismoaren barnean. Horregaitik, jesuitek eta protestanteek, Italian gertatzen zena Renaissance-a erahil dute. Eta ni ez naiz Euzkadi katolikoaren kontra mintzo, jesuiten kontra baizik.

Orain, kapitalismoa dagoen impasse-tik irten gaitzeko ez dago bide bat baizik: ohiturak kentzeko, superestruktura kentzeko kultur berri bat krearzea.

A.- Bukatzeko, zein da zure ustez Euskaltzaidiaren intzidentzia euskal gizartearengan?

K.- Filosofia estudiatzen baduzu, ba daude baina sail: bata da Fisika: denaren gauzen jakintza eta bestea da Etika, izan behar lukeenaren jakintza.

Filosofiaren aldetik begiratzen badugu, orain euskal gizartearengan duen intzidentzia txikia da. Etikaren aldetik, handia behar luke izan.

Euskaltzaindia euskara eta euskal kultura retzat da. Beraz, nire aburuz, Euskal Gobernua menduak Euskaltzaindiaren zerbitzutan egon behar luke, etikan. Fisika nola den, noren zerbitzuan dago? Ez dakit, baina dudarik gabe ez dago euskal kulturaren zerbitzutan, izan behar lukeen bezala.

Batzuek pentsatuko dute oraingo euskaltzaindiaren kontra mintzatzeko naizela; ez, hola izan da, euskal gizartearen reflexu bat da. Guk aldatu behar dugu, Euskaltzaindiaren bidez, euskal gizarte, euskalduntzeko.

Behar bada, honetaz gainera, sartu behar luketen batzu ez dira sartu. Txillardegia, nire aburuz, aspaldi ez zen sartu, eta sartu denean Txillardegiren kultur ikuspuntutik askoz beharago zeuden pertsonak. Eta hori ezina da.

Nik, behintzat, Azkueren denboran, nehoiz ez dut begiratu pertsona bat apeza den ala ez, nire politikako haburukidea den ala ez. Soilik begiratu diot euskal kulturgintza orain arte linguistika besterik ez da izan. Gizona pentsatzeko modu bi daude: bata da basetik gorantz doana, kreatzailearena da. Bigarrena kreatu den piramidetik teoria baten bidez gauzak interpretatzea. Linguistak holako lagarren ekintzako pertsonak dira.

A.- Aurretik pentsatutakoa aplikatzen dutenak...

K.- Adibidez, Etxepare: nik ez dakit handia zen ala txikia, baina lan bat egin du. Baina gero, ikertzaile batek Etxepareari buruz lan handi bat egin du. Beharbada linguista batek izkiriatzen duen lana oso handia da, Etxeparek izkiriatzen zuena hamar mila aldiz baino handiagoa. Baina linguista horrek ezin zezakeen izan etxepare hori gabe.

Kreatzaileak zuhaitzak dira, linguistak haren ondoan hazten diren huntzak; baina huntza inoiz ez doa zuhaitza baino gorago. Euskal Herrian huntzak ukan ditugunak baina nola zuhaitzak ez zeuden, huntzak beti lurraren gainean egon dira.



Estatu nazionala hazteko lehenik fetua krearatu behar da eta guk euskal literatura eta euskal kultura fetu bezala krearzen ez badugu ez da euskal estatua etorriko. Estatua beti da ondorioa. Egiazko nazioa beti krearzen da. Dialektuetan idatzi nahi dutenak euskal askatasunaren etsaiak dira.

A.- Hori ez al da fuerte xamarra...?

K.- Bai dudarik gabe. Jakin gabe, objektiboki, etsaiak dira. Mundu guzian egokera nazional, status-a, krearzen da literatur hizkuntzaren bidez, ez dialektuen bidez. Dialektuetan izkiriatzea egokera prenazional bat da. Eta egokera prenazional batetan jarraitu nahi dutenak egokera nazionalaren etsaiak dira. Zuk galdetzen zenuen Akademiak zergaitik literatur batzordea kreatu nahi duen. Akademiaren egon dira soilik linguistak. Nor izan da literato bezala egon dena? Txomin Agirre. Baina Txomin Agirre munduko literaturekin konparatzen baduzu hori bostgarren mailako klasiko bat da: ohiturista bat: Europako literaturen mailan zero baino gehixeago da.

Egiazko iraultza bat egiteko estrukturatze kriterioa aldatu behar da. Biologia berriak erakutsi digunez, bizia berez estruktuta bat da. Materia, estruktura gabe, entropiara joaten da. Estruktura bidez bizia krearzen da estrukturarik gabe ez dago bizia.

Estruktura bakoitzean estrukturatze kriterio bat eduki behar da. Eta kriteriorik baduzu, nahitaez hierarkia bat duzu.

Ni orain gure gizartearen dauden kriterioen kontra nago. Gure gizartearen dauden kriterioa dirua da eta marxismoa berdina da. Horregaitik, nire aburuz marxistek nehoiz ere iraultza bat eginen dute, marxistek eta kapitalistek gizarte estrukturatzeko kriterio berdina baitute, Nire aburuz, estrukturatze kriterioa Renaissancekoa izan behar da: kultura. Epoka horretan munduak gora egindu du Diruaren kriterioa, Max Weber-ek erakutsi duenez, protestanteek ekarri dute. Beren mentalitatearen bidez, kapitalismoa sortua da. Protestanteen Reformaz eta Antireformaz, kapitalismoa goratua da. Jesuitek, protestantismoaren kontra egiteko, protestanteen kriterio guztiak onartu di-

Mikel Gereka
Koldo Gerardo Puente Mujika
eta
Mikel Sanchez

NOREN ETA NORENTZAKO UNIBERTSITATEA?

Apirilaren hasieran 25 urte baino gehiago duten ikaslegaiantzat egin ziren Bilbon azterketak. Horiek dira bide, Unibertsitatean onartuko dituzte edo atzera bota.

Ez dakit nolakoak izan diren aurreko urteetan, baina honetakoak guztiz salatzen dira, antieuskalduna izateagatik eta azterketaren objektibotasun lege guztien kontra jotzeagatik.

Hizkuntza hautatzeko denean, denei oportunitate berdintsua emateko, hizkuntza batenganako fobiarik ez balego, normala izaten da testuak edo hizkuntzazko galderak maila berberakoak jartzea.

Edozein arrazoigatik hizkuntza batenganako fobiarik balego, hori baztertzeko, hizkuntza hori ahal den jende guttienak hautatzeko ahalegiñak egingo lirateke...

Ez, ez dut mamua bazter guztietan ikusten, ez da hori. Ariketa textu bat itzultzea zen. Euskarazkoa, euskaldun alfabetatu baten (eta segur segur hau ez zela berak egiten zuen lehen itzulpena...) nekez egin zuen, 3. mailako ikasleren batek ezin izango zuela egitea edo gorriak ikusi behar egiteko

komentatu zidan. Frantzesekoa, ordez, lehen edo bigarren mailako ikasle batek egiteko modukoa... Nola deritzo horri? Datorren urtean, aurten euskara hautatu duten askok besterik hautatu beharko dute azterketa gairiditzeko.

Hori hizkuntzaz. Gai ez zerbait dago esateko.

Ikus zer nolako gai objektibo: Arkitektura historian zehar. Bizpahiru horrialdetan zer jarriko zenuke zuk? Orain frogatu, galde ezaiozu zure ondoan dagoenari...

Izan ere, oso normala da horrelako jende menperatzeko (azterketa hauetara doazen gehienak aspaldian ikasketak utzirik eta lanean dabilzatenekoak dira, ez ahaztu...). Egunero gai hori sartzen zaigu telebistan, irradian, kalean, aldizkarietan... Kutsadura, kirola, Prentsa, krisialdia eta horrelako gaiak ez dira entzuten; horiek lerdokeriak edo eta intelektualegiak dira...

Baina ez da hori, oso grabea bada ere, ni gehien kezkatzen nauena. Nire problema objektibotasuna da, zerik ere ez dagoela eta zergatik ez dagoen.

Edozein gaitan eta edozein mailatan, ebaluazio galderak argiak eta ulerkorrak izan behar dira; hau da, ikasleak segiduan jakin behar du zer eskatzen zaion. Eta hori ez da gertatzen komentatzen ari garen kasuan. Bata etxegintzaz edo eta hilobigintzaz, hirurak eta beste gehiago ere Arkitektura dugu. Era berean, momentu berberetan ez ziren berdinak Atenas eta El Kairon egiten ziren etxeak, ez eta oraintxe Bilbon eta Miamin egiten direnak... Bizpahiru horrialdetan beti utziko duzu zerbait jarri gabe, edo bestela zure erantzuna ez da izango behar den zehatza, edo...

Zergatik? Galderak eta gaiak guztiz objektiboak badira, horrelako kasuetan behar denez, erantzuna argia da, eta ikasleak ondo ala txarto erantzun, ez dago erdixkarik. Gutti ematen badizute zuk azterketa ondo eginda, protesta dezakezu... Objektibotasunik ez badago, beti geratzen zaizu zalantza. Protesta egitera ausartzen bazara ere, beti aterako dizute atxakiren bat. Objektibotasunik ez badago, nori eta nola emango zaio sarrera eta nor eta zergatik atzera bota? Batek daki!!!

EUSKADI IRELAND

Euskara eta Gaeliko irakasleen arteko elkartrukea

Berrogei eta hamar, (50,) gaeliko jatorrizko hizkuntzaren irakasleak, uda honetan, Euskal Herria etorri nahi dute euskara irakasleak, uda honetan, elkartu bat egitera.

Irelanden, Euskal Herria bezala, bere jatorrizko hizkuntza berpizten saiatzen dira; maila honetan gure eta haien arazoak antzerakoak dira.

Gaelikoak eta euskarazko irakasleen arteko harremanak benetan interesgarriak izango diren ustetan Ulibarri Euskaltegiak eta Behal International Schoolek harreman hauek, eginkorrak izan daitezkeen ekintza bitxi bat antolatuko dute.

Berrogei eta hamar euskaldun Irelandera joan ahal izango dira bertan hilabete igarotzera, bertako irakasle baten etxean, eta era berean berrogei eta hamar irlandar etorriko zaizkigu, beste hainbeste euskal irakasleren etxeetara.

Pentsa daiteke garesti izango dela, eta ez, alderantziz baizik. Euskaldunei 6.750 ptz kostatuko zaie matrikula, segurantzak eta mediku gastuak. Bidaia hegazkinez, trenaz eta untziz, edo kotxez eta untziz egin daiteke. Prezioak —joan eta etorri— 33.900 pezeta egazkinez edo 11.500 trenaz edo kotxez. Ikusten denez sakela guztietara molda daitezke bidaiaren prezioak.

Honelako ekintzarik ez da inoiz eratu Euskal Herrian orain arte. Euskararen irakaskuntzarako eta beraz Euskal Herria euskalduntzeko honelako ekintzak beharrezkoak deritzazkigu.

Dudarik gabe edozein hizkuntza irakasteko, beste bat nola ikasten den ikusteak izugarriko garrantzia du. Ikasle goaren zailtasunak hobeto ulert ditzazkigu gure buruarengan ikertzen badugu hizkuntz berri baten ikasgoa.

Kontutan harturik, mugituko garen giroa zein izango den eta hilabetetarako bakarrik dela, Irelandeko irakasleek ingelesa erakatsiko digute eta guk beraiei gaitelania eta frantsena Iparraldera datoztenei.

Aurrerantzean honelako kontaktoak gehitu behar direla uste dugu. Halaber premiazko bezala jotzen ditugu elkartrukeok eta ez bakarrik irlandarrekin baizik eta beste zenbait herriekin ere.

Bainan hala ere elkartrukeok ez bazaizkizue komeni, Irelandara joan ahal duzue 58.000 pezetekin. Prezio honetan etxebizitza, janariak eta klaseak barne direlarik.

Ulibarri Euskaltegia, bide honetan jarraituz, Society of Basque Studies in America Estatu Batuetako elkartarekin hartuemanetan jarri da elkartrukeok haiekin ere bidetzeko. Kasu honetan amerikarrek ingelesa erakatsiz eta guk beraiei euskara.

Elkartruke hauetan interesaturik dagoena zuzendu dadila:

ULIBARRI EUSKALTEGIA
Ald. Urquijo, 19 Tfno. 444 19 41

BEHAL INTERNATIONAL
Avda. Basagoiti, 42 Algorta Tfno. 469 40 12
(BIZKAIA)

ORDAINDU ORDEZ KOB RATU

Alejandro Herrera Casado Basaurin bizi da, eta Bilbotik herrira joateko, taxi bat hartu zuen lehengo egunean. Ordaintzerako orduan, taxistak 600 pezeta eskatu zion, eta Alejandrok, Bilbotik Basaurira joateko tarifa 400 pezeta-koa zela erantzun zion, eta ez ziola hori baino gehiagorik ordainduko. Taxistak orduan, arazoa azaltzeko, Udaletxera laguntzeko eskatu zion Alejandrori, eta harantz abiatu ziren. Baina bidean, non agertzen diren beste lau taxista, eta Alejandro taxisetik atera ondoren, lurrean utzi zuten konorte barik, izugarriko jipoia eman eta gero. Ondorioa: klabikula apurtuta, ospitalera grabe. Zer egiteko kapazak garen 600 pezetatik. Neuk diodana: mundu honek ez duela erremediorik.

BERMEO - BERMIO - BERMEO

ANAITASUNAREN azken alean, artikulu bat argitaratu genuen herri honen izena, gure ustez, nola idatzi behar zen esanez. Han aztertzen zen alternantzia BERMEO-BERMIO zen, baina, mira por donde, beste posibilidad bat ere ba dagoela, "Elizalde" ikastolako umek, Bilboko IBILIALDIA'81n, kamisetetan eroan zutena: BERMEO, azentu eta guzti. Hau da gauzak konplikatze gogoia edukitzea. Neuk ez diot ba...., mundu honek ez daukala erremediorik.

BATEN FALTAZ BI

Peter Scott gizon ingelesaren bihotza, ez zen bat ere ondo aurkitzen, eta konpotzeko, transplante

bat egitea erabaki zuten medikuek. Hori dela eta, Harefield hospitalean, zirkulazio-akzidente baten hil zen 13 urteko neska baten bihotza ipini diote, baina berak zuen bihotz gaixoa, kendu gabe, beraz, momentu honetan, Peter Scott-en paparrean, bihotz bi ari dira lanean.

Ikusten denatik, mundu honetako gauza batzuk ba dute erremediorik.

OHITURA MATXISTA BAT

Leioa, lehen Lejona, Bilbo ondoan dagoen herri bat da, eta orain dela urte pare bat edo, izen bereko jatetxe eder bat igiri zuten bertan. Jatetxe hori, Bilbo inguruko fama handienetarikoa da (beraz, garestienetarikoa) eta, etxeko espezialistate modura edo, ohitura bitxi bat dute, ondo ulertzen ez dudan ohitura matxista bat: gizonezkoek ematen dieten kartak, janariak eta prezioak dakartza, emakumezkoek ematen dietenak, janariak, baina preziorik ez. Behar bada, haien ustez, gizonezkoek ordaindu behar dutelako izango da, ala agian, janarien eta jakien prezioen berri, emakumezkoek gizonezkoek baino hobeto jakiten dutenez gero, etxekoandreak entera ez daitezzen zenbat aldiz multiplikatu duten edo, egingo dute.

Mundu honek, erremedio gatxa dauka benetan.

EZ ZUEN BALIORIK, BAINA BADA EZPA- DAN SALDU

Lugo probintziako Lancara herrian gertatu da. Orain dela gitxi, Adelpha erakundeak, protesta bat zabaldu du, Lancara herriko San Juan del Muro elizako atea desagertu egin

delako. Azkenean, arazoa argitu egin da: atea, eliza horren ardura duen abadeak, saldu egin zien anti-kuario batzuei, bere ustez, atea ez zuelako bat ere baliorik. Ez zuen baliorik, baina berak saldu... ai, zorro, zorro.

Mundu honen erremedia, ez da etorriko elizaren aldetik; hori seguruz ezetz.

ZENBAT IRABAZTEN DUZU ZUK?

Exxon omen da munduko lehen enpresa. 1980. urtean, bere slamentak 8.800.000 milloz pezetakoa izan dira, eta irabazi garbiak, 360.000 milloz pezetakoa. Enpresa hau amerikarra da, noski, eta bere zuzendaria ere bai. Zuzendari honen izena Clifford C. Garvin da, eta Exxon bada munduko lehen enpresa, Clifford munduko lehen ejekutiboa: ihaz, 3.340.000 dolarreko soldata eduki du, hau da, egunean 732.000 pezeta irabazi du.

Ikusten denatik, amerikarrak, heuren mundua baino ez dute konpontzen.

OPORRALDIA

Oporraldia hastera gozela eta gutariko askok haien musturrak apurtuko dituzte bideetako bazterretan. Urteak igaro arren, nahiz eta mundua geroago eta bilakatuago bideetako eriotzeen kopurua ez da gutxitzen. Datu gisa aipa ditzagun hurrengoak: 1969. urtean, adibidez, 395.575 izan ziren lurpera joanak bide istripuak zirela eta. 10 urte geroago hilak 545.173 izan dira: hots, ia 200.000 pertsona gehiago. Egia esan gehienak, istripurik gehienak, bideetan ematen dira hirietako kaleetan baino. Eta guk, zerbait lagundu nahian, eta bide

aprosposak egiten ez diren bitartean Espainoako "Bide de Apostolutzak" emandako bat jartzen dizuegu. "San Kristobal martiri ospetsua, Jaungoikoaren esku miraritsuari esker, ez suaren ez gezien minik hartu ez zenuen hori. Lagun nazazu imitatu ahal ditzazudan! Kristorenganantz daramadan bide hori errezago izan dadin zure egutzako laguntza indartsua espero dut asmok bete ditzadan". Honela azaltzen ziren "Bide de Apostolutza"koak bide istripuen aurka jokatzeko Ekaina honen hasieran.

JAPONIAN

Nakaizu japoniar hiriko balneario batetan urregorri bainu bat zabaldu zuten lehengo batetan. Ur berezi hortan bost minututan egoteak 25 doilar balio du. Gero, bainua hartu ondoren, urregorriarekin guztiak argazki bat ateratzen dute etxeetako hormetan zintzilikatzeko. Ez al litzateke hau bide apropos bat basamortuetako ur eza konpontzeko, ez diot soroak urregorriez garastatu beharko direnik, baina bai urregorriez uharka berriak zabaltzea ura eramateko, ezta?


GEZUR DETEKTOREA

Hamburgoko "ZEITUNG" izeneko astebetekarian ondorengo iragarkia irakurri dugu: "Gezur detektorea, 1950 marko. Segur al dakizu zure ezkontideak engañatzen ez zaituela? Zure bazkideak garbi jokatzeko duela argi ikusten duzu? Interesatzen zaizun guztiaren egia jakitea nahi al duzu? "Voice Stress Analysser" gailuak esango dizu, 1950 marko bakarrik".

FRANTZIAN ZERBAIT BERRI ESPERO

Frantziako Lehendakariarako hauteskundeak eman ondoren, legislatiboetarako bi epeak eman dira. Maiatzaren 10ean hasi zen aldaketa politikoa guztiz konfirmatu da Ekainaren 21ean. Sozialistek irabazi dute baina ez edonola, beren kopurua hiru aldiz biderztua izan da Frantzia osoan zehar, Ipar zein Hegoaldean, eskuindar feudoetan ere ondarena probokatuz. Eta Euskal Herriko Iparraldean, kostaldean bereziki, sekula ikusia izan ez den ondorioa eman egin da oraingo honetan, Bernard Marie eskuindar diputadu anti-euskalduna galduz sozialisten onarako.

Horregatik, bidezkoa iruditu zaigu Mediterrandean garaipenaz eta garaipen horren atzetik dagoen historia hortaz ikerketatxo bat egitea. Lanaren helburua Mediterrandek, bere Eliseoko postua lortzeko eraman duen politikaren laburpen bat besterik ez litzateke eta hortarako beharrezkoa zen V. errepublika hortatik hastea. Kandidato sozialisten egitaraua azaltzeko azkenez.



Estatuek eta beraien zuzendariek gehienetan, nahiago dute jarrita dagoen egoera, aldaketa baino. Baina, hau ez da izan Frantziako kasua, hemen aldaketa aukeratua izan delako. Egia esan, ez Moskuk ez Washingtonek ez zuten nahi aldaketa handirik Pariseko Eliseon, nahiago zutelako ezagutzen zutena, hots, Giscard, zetorkiena baino; hau da, Mediterrandean polilika baino.

Sozialistek, Mediterrandean alderdikoek, ez dute nahi langabezira hontaratu, ez dute nahi pasibitatek ekonomia ezein

arlotan, Frantziako politika eta ekonomia erreaktibazioa baizik. Hauxe izanda behintzat, heuren kanpainen azaldu dutena. Ikus dezagun, luzarotik datorren kanpaina honen aurrerabidea.

1.- Lehendik datorren burruka.

Burrukaz aritu baino lehen jar dezaiogun gudatokia. Aurtengo Maiatzaren hamarrean izan diren hauteskundeak Frantziako lehendakari bat aurkitzekoak izan dira, baina gure galdera hauxe litzateke: zer nolako lehendakari?

V. Errepublika eman zenetik, Pariseko lehendakariak aurretik zuen baino botere handi eta zabalago eskuratzen du 1958.era arte zegoen sistema parlamentarioa baldin bazen (hau da, parlamentarioen zegoela politika egiterik handiena) oraingo honetan, V. Errepublikaren geroztik, sistima presidentzialista izango da, hots, lehendakariak berak parlamentu osoak baino indar gehiago duela politikagintzan.

Lehendakaria dugu boterearen buru, berak zaintzen baititu konstituzioaren garapena botere publikoen jarduera, Estatuaren jarraiera, burjabetasuna, lurraldeen integritatea eta asanbladaren zeregina. Bestalde, lehen ministroa eta gobernua

V.errepublikako konstituzioak botere handiago bat ematen dio lehendakariari parlamentuari baino.

LANGABEZIA, GISCARD-EN HAZIA

Giscarden ustez Frantziak ezagutzen duen langabezia ez da bere politikagintzan jai, baizik eta estatu horrek ezagutu duen demografia hazkunde handiegian. Frantziako lehendakariohiak galdu den lana baino zazpi biderrez gehiago sortu duela aditzera ematen zuen hauteskundeetara agertu aurretik burutu zuen dossier batetan. Haburu honi jarraituz Frantziak jende gehiegi dagoela esan genezake eta errudun bakarra jendea litzateke, besterik gabe.

Jazo dena hauxe litzateke: 1962.etik

1975.era bitartean Frantziako populazio eragilea bi milioitan hazi da, Frantziak zeuden nekazari asko lantegietara eramanez, andrazkorik gehienak lanean jarri, Algerriak bizi ziren frantzez guztiak Frantziratuz eta inguruetatik nazioetatik langileak inportatuz.

Hau horrela eman delarik, oraingo gazteek ez dute lana non egiterik eta langabezia geroago eta zabalago dago frantsesen artean. Erru guztia atzetik datorren jendea botatzea umeak baizik ez da. Frantziako hazkunde egin zenean kontutan hartzekoa izan behar zen belaunaldi berrien etorrera. Baina horrela egin beharrean, orduko kapitalismo hezkorrek es-

katzen zuen bideari ekin zitzaion etorkizuneko kontuak karpeta zaharretan artxibatuz.

Kontu honetan Giscard jaunak bere zerikus handia izan zuen, berak heredatu zuen piangitza oker honeri irtenbide aproposak jarri zeean.

Giscardek Mitterrandi utzi dion ekonomia honela aurkitzen da: Aurtengo produktibitatea ihazkoa baino %ba beherago dute frantsesek. Lanik gabe daudenak 1.660.000 dira une honetan; hau da, populazio eragilearen %7,4a. Inflazioari begira, urtean % 12,5a igoten dela esan dezagun. Badu lanik, ba, Mediterrandek Giscardek utzi duena hobeagozke.

MITTERRAND-EK IRABAZI ETA MUNDUA IKARATU

Mitterrand-en garaipenak bere oihartzun zabaldua izan du munduan zehar, baina batez ere NATO eta USA barruan. Orain arte Europar zegoen oreka, kontsebadoreek eta sozialdemokratek sorturiko oreka hain zuzen, bere azken ikusteko arriskuan dago Giscard eta Schmidt-ek sortu zuten ardatzak beste aldi bat ezagutu behar baitu. Dirudenez, Eliseon sozialista bat egotean aipa ardatz hori Parisetik Londre-serantz joango baita. Bestaldetik, ardatz berri honek, egungo Europar, nazioarteko hartuemanak beste era batetara antolatuko dituelakoan gaude.

Estatu Batuetan, kasureko, ez da maitasun handiegiz hartu Mitterrand-en garaipena. Egia esan, lehendakari berriak agindu zituen lantegi nazionalizapen guztiak eginez gero amerikarren interesek Frantzia kolpe handi bat hartuko lukete. Halan eta guztiz ere, orain arte behintzat, nazioarteko politikan Mitterrand Washington-etik hurbilago dabil Moskutik baino; horra hor Camp David-eko erabagiei eman zien laguntza edo/eta Afganistan-eko gainerasoketaz egin zituen kritika gogorrak. Frantziak, NATOan jarraitu behar duen politika zehazturik gabe dagoenez gero den-dena dago, oraindik, hankaz gora.

Moskun harrera hobeagoa izan du Mitterrand-en garaipenak nahiz eta hango semerik leialena P.C.F.ko Marchais jauna izan.

Pozik agertzen du bere burua Kremlin-ak Mitterrand-en garaipenaz zeren errusiarrak Georges Marchaisen esku jartzen dutelako Mitterrand-en garaipena eta azkenean P.C.F.koen botuak P.S.F.ko lehendakariarentzako izan direlako.

Era honetara, errusiarren ustez, P.C.F.ak eman dion lau miloi bozak eragina izango dute P.S.F.ko lehendakariarengan, Mitterrandek "pake politika" lbat eraman dezan Europako hartuemanetan Marchais-ek eraman beharke lukeen antzera. Baina Mitterrand independen-tziaren alde agertu da, horra hor gakoa.

Bonn-en dena dabil hankaz gora Maitzaren 10etik aurrera. Nahiz eta Sozialdemokrata batek izan poterea, Mendebaleko Alemanian ez dirudi, Bonn eta Parisen arteko lotura estuagoa izango denik, txikiagoa baino. Schmidt eta Giscarden artean bazegoan finkatuta hartuemanak baina orain, Eliseoko maizter berriarekin ez dago gogo handirik erlazioetarako Willy Brandt-en ordua heldu dela dirudi, zeren Paris eta Bonn-en arteko erlazioak presidentziatik presidentziara emango ez direnez Alderdi Sozialistatik Alderdi Sozialistara eman beharko.

Inglaterran izandako harrera daiteke Frantziako lehendakariak izan duen onena. Giscard eta Thatcherren arteko hartueman pertsonalak oso txarrak zirela jende guztiak daki, Paris-eko aldi berri honetan Frantzia eta Ingalaterra arteko ardatza estuagoa lortzen baldin bada badi-rudi Londresek eskuhartze handiago bat izango duela Europako politigintzan.

Giscarden esku, frantsesek langabezia eta inflazioa ezagutu dutuzte geroz eta gehiago.

izendatzen ditu, ministro kontseiluaren buru da eta Gudarostearen buruzagia da. Hau horrela delarik, Mendebaleko Europar dagoen lehendakari indartsuena dela esan genezake.

Frantziako lehendakariaren garrantzi honek IV. errepublikan du bere jaiotza. Errepublika honetan botere legislatiboak ejekutiboan agintzen zuen, era honetara sortzen ziren gobernuek asteak edo hileak baino ez zituzten irauntzen.

Egoera hau aurkitu zuen De Gaulle jaunak eta urak uharkara bihurtu daitezkeen konstituzio berri bat asmatzeari ekin zion. Konstituzio berri honek V. errepublika sortuz Estatuto lehendakariari ematen zizkion lehen aipaturiko botereak.

Herriaren %80ak onartu zuen konstituzio honek oreka eman dio Frantziako politigintzari baina orain arteko lehendakari-ek gehiegi erabili dute konstituzioak ematen dien boterea. De Gaulle, kasureko, erregetzat hartua izan zen oposizioaren alde-tik eta Giscard-ek gehiegitan erabili du, duen boterea inolako azapenik gabe.

Azken urteotako hauteskundeak

Azkenaldi honetan Frantziak hauteskunde orokor bi ezagutu ditu: lehena 1974. urtean lehendakari bat aurkitzeko eta bigarrena lau urte beranduago, baina honetan parlamentorako egina.

Georges Pompidou 1974.eko Apirilaren 2an hil zen bere atzetik nor jarri omen zen zehazturik gabe. Eskumako alderdiak zortu ziren jarraitzaile bat aukeratzeko, birtartean ezkerrek Mitterrand aukeratzen zuten.

Eskumak bere tira-biretan pertsona bi bilatzen ditu Chaban Delmas C. Pompidou-ekin lehen ministro ohia) eta Giscard d'Estaing (Ekonomi arazoetarako ministroa bai De Gaulle eta Pompidouekin).

Lehen itzulian Giscard-ek jan zion bidea Chaban Delmasi eta bigarren itzulian Giscard eta Mitterrand aurkeztuko ziren frantsesen aurrean. Bigarren txanda honetan Giscard-ek Mitterrand-ek baino bostehun mila boza lortuz lehendakari-tza eskuratzen du Jacques Chirac-i lehen ministroaren tokia emanez kanpainen zehar eman zion laguntzari ordaintzeko.

1978. urteko hauteskundeak parlamen-

toa betetzekoak izan ziren. Mitterrand-ek 1974. enekoak galdu ostean, Ezkerreko Batasunari ematen dio bere laguntza eta 1972. ean hasitako Batasuna bere irabazte ematen hasten da. Baina fruitu guztiak Sozialistek hartzen dituzte Komunisten Batasuna uzten dutelarik.

Apurtze hori zela eta, ezkerrek eskumak baino larogei eta hamaika diputatu gutxiago lortzen ditu, gaullistek lehen darra izatea lortzen dutela eta Giscard-ek zaleak bigarrenak gelditzen direlarik, bigarren leku batetan ezkerre agertzen zaren nahiz eta hauteskunde lehen itzulietan botoen %49'87a berea izan.

Dena den, aipatu dugun Ezkerreko Batasun honetan Sozialistak (Mitterrand) eta Komunistak (Marchais) baino ez zeuden, ezker erradikalak kanpoan gelditzen zirenak Beste ezker honen ustez, zein eskumak irabazi zein Batasunak irabazi, gauzak izan ziren gehiegi aldatuko.

Ezker erradikalaren ustez, eskumak eta Batasunaren asmoak ekonomian zehar berdintsuak ziren, biak ziren kapitulu sakonean nahiz eta azalean ezberdintasunak zirela eman. Haietaz, burjeseriaren sikoaren alboan beste bat ari da jaiotzen Alderdi Komunistak sortzen duena izango zuzen. Alderdi honen helburua boteraren eta produkzioa Estatuaren eskuetan zuzentzea dalako. Bestaldetik, sozialistek irabazte arren, Alemania edo Hungriako sozialistak mora baino ez dute uste helduko zirela eta.

Ezker erradikalaren ustez politika nuklear arloa, Frantziaren Afrikako inperialismoaren arloa edo eta gutxiengotzat arazoak ere ukitu behar ditu, Frantziako osoa Paris bat bihurturik gabe. Giscard horrelaxe zendelarik hasten da Giscard-aldia (1974-1981).

2.- Giscarden aldia

Giscard-ek zuzendu eta gidatu duen garaia honi izen bat jarri behar bagenezake, ez daz beherarena jarriko genezaioko. Alderdi behera. Lanean, langabezia izugarri ematen delarik, eta aldaz behera giza-eskubideen mailan, baina zehaztasunez jarraituz, ez ahaz dezakegu inflazioak frantses-ek eman dizkien buruhausteak.

1974. urtearen geroztik langabezia

gehitze izugarri bat ezagutu du. Datu gisa urte batetan kotxegintzaren produkzioa %24'3a jeitsi dela esan dezakegu edo aurtengo Ekainean itxaroten den langabe-tuen kopurua miloi t'erditik gora joko duela Frantziako aldizkarietan irakurtzen dugunez.

Jazo dena hauxe litzateke. 1962.etik 1975.era bitartean Frantziako populazio eragilea bi miloitan hazi da, zeuden nekazari asko lantegira eramanez, andrazkorik gehienak lanean jarriz, Algerian bizi ziren frantses guztiak Frantziratuz eta inguruetako nazioetatik langileak inportatuz.


Gero kapitalismoaren krisis mundiala agertu denean eta salmentak gutxitzean jendea soberan zegoen, ez bakarrik produzitzen zebiltzatenak, belaunaldi berrietako jendea ere bai. Orduan zera genituzke: Langabezian batu direnak, heuren lehen lana aurkitzen ari direnak eta heuren lantegietatik botata izan direnak.

Giscarden politika ekonomikoaren ardatza ekonomiaren ez birjaurtikiaz legoke; hau da, langileen soldatak ez altxatzeaz Frantziako eskulanen prezioak konpetitiboak daitezen merkatuan. Beste puntu batetan interesak oso garaiak izan direla esan behar dugu; era honetaz, Frantzian jezarriko kanpotar kapitalak errentabilitate handiagoa ezagutzen duenari ez da Frantziatik aldentzen.

Hitz batez, kapitalarentzat nahiko baikorra izan baldin bada Giscardek eraman duen politika ekonomiko langileen-tzat txit okerrago izan dela esan dezagun.

Lehendakari ohiari egin zaion beste sakaketa Giza Eskubideei uko egiteaz datza. Aski ezagunak dira Frantziak Afrikan daramatzan bideak, kasureko Ertafrikako Bangui-n Pariseko erresponzabilitate zuzenean eman zen haurriketa jar dezakegu. Euskal Herriari hurbilgotik jotzen dizkion beste kasu ezagunak ditugu, euskal errefuxiatuekin Eliseon eraman den giza-aurkako politikaren barnean bat ditzakegula: herbesteratzeak, extradizioak eta gartzelatzeak nahiko ezagunak ditugu denok hemen banan banan birrazaltzeko.

Frantziak ezagutzen duen energia arazoak ere badu bere tokirik Giscarden garaiari egiten ari gataizkion gainbegirakada honetan. Energia egitarauak honelako aurreikuspenok ikusten zituen: Kontsumo guztiatik % 53'5ra heltzen zen petrolioaren erabilketa % 33ra jeistea, ikatzari dago-kionez %18tik %11ra baina nuklear indarrari dagokionez asmoak altxatzeak



Giscard D'Estaing: oraingo galtzailea.

FRANTZIAKO ERREPUBLIKAR LEHENDAKARIOHIAK

1848. urtearen geroztik, Frantzia Errepublika izendatu ondotik, hogeit hamar lehendakari izan ditu Parisek. Hogeitarik gehienak ez dira birritan aukeratuak izan hiru kasutan baino: Greuy, Lebrun eta De Gaulle-k lortu zuten haien bigarren agintealdia hasia, nahiz eta inork bukatu ez. Hona hemen lehendakariohiok:

II. Errepublikan Luis-Napoleon Bonapartek izan zuen poterea 1848.etik 1852.era bitartean.

III. Errepublikan ondorengo hauek izan ziren Eliseoko jaubeak:

- 2 - Adolphe Thiers (1871 - 1873)
- 3 - Mac Mahon (1873-1879)
- 4 - Greay (1879 - 1886 eta 1886 -1887)
- 5 - Sadi Carnot (1887 - 1894)
- 6 - Jean Casimir (1894 -1895)
- 7 - Felix Faure (1895 - 1899)
- 8 - Emile Loubet (1899-1906)
- 9 - Armand Fallières (1906 -1913)
- 10 - Raymond Poincaré (1913 - 1920)
- 11 - Paul Deschanel (1920, otsailatik irailara bitartean)
- 12 - Alexandre Millerand (1920 -1924)
- 13 - Gaston Doumergue (1924 - 1931)
- 14 - Paul Doumer (1931 - 1932)
- 15 - Albert Lebrun (1932 - 1939 eta 1939 - 1940)

IV. Errepublika

- 16 - Vincent Auriol (1947 - 1954)
- 17 - René Coty (1954 - 1959)

V. Errepublika

- 18 - Charles de Gaulle (1959 - 1966 eta 1966 - 1969)
- 19 - Georges Pompidou (1969 - 1974)
- 20 - Giscard D'Estaing (1974 - 1981)

dira, %6'4tik %30'2ra hain zuzen ere; energi berriek ezagutuo duten igoera %1,6tik %4'1ra joango dira.

Amaitzeko, hauteskunde aurreko egunetan Frantziak zuen inflakzioa %15ekoa zela esan dezagun. Frantziako herriak Giscardengandik zenbat hartu duen jakitea nahi duenak gogora dezala Francois Mitterrandek, Maiatzaren 21ean, Giscarden eskutik lehendakaritza hartu zuenean nola oihukatu zioten lehendakariohiari lehendakari berriari ongi-etorria ematera jaon ziren paristarrek.

3 - 1981.URTEKO KANPAINA.

Lehen itzuliaren aurrean

Batzuk izan dira lehendakaritza hartzera aurkeztu direnak, baina jende guztiak sailkatu ditu bi mailetan: Aukerarik zutenak eta Kandidato txikiak edo aukerabakoak. Dena den, ikus dezagun norberak zuen asmoa zein zen.

Arazorik nabarmenena ekonomiaren inguruan ezartzen da. Hautagai guztiak onartzen baldin badute ekonomia oso gaizki aurkitzen dela ez daude ados nola konpontzeaz. Chirac-ek, bere aldetik, inbertsiobide guztiak zabaltzea eskatzen du lege gutxiago eta gastu estatal txikiagatuz; gutxi gora behera Thatcher eta Reaganek egin dutena. Giscard-en ustez egin behar dena Frantzia hiru super lehen herrien artean kokatzea da, falta zitzaiona bidea azaltzea **Marchais** eta **Mitterrandek** kontsumoaren igoera bat proposatzen dute soldatak altxatuz eta industriaren berriztapen osoa, ikerketa eta etxegintzari toki berezi bat emanez. Ezkerraldeko kandidatook lantegi eta banku batzuen nazionalak eskatzen dituzte ekonomia bultzatzeko.

Kanpo-politikari buruz dauden iritziak ere nahiko ezberdinak dira. **Chirac-en** ustez Mendebaldea indartu behar da Soviet Batasunaren inperialismoa gelditzeko. C.E.E.ri buruz ondo dagoela dio une honetan eta jende berri gehiagorik behar ez dela. **Giscard** ere asmo berdinekoa da C.E.E.ri buruz eta "Hirugarren Munduaz" gogoratzen baldin bada aitakiro baino ez da. **Mitterrand** ez da ez CEE ez NATO-ren aurkakoa nahiz eta birrarmaketa gogor kritikatu. **Marchais** bera baino gogorragoa da, ez du nahi zerikusirik CEekin eta Soviet Batasunari jarraitzen dio kanpo-politikan.

Baina, orain arte aipaturiko pertsonaia hauek baldin izan badira hauteskondeen pisua eraman dutenak ezin ditugu ahaztu beste kandidatu txikiak, beraiek baitira alderdi politiko nagusien esnatzaileak.

Lehena, **France Garand** dugu. Honen ustez lehenbiziko lana langabezia gelditzea da hortarako Estatuko lurralde ezberdinei eman behar zaie aukera. Aukera hori ere energia mailan eman behar den zerbait da. Eskumar lagunekin jarraituz hona hementxe beste bat: **Michel Debré**. Honentzat arazo osoa frantsez harrokeria indar eta biztatzea litzateke, ultranazionalista dugu iaun hau. Ekonomi arazoak konpontzeko mugak herstea eta kanpotar inmigratuen etorrera gelditzeaz nahiko litzateke. **Michel Crepau** dugu ezker erradikalaren kandidatoa. Ekologia, nazional-kuntzak eta langabeziaren aurkako lanorduen jeitsiera ziren bere egitaranaren ardatzak. **Brice Lalondek** ekologian oinarritu zuen bere programa osoa. Lanorduek gutxietzearen beharra dute ez bakarrik jende osoa lanen bat izan dezan, baizik eta langileek oporralde zabalagoak izan ditzaten. **Huguette Bouchardean** dugu Alderdi Sozialista Batuaren Kandidatoa. Feminismoaren ikurra hartu zuen eta ekonomiari dagokionez lanpostu berriak sortzearen alde eta lanordu gutxietzearen alde agertu da. Bestalde, benetako kooperazioa nahi du "Hirugarren Munduaz". Zentral nuklearren aurka agertzen da. Azkena trotskista bat dugu **Arlette Laguiller** egitaraurik gabe aurkeztua, beste kandidatoek aurkezten dituztenak faltsoak direlako.



Jacques Chirac: Etorkizuneko eskuma berriaren sortzailea.

Lehen itzulia.

Apirilaren 26ko botazioen ondoren al-daketa kullatiboak nabari daitezke bai eskuman eta bai ezkerrean. Boturik gehien atera zutenak Mitterrand eta Giscard izan ziren, baina Mitterrandek ezkerreko botu gehiago batzen bazuen ere, ez zitzaion berdin jazo Giscardi, honek botoak galduz Chirac indartzen baitzuen. Esan nahi dena zera da: Mitterrandek ezkerreko botoak bere alderdira ekartzen baditu Giscardek ez, eskumako botuak eskumatarago doazelako, Chirac-entzat hain zuzen.

1974.ean Mitterrandek (Marchaisen Laguntzaz, P.C.E. ren laguntzaz) %43 a lortzen zuen, hortik %19a gutxi gorabehera komunistena zelarik. Aurtengo hauteskundeetan bera bakarrik %26aren jabea izan da; hau da, orduan baino %3 gehiago, hiru hori Alderdi komunistatik dator Marchaisek aurten %16 baino besterik atera ez baitu. Beste alde batetik gainerako ezkerak ezker erradikalak %9'5 a lortu du denon artean.

Eskumaldean ere eman dira aldaketak, baina hortara joan aurretik ikus ditzagun eskumaldeko kandidato txikien portzentaiak: Debré'k %1,66a lortu du eta France Garand %1,33a, bien artean %3a osotzen dutelarik, gutxi gora behera.

Beste kandidatu nagusiak Giscard eta Chirac ditugu. Giscardek %4a galtzen du lehen itzuli honetan eta Chiracek (oraingo hauteskundeetan berria) %18ra heltzen da Giscarden botu asko berenganatuz.

Portzentaiak honela daudelarik eta inork %50a baino gehiago atera ez duenez gero bigarren itzulira pasatzen dira gehien atera dutenak Mitterrand (sozialista) eta Giscard (eskuma).

Bigarren itzulia

Maiatzaren 10era aukezten diren bi kandidatuok arras ezberdin ditugu: Giscard tekonokrata hutsa dela eta Mitterrand humanista delarik. Mitterrand idazle fama-tua den bitartean Giscard idazle frustratu gisa agertzen da. Kultur zabal eta abertsa du Mitterrandek, ikerketara eta erreflexio-etara zuzenduta dagoen kulturaren jabea.

Bigarren itzuli honetan eta kanpainari dagokionez, punturik garrantzitsuena Maiatzaren 5ean bi kandidatuok telebistan izan zuten agerraldia litzateke. Kasetarietiek emandako aukera hau oso ongi erabilia izan zen norberak bere puntu azalpena emateko. Giscardek Mitterrandi aurreperra botatzen zizkion gaiak hauexek

FRANTZIAKO HERRITARGOAK, KANPAINAN AHAZTURIKOAK

Mendebaleko Europar dagoan Estatu zentralizatuenerako bat (zentralizatuena esatearren) dugu gaur egun Frantzia. Baina estatua zentralista baldin bada alderdi politikoko gehiago direlakoan gaude. Lehendakariaren egin diren hauteskunde kanpainan ez gutxi komentatu da Estatuaren gutxiengoa eta.

Egia esan zortzi dira Paris inguruan Frantziari loturik dauden herriak. Herriarago heuren hizkuntza bereziak gordetzen dituzte eta hizkuntzoz mintzatzen direnak 18 milioi dira Estatu osoan; hau da, Frantzian hirutarik baina bere hizkuntza berezia gordetzen du, baina ez ministroalgoak ez die eskubiderik onartzen aipaturiko gutxiengo honeei:

Euskal Herriari dagokionez "Pyrénées Atlantiques" deituriko departamenduan, Okzitaniako zati batekin dagola esan behar. Okzitania bera hogei eta hamaika departamendutan partekatuta dago. Katalunyen ifarraldean ere Frantziako Estatu berberan aurkitzen da Ekialdeko Añamendiak deituriko departamendu hori osotzen duelarik. Ifarraldearantz goazela Pro-bentzia aurkitzen dugu Alpes inguruetan, Altsazia Alemaniako mugan, Wetshoek zati frantziarra eta Britainia bera, ezin ahaiz dabilen korsikako herria gainbegirada honetan.

Oraintsura arte herriok eraman dituzten errebindikapen guztiak nahiko paketsuak izan dira, baina dela gutxi zati batzuetan borroka armatua jaiotzen ari da, hala nola Ifar Euskal Herrian, Korsikan eta Britainian.

Herriok borroka armatuetarantz joan arren Pariseko gobernuak ez du, orain arte behintzat, ezer egin gutxiengo honeek, dagozkien eskubideak, eskura ditzateen.

Bestalde batetik, Okzitania eta Britainian berbizkunde kulturala ezagutzen ari dira Frantziako gobernak laguntzarik ez eman arren. Komunikabideak eta burokrazia ofiziala frantsest hutsean ematen direla esan dezagun azkenez.

Horrelako Estatu baten aurrean aurkitzen diren Mitterrand gaur egun bere kanpainian oihukatzen duen deszentralizapen hori ezartzeko.

izan dira: Gobernatzeko gehiengorik ez zuela, sozialismoa zabaltzea nahi zuelako lantegiak eta bankuak nazionalitzean. Baina Mitterrandek, arma berbera erabiliz, langabeziaren arazo aipatu zuen telebistan Giscardek gehiengorik ere ez zuela bere alderdian aipatzeaz batera.

Dena den, eta nahiz eta askok horrelako elkarrizketa publikoek ezer edo gutxi balio dutela esan, egia esan, Giscardek puntu asko galdu zuen Mitterrandekin

izan zuen elkarrikuska honetan. Mitterrand indartzen baldin bazen egoera haretan Giscardek beherapena sortarazten zuen.

Azkenean eta Maiatzaren 1oeko botazioen aurrean Marchaisek (P.C.E.) laguntza eskeintzen zion Sozialistari; Giscardek, Chirac eta Debrérenak hartzen zituen bitartean.

Ondorioak nahiko ezagun dira: Mitterrandek %52a lortzen zuen Giscard baztertuz. Ifar Euskal Herriari dagokionez Giscarden aldeago agertzen zela esan dezagun; halan eta guztiz ere, biren arteko ezberdintasunak txikitu ziren. Mitterrandek 1974. ean %38a lortu zuen, oraingoan ostera %45a gutxi gora behera. Giscarden kasua aldrebezkua izan da 1974. ean %62 lortzen baitzuen eta oraingoan %55a baino ateratzen ez duelako. Ikusten denez ezker indartuz doa Euskal Herrian nahiz eta daraman bidea Estatu osokoa baino astiroago joan ere.

4.-MITERRAND ELISEORA

Mitterrand Eliseora joateak, politika mailan behintzat, gauza berririk ekarriko digu, Frantziako kanpo politika eta barnekoa, beraz, zerbaitez ezberdinduko dira Giscardek eraman duenaz, batipat.

Barne politikari dagokionez lau gai nagusi genituzke: Sozialistaren programa, eskumaren batasuna, ekonomia berri bat eta ezker Mitterranden alde agertzea.

Aurtengo Urtarrilan azaldu zen egitarau batetan agertzen zen Mitterranden alderdiak Frantziari ematen zaion bidea, bide zehatza, ehun eta hamar proposapen zuena, hain zuzen. Aseguroak, bankuak, nuklear, militar eta burdingintza guztiak nazionaliztea alde batetik eta bestetik, 35 lanordu astean eta 150.000 lampostu berri urtean eragiteak osatzen dute ekonomia berriaren ardatza. Zentral nuklearrei buruz, egiten ari direnak bukatu baina berririk ez irekitzea, herriak horrela eskatu arte erreferendun batetan.

Aberatsei zerga berri bat jartzea nahi duela ere aipagarria dugu, zerga hau berrogeita hamar miloi pezeta baino gehiago dutenentzat egina litzateke.

Beste maila batetan, heriotz zigorraren aurka agertzen dela dio. Eta eskubideen artean soldadutzan dauden sindikatze-ko duten eskubidea litzateke garrantzitsuena behar bada. Etorkinez Giscardek baino asmo zabalagoduna dugu Mi-



Georges Marchais P.C.F.ko burua.

LANGABEZIA ETA BURUHILKETA

"(...) Hamazortzi hilebetetan egon zen Anne-Monique langabezian. Orain zela gutxi lan bat aurkitu izan zuen ardo Kooperatiba batetan. "Lanerako Nazional Bulegoak" esan zion lanarena, nahiz eta lan hori, printzipioz, mutil batentzako asmatua izan (...)

Berak ez zuen ikusten eragozpenik eta lantegian aurkeztu zuen bere burua (...), konponbidea zuten bere etxeko alokairuaren hiru mila frankuok, indar eta gasaren zorrak. Lagunek utziriko zorrak argia ikusiko zuten (...)

Martxoaren 23an agertu zen lantegitik lanean aritzeko. Entrepresak "Paktu Nazional" horrek ematen zituen legepean aurkitzen zen norbait bilatzen zuen "Betebehar Sozial" gutxiago ordaintzeko. Egoera honetan aurkitzen direnak honexeek dira: langabezian urtebete baino gutxiago daramatenak edo langabekoa bere lehen lanaren bila dabilenean. Anne-Moniqueren kasua baldintzotan sartzen ez zela argi ikusi zuen lantegiak eta neska kanpoan utzi aurretik telefonoz aritu zen Estatuako goimailetak arduradunekin betebehar sozialaren legekenketa bat lortzeko (...)

Baina "Lanerako Nazional Bulegoa" tresna astun bat bihurtu da eta kasu honetan ez dago legekenketarik Anne-Moniquerentzat (...)

Hogei eta hiru urte zituelarik eta bere lana galdu zuelako hil ote zuen ber burua? Séte-n (bere herrian) oraindino eztabaidatzen da kasua (...)

"Le Nouvel Observateur" aldizkariaren 856. aletik hartuta.

itterrand; behin bost urte Frantzian bizi ondoren Udal hauteskundeetan boza emateko eskubidea izango dute.

Mass-Mediak herriratzea eta deszentraliztea eskatzen du. Hortarako zerbitzu publikoa izateaz gainera pluralistak izan beharko; aipa dezagun ere herri-emisorak ezartzeko baimena zabalduko dela.

Militar mailan lehengo politikari jarraituko dio; hau da, indar nuklearrak hobekitu "Frantziaren burujabetasuna gordetzeko". Ekonomiari buruz, Sozialisten egitarau honek proposatzen duen beste datorik, bada nazio arteko hartuemonei dagokioena: hain zuzen Multinazionalen aurka joanda merkatu erlazio berriak zabal, herri azpidesarrollatuekin eta Mediterraneoako alineatubato herririk gehinekin, erlazio gehiago lortzea.

Mitterranden egitarau honek gehien zaintzen duen arloa ekonomiarena genuke. Horrela delarik, pausurik aurrerakoiena lantegi nagusien nazionalizatzear legoke, baina zeintzuk dira lantegiak, banku eta aseguruekin nazionaltuko direnok? Egazkigintzan "Dassault" lantegia, 15.000 langilekin eta kapitalaren %30 a estatuarena delarik. Kimika arloan "Roussel-Vclaf" eta Rhône-Poulenc" 110.000 langilekin bien artean. Zibernetika arloan "ITT-France" 14.000 langile, "Thomson" 140.000, eta "Honeywell Bull" 20.000 langilekin. Beste lantegien artean hurrengook ere aipatu behar: "Pechiney Ugine Kublmann" aluminiara dedikatua 89.000 langilekin, "Saint Gobain" lantegia beiragintzan aritzen dena bere 162.000 langilekin, burnigintzan nazionalizatzeko direnak "usinor" eta "sacilor" ditugu, bien artean 60.000 langile dutelarik. Arma lantegien artean "Matra" izenekoa eta elektrizitate mailan "Elektrizitate Lagunarte Orokorra" bere 170.000 langilekin.

Noski, baietz, asmo hauek bere ondorioa izan du Kapitalisten artean eta hauek gidatzen zuten "boltsa" delako hortan. Pariseko boltsa beti agertu da Giscarden alde eta Mitterranden aukeraketaz berri izan bezain laster (aipaturiko **nazionalizteok** direla eta) jende guztiak nahi zuten bere baloreak saltzea. Nazionalizatuko diren entpresen baloreak % 20a galdu zuten Mitterrand aukeratu zenean. Gero, apurka apurka, orekatu egin dira baloreak heuratariko batzuk %3 igonda. Bankuek, bai Thatcher eta bai Schmidt jaunak be-

ren laguntza eskeintzean lehendakari berria den Mitterrandi orduko beldurrikara txikitu da.

Lehendakari berriaren aukeratzeak ere izan ditu bere ondorio politikoak. Eskumari dagokionez, badirudi Giscard eta Chirac-ek heuren indarrak batuko dituztela laster ospatuko diren legislatibo hauteskundeetan batera agertzeko. Aipa legislatibo hauek Ekainan bertan ospatzekoak dira eta bertan ikusiko benetako eskuma nola gelditu den Mitterranden garaipenaren geroztik.

Eskumak bere burrukabidea gertatzen badu ere, ezkerak berea darama. Oraingoz, behintzat, Frantziako sindikatuek eta Alderdi Komunistak berak laguntza eskeini jotela Mitterrandi bere politikaren alde diotuz. Dena den, ez dirudi, iskanbila berriak egongo denik P.C. eta P.S.aren artean legislatiboak igaro arte behintzat. Orduan, P.C.ak. Marchaisen objetibo batzuk aurkeztuko dizkio P.S.ari; baina P.S.ak gertu du bere erantzuna: hartuemanetan hasteko P.C.ak bere kanpo politika berrikusi behar du, bai euromisilei duten aurkako jarrera bai Afganistan eta Poloniari buruz dituzten tesisak. Egia esan, legislatiboak eman artean ez da gauza zehatzik emango P.C. eta P.S.aren artean; halan eta guztiz ere, jendeak P.C.a P.S.aren eskabideetara makurtuko dela uste du azken sondeoetan eman diren datuak kontutan izanik; horrela, badirudi P.C. hau beherago joango dela %13 ateraz P.S.a %36 eskuratuo duela usten bitartean (Giscarden bozak %20 liriteke eta Chirac-enak %18).

5.- MITTERRAND ETA EUSKAL HERRIA

Bi puntu izan behar ditugu kontutan Mitterrandek Euskal Herriari buruz eramango duen politika aztertzerakoan. Alde batetik, lehenaren eskainiak (euskal departamendua eta nekazari erreforma eta bestetik, herriak eman dion erantzuna (kasu honetan nahiko ezkorra).

Euskal departamendu bat egitearen asmo han Estatua deszentralizatzeko sozialistek duten asmo orokorreko partaide bat besterik ez litzateke. Asmo hau aurrera eramatean prefektoak Pariseko Gobernuak jarritako ikusle batzuk liriteke eta ejekutiboa zinegotziek eramango, baina oraindik teoria hori asmoetan baino ez dago.



Coluche: pailasoarena egin ondoren bere etxera.

Nekazari erreforma hori CEEren barneko kide guztiei egiteko eskatuko zaionaren partaide izango omen da. Dakigunez ifarraldea errurala osorik da nahiz eta turismorako erabilia izan sarriegi. Nekazari erreforma honen bidez zer nahi den, oraindik zehazturik gabe dago.

Egia esan, euskaldunak ez dira gehiegi fidatzen lehendakariak, edo behintzat ez ziren gehiegi fidatu Maiatzaren 10ean %44a baino besterik eman ez ziotelako, harrerarik honena Zuberoan eman zioten Mitterrandi bozen arteko %52a eman baitziotzen, baina, orokorki hartua, Euskal Herriak ez du Mitterrand nahi.

Hau honela dagoelarik, oraindik ikusteko dugu Mitterranden praxia asko maite ez duen Euskal Herri honetan.

J.I. Basterretxea

"JE VEUX CROIRE A VOUS"

Berria iritsi zitzaidan, askori bezala, E painiako telebista ahalguztidunatik. "Parce que el gobierno francés no tiene intención de conceder la extradición del terrorista vasco" "Ematen du, ba dirudi, askoren ustez" erretorika katu zuen edasleak behin eta berriro E painiarekiko bidegabekeria hura ezin izan. Tamainiako injustizia iztela Frantziak egiten zuena, terrorista asasino horri errefuxiatu eskubideak emateko prest baitzegoen Mitterrand-en gobernuak.

Eta momentu hartan lagun batek Mitterrand-i bidaldutako telegramaren edukia oroitu nintzen: "On n'aurait pas la force morale de croire à quelqu'un qui peut extraditer celui qui est victime d'un pouvoir grossièrement masqué en démocratie". Ez, extradizioa eman ez gero zailegia zen Mitterrand-en gizabideetaz sunaz areago sinestea, ezina. Baina eta zer Hasiko al gara garaioetan sozial-demokraziaren justizi zentzuaz eztabaidatzen? Ez al dugu erabipikatzen kapitalismoaren gestioegile hobekien eta pausatuenak direnik? Zertarako orduan hainbeste mistifikazio eta senetik ateratako zurrinkeria? Extradizioa emango ez balu beste ordenada politikotan bilatu beharko genituzkeen haren arazoia. Arazo larri gehiago ez sortzeko esaterako. ETaren kontra zuzen zuzenik ez joatea, esaterako. "C'est un problème espagnol il ne faudrait pas qu'il devienne français".

ETaren kontra mutur muturrez sartzea ez da gaur oso politikoa Frantziari. Ez da sekula izango gaur txarrago. Eztabaidak, tirabirak ekintza harmatuek batez ere eskumaren eztekerak bihurtuko litzaizkieke sozialistei. Prentsan eta komunikabide guztietan Eskumak duen boterea ahalguztidun horren bidez Mitterrand-en sozialismoa beste bazter berri batetik erasotzeko bidea ere bai.

Politikoki jokatu du Mitterrand-ek. Giscard-ek berak gauza bera egiten zuen. Ez zen sekula la ETaren muturrak aurrez aurretik apurtzeko ausartu. Baina Giscard, Giscard zen eta gaur artean ez diogu sekula gizabideetasun izipirik izanik erabian eman. Frantziako herri eta pertsonen gizaeskubide guztien borroroa edo eta borren teknokratikoen mandataria. Eskuma betikoa. Baina Mitterrand-ek ez du nahi beraren burua horrela kontsidera dadinik. Mitterrand-en mundua bestelakoa da. Pobreei, herririk gabekoei langileei mintza nahi zaie. Hala dio bere diseinuetan ezkutuak.

Politikoki bakarrik jokatu al du Mitterrand-ek? Ez dakit. Duda handiak gordetzen ditut nirekin. Ezinjakin honek nire lagunaren telegramaren azken hitzak dakarzit burura: "Je veux croire à vous". Noiz arte iraunduko du ene sio honek?

T. Tri...

UNA CULTURA UNA NACIÓ



PAÏSOS CATALANS

“Josep Lluís Pitarch i Tortajada, llicenciat en història, treballà algun temps en investigacions arqueològiques. Està lligat des de fa molts anys a les reivindicacions nacionals catalanes al País Valencià i, així, ha participat en l'organització de diverses campanyes a favor de la llengua, de l'autogovern, etc., abans i després de 1975. Fou cap del Departament per a la Normalització i Foment del Valencià a la primera conselleria d'Educació del govern preautonòmic del País Valencià, des d'on organitzà el Pla Experimental d'introducció del català al sistema escolar Valencià. Ha participat en diversos congressos i trobades i especialment sobre temes lingüístics i diensenyament. Actualment es un dels principals animadors de la Coordinadora d'Ensenyants del País Valencià”. Horrela presentatu zidaten Valencian Josep, hizkuntzaren egoera ulertzeko norbaiten bila nengoenean...

AN.- Josep, zein da gauregun katalaneraren irakaskuntzaren egoera hezkuntza zentroetan?

J.P.- Kaos bat eginda dago, ilabur esateko...

Eta kaotikoa da momentu honetan Consellek daraman politika, Herri honek orain beharko lukeenaren kontrakoa da.

Normalizazioa da gure arazoa, gure helburua, eta hauxe da UCDe nahi ez duena. UCDe Consellen burua eta boterea, eta alderdi hau edonolako oztopo jartzen ari zaio katalaneraren irakaskuntzaren normalizazioari, gure interesen kontra eta, jakina, Coordinadora d'Ensenyants-en kontra.

Koordinadora honetan —bere izenean ari naiz zurekin hizketan irakasle kopuruaren erdia baino gehiago gaude eta, Consellen politika oztopolarlearen kontra, ataleneraren irakaskuntza eskolatan mar-txan jartzen saiatzen ari gara.

Begira zer nolako kaos dagoen: alde

batetik guk katalanera irakastea nahi dugu eta bestetik honen irakaskuntza ofizialki babestu beharko luketeenek, Consell eta Administrazioak, kontra egiten dute, lege guztien kontra... Hemen nahaste izugarria sortzen da eta hauxe, jakina, katalaneraren irakaskuntzarentzat kaltegarria da.

AN.- Mintzatzen hasi garenean arazoa politikoa zela esan didazu. Zehaztu hau, mesedez...

J.P.- Bai. Arazoa politikoa da, ez da linguistikoa, nahiz eta herri mailatan bizi garen kaos honek ulertze arrarorik izatea: katalaneraren batasuna ukatzea, kasu, valentziera ez dela katalaneraren zatia..

Ez da arazo linguistikoa, politikoa da eta nahaste hauek interes politikoz bul-tzatzen dituzte.


Hau ulertzeko bizi garen egoera ikusi behar da. Egoera hau, jakina, aspaldidantik datorkigu, baina orain inoiz baino ar-

giago ikusten da Estatu Espainol osoan, hori euskaldunok segur-segururu ondo ulertzen duzuela, ofentsiba argia egiten ari dela Estatuko nazio zapalduen kontra.

Valentziar Herria, nahiz eta duela gutxi hasita, gero eta handiago gertatzen dabil bere konzientzia nazionala. Ondorioz, Gobernuak, hemen han bezala prozesu hau ito nahiaz, hizkuntza erabiltzen du.

Dudarik gabe, nazio zapalduen arazoaz jabetzeko, edonok eman behar duen lehen urratsa bere hizkuntza zapalduaz aditza izango litzateke. Gobernu edonola saiatzen da hau edikitzen. Hizkuntza erabiltzea argikiro debekatu ezin duenez, erabiltze hori latza egiten dabil, ahal duen neurrian, eta hezkuntzan bereziki, hizkuntza nazionala baztertzeko; horretarako edonolako bidea, ortodoxo eta ez hain ortodoxo erabiltzen.

Hezkuntzan, modu kaotikotan dabil,



nahasteak sortzen. Zuk dakizunez, linguistek argi esan dute valentziera katalaneraren zatia dela, eta gainera oso zati garrantzitsu. Euskaraz bezala: ezin duzue baztertu ez Donostiako mintzaera, ez Iruñakoa, ez Erronkarikoa; denek Euskara osatzen baitute. Gure kasuan berdin xamarra da.

Orduan, konzientzia nazionalaz jabetzeko prozesu hau, hizkuntzaz hasita eta Paissos Catalans batasuntzat hartzera doan prozesua edikitzeko nahastea sortzen dute horrelako sasizientzia erabiliz. Gaia desgizatu nahi dute, pozoituz, baina beren buruak zurrizten dituzte, oinarri zientifikorik ez baitute. Baina, jakina, ziria sartzeko gogo hori ez doakie zientzialariei, horiek guttiengoia dira azken batez, Herriari doakio; eta, horretarako, bihozkeria erabiltzen dute, oso "chauvinistak" dira, herrikeria bultzatzen dute: Fallak, Valentziak gloria berria eman behar diola Españari dioen "herrialdeko" himno berri bat, senyerari barra urdina jartzea...

AN.- Zehaz dezagun: argi geratu denez, eraso politikoa dago Herriren kontra; baina, nork egindakoa? Lehen zatian UCDAz mintzatu zara... Beste

gehiagorik dago? Norbaitek ematen dizue laguntza?...

J.P.- UCDAz mintzatu naiz horrek duela bere eskuetan bai Consell eta bai Estatuko Gobernuak. Bera da errudun nagusia. Gainera UCDAren planteamenduak eta burjeseria valentziarrenak berberak dira. UCDAk, burjeseriaren "ordezkaria" izanik, helburu nagusitzat hartu du zera hori.

Honetaz aparte, Consellen dauden beste alderdi politikoak ditugu: PC eta PSOE hain zuzen ere. Biok, nire ustez, oso txarto jotzen dute, eskumaren txantaiak eraginda etsi egiten dutelako; eta ez bakarrik hemen, hauxe leku guztietan. Etsi egiten dute lotsagarriki, hutsaren truk, deabruari arima saltzen diote, atzera ematen dute hutsaren truke. Hau dela eta, oso txarto jotzen dute...

Alderdi biek beren kongresutan hitz ederrak esan dituzte: katalaneraren batasuna defendatu behar dela eta besterik ere, baina hitzak hitzak dira eta ez ekin-tzak. Orain Autonomi Estatutorako aurreproiektu bat paktatzen ari dira eta hementxe dago gakoa. Estatuto hori ez da batere ona guretzat, ideia argia dugunontzat; PC eta PSOEren militante arrun-

tek ez dute ontzat emango ere, eta, nahiz eta katxondeo ematea, UCDAk eta eskualde puntako alderdiek ere ez. Ezin da kontzerturik egin, eta etsi egitea buruhiltzea da. PC eta PSOEek pakto autonomiko bat onartzen badute, beren burua hiltzen a dira, eta Valentziar Herri erahiltzean lagunduz.

Parlamentutik kanpoan daudenak hitz egiten dute, baina ez dute indarrik...

AN.- Zer egiten du Consellek? Etsi "historia"ren zehar? Hor zerbait dago, kontatzeko, ez da?

J.P.- Beno, Consell bera harrigarria da.

Lehen Consellean Hezkuntzarako jarri zuten Kontseilariak, UCDAkoa bera, Josep Lluís Barceló, oso argiak ditu hizkuntzako kontuak eta guregana etorri zen horretarako laguntza eta kontseilua eskatuz. Konkretuki, neu deitu ninduen bere kontseilarietarako, eta Valentziera bultzatzen zuten Departamentuko buru jarri ninduen. Horrek urte bat iraun zuen, eta bigarren legislaturan UCDAk ez zuen Barceló dimitatutzat presentatu. Bota egin zuten, eta jakina, ni ere bai. Honekin batera, guk gure neraman politika osoa.

Hezkuntza kontseilari berria jarri zuten, UCDkoa ere bai; baina honi guk egindako la

Lehen Consellean Hezkuntzarako jarri zuten Kontseilariak, UCDkoa bera, Josep Lluís Barceló, oso argiak ditu hizkuntza kontuak eta guregana etorri zen horretarako laguntza eta kontseilua eskatuz. Konkretuki, neu deitu ninduen bere kontseilaritzarako, eta Valentziera bultzatzeko Departamentuko buru jarri ninduen. Horrek urte bat iraun zuen, eta bigarren legislaturan UCDk ez zuen Barceló diputatutzat presentatu. Bota egin zuten, eta, jakina, ni ere bai. Honekin batera, guk generaman politika osoa.

Hezkuntza kontseilari berria jarri zuten, UCDkoa ere bai; baina honi guk egindako lana apurtzeko aginte argia eman zioten. Honen atzean UCDko buruak daude, Roseta eta Abril Martorell bera; kontseilaria ez

da pantaila baizik, idiota gizajoa...

AN.- Bere izena...

J.P.- ...Peris Soler... politikan guztiz ezezaguna, guztiz analfabetoa, eta agintzen diotena, Barceló Plana apurtzea, betetzeko prest.

Barceló Plana zera zen: Saiaketa moduan, katalanera kezkuntzan sartzea, Elebitasunarako Dekretua egiten zen bitartean, horrela egin zen...

Dekretu hori Barceló bota zuten garai berean egin zen. Ondorioz, gaurko Consellek Dekretu beraren kontra egiten du, legetik kanpo.

Guzti honek kaos honetara ekarri gaitu. Alde batetik Consellek Dekretuari oztopoak jartzen, eta bestetik guk Dekretua praktikara eraman nahiaz. Dekretua ez zaigu oso atsegina, baina hobe da aprobetxatzea, gure ustez. Baina beraien helburu bakarra oztopoak jartzea da, ilegalki jotzen. Horrela, momentu kritikorik ere egoten da: Goardia Juzkatuan Admi-

nistrazioa bera denuntziatu dugu; eta OHOZKO Inspezioak atzera jo behar izan du, bere jokabidea aldatu behar izan du eskola batzutan, kasu konkretu batzutan, salaketa hauek zirela eta.

Hauxe da Consellen bigarren aroa, lehena Barcelórena izanik; eta hirugarrena ere, bistan omen dugu. Dirudienez PSOE, PC eta UCDren arteko akordiorik omen dago, akordio tristea, lehen komentatu dugunez. Akordio haudela eta, gaurko consellerak aldatuko lirateke eta Ezkerrak Conselleriaren bat hartuko luke.

Oraindik ez dakigu honek zer ekarriko duen, txar ala onik. Nire ustez txarra izango da, guztiz txarra; UCDk ez du etsi egingo, eta besteek daramaten politika ikusiz gero...

Hauxe da gure suspense nobela honen hirugarren atala... Bitartean, umeek ezin dute normalez ikastea, hizkuntz-politika normala egin ezinez gabiltza komunikabideetan, eta abar...

BANCO DE BILBAO

nire soldatak
lan egiten du.

Bitartean ni atsedenean.



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu.

Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharrianik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatetik.

Eskura




delakotik
zure soldata

BANCO DE BILBAO

Artikulu hau idazten ari gara, Bizkaiko ONCE.ko ehunen bat partaidek hertsialdiari eman diote hasiera Ekainak 22ean errebindikapen ekonomiko eta sozialak eskatuz. Gobernuko lege berri batek aditzera eman duenez kupoak tarbernetan ere salgai ipini ahalko dira. Tamainako neurri honek kalte handiak ekar ditzaieken ONCE-koei beren diru sarbideak, jadanik eskasak, askoz gehiago moztuz.

Gizarte honetako bidegabekeria eta desoreka eskandalugarri guztiei beste pisu bat ipini nahi diote mozkin guztiak kontrolatzen dutenak beren probetxuan.

ONCE.ko egitura faxistak zalantzan ipintzen direnean eta ateratako irabazpen itzelei itsuek oreka jarri nahi dutenean, bide berriak topatzen ditu demokraziak diruek beste norabideak har ditzaten. Betiko norabideak seguraski, baina oraintxe honetan "demokraziaren" seiluarekin eta guzti.





MANU AGIRRE: GAUZAK ARGI IKUSTEN DITUEN ITSUA

Manu-rengana joan ginear, ez gene-
kien nolako pertsonaren aurrean aur-
kituko ginen, ez bait genuen sekula
itsu batekin horrela tratatu eta beti
uste izan bait dugu itsuak pertsonak
bereziak direla. Berarekin egon ondo-
ren, esan genezake harrিতuta geratu
ginela haren maila kulturalarekin, ana-
lisiak egiteko kapazitatearekin eta be-
re bizitza osoan eroan duen burruka-
rekin. Berezia da, bai, halabeharrez
eta bizi.

tzak eman dion esperientziaren eragi-
nez, baina ez da ezertan ere pertsona
"normalen" behetik dagoen norbait.
Ez dakigu nolako lana desarrollatuko
duen Bilboko Udaletxean eta bere
barnean dagoen guztia kanpora atera
ahal izango duen, baina lan horretara-
ko kapaza dela, hori seguru.

MANU.- Hitz gutxitan esango dizuet
zein izan den nire bizitza, nola dagoen
itsu baten bizitza eta orokorrean elbarri
guztien bizitza.

Ataunen jaio nintzen, baserri batean,
1958.eko Apirilaren 14an. Noiztik naizen
itsu? jaiotzetik, hola jaio nintzen. Nire
familiarren heziketa maila normala zen,
edo normala baino gutxiagoa gauza as-
kotan. Ni zazpigarren semea naiz, eta

beste guztiak "normalak" dira. Orduan,
ba, ni jaiotzean, erabat desorientatuta
zeuden: zer egingo dugu itsu honekin?,
nola enfokatu problema hau?, nora era-
mango dugu?, eskolara ezin dugu era-
man, problema honekin arduratuta da-
goen profesore bat ere ez dagoelako,
eta abar eta abar. Eta hortik dator pro-
blema psikologikoa: gaurko egunean,
jendea ez dago preparatuta pertsona
guztiak berdin kontsideratzeko eta or-
duan ni txiki-txikitatik sentitu nintzen
desberdin beste analetatik. Hiru, lau,
bost urtekin garbi neukan neure norta-
sunean, desberdina nintzela, eta nire-
tzako ez ikusteak gauza oso diferenteak
ekarri behar zituela beste pertsonen ga-
tik.

HAMABI URTEREKIN KOLEGIO BEREZI BATETARA


Kontextu hortan egon nintzen etxean
hamabi urte, nire gurasoek ez zekitelako
itsuen organizaziorik eta horrelako gau-
zarik zegoenik. ONCE izeneko organiza-
zio bat zegoela enteratu zirenean, eta
itsuentzat kolegio batzu zeuzkala, etxean
geratzea baino edozein kolegiotara joa-
tea hobeto izango zela pentsatu zuten,
itsuen eragozpenak gainditzeko eta so-
luzio batzu emateko gertatuta egongo
zirela uste zutelako. Kolegio hoiek lau

tokitan bakarrik daude: Madril, Alicante,
Sevilla eta Pontevedran, eta niri Pon-
tevedrara joatea tokatzen zitzaidan, ze-
ren Norteko jende guztia hara joan be-
har zen. Hamabi urtekin joan nintzen,
eta benetan gustora, ikasteko ilusioare-
kin eta beste pertsonak bezala izateko
ahaleginak egiteko prest.

Hori aurretik, Atauneko eskolara joa-
ten nintzen lagunekin eta, baina seriota-
sun handirik gabe, poliki poliki apur bat
estudiatu eta... niretzako oso ona izaten
zen, alde batetik irteten nintzelako, eta
bestetik lagunekin jolasean ibiltzen nin-
tzelako. Gainera nahiko integratuta nen-
goen eta gustora, baina ez nuen mailarik
erabiltzen eta ahal nuenean joaten nin-
tzen eta hola. Pontevedrako oso des-
berdina izan zen.

Gainera nahiko integratuta nengoen
eta gustora, baina ez nuen mailarik era-
biltzen eta ahal nuenean joaten nintzen
eta hola. Pontevedrako oso desberdina
izan zen.

Garai hartako beste kolegio internoak
bezalakoa zen, erabat errepresiboa, izu-
garrizko bortxaketa alde guztietatik eta
kristorena... ni behintzat harrিতuta geldi-
tu nintzen. Garai hartako lagunek orain
esaten didatenez, nik beti esaten nuen
ez nintzela itzuliko kolegio hartara, bai-
na...



EGINDAKO IKASKETAK

Kolegio hartan egin nuen lehen maila, niretzat erreza zen, pentsa hori 6 urteko ume batek egiten duela, gero hurrengo urtean bigarren eta hirugarren maila egin nituen eta hirugarren urtean laugarrena eta bostgarrena eta Batxillerreko hirugarrenera pasatzeko proba bat. 14 urtekin Madrilerara pasatu nintzen, beste kolegio batetara, edadez horrela tokatzen zitzaidan eta. Madrilen, laugarrena, bostgarrena, seigarrena eta COU egin nituen.

ANAI.- Klaseak zelan izaten ziren?

MANU.- Guk, irakurtzeko eta idazteko sistema bat daukagu, Braille sistema, eta horrekin, estudiatzeko eta, ez dago inongo eragozpenik. Eragozpen handiena zera da, oso materiale gutxi dagoela sistema hortara pasatuta, baina testu aldetik eta, ondo. Gero COU Madrileko institutu normal batean egin nuen, ONCE-k batxillerretik aurrera ez daukako inongo eskolarik gertatuta. Eta, klaseak besteak bezala segitzeko ez nuela eragozpen berezirik konturatu nintzen. Problema bakarra, Matematikatan eta egoten zen, eta aurreko egunean irakasleari zera esan nion: zuk, harbelean idazten duzun guztia altu esan; horrela egiten zuen, eta orduan, interesatzen zitzaidana idazten nuen, eta inongo eragozpenik gabe segitzen nituen klaseak. Kimikan eta Fisikan ere berdin: hori zen zailtaun guztia. Dena den, COU-n utzi nituen estudiatzeko asuntuak.

ITSUEN SINDIKATUA

ANAI.- Gero Ataunera itzuli zinen?

MANU.- Ez, Madrilen geratu nintzen, itsu langileen sindikatu bat sortu zelako. Sindikatu horrek bi helburu zituen: bata, ONCE-ren barruan burrुकatu, ONCE demokratizatzeke, eskema paternalistak hausteko eta langileri-dinamikan sartzeko gure problematika, eta bestea, itsuen integrazioa eskatu maila guztietan, bai heziketa mailan, bai langintza mailan, eta baita erlazioetan ere. Niri garai hartan, estudioak uztea eta erabat hortara dedikatzea hobe zela iruditzen zitzaidan, eta hala egin nuen, egun osoa hortara emanez. Gero diferentzia batzu izan genituen, zentral sindikal batzuetan sartu ala ez sartu eta abar, eta azkenean batzu irten egin ginen. Orduan, Madrilen segitu edo Euskadira etorri planteatu nuen: ni pertsonalki hemen hobeto sentitzen nintzen eta gainera, maila horretan ez zegoen ezer ere eginda, beraz, hiru hilabete egin ondoren, Bilbora etorri nintzen.

ETENGABEKO BURRUKA

Bilbora etorri aurretik, neure bizimodu planteatu nuen, eta esan nuen, bueno, bi irtenbide ditut: estudiatzen segitzea ala Madrilen hasi nuen burrुka segitzea. Gaurko egunean, biak batera erabiltzea ezinezkoa dela iruditzen zait, nola gutxi desarrollatuta dagoen gure burrुka, lan asko egin behar delako eta, oso gutxi gara lan hori egiteko eta or-



La Organización Nacional de Ciegos ha redimido de su esclavitud económica reintegrando a las actividades productoras a más de veinticinco mil ciegos abandonados antes a la mendicidad y a la miseria.

Palabras de S. E. el Jefe del Estado y Comandante de España D. Francisco Franco en su discurso pronunciado ante el Consejo de F. E. F. y de la I. O. S. el día 1 de octubre de 1945.

duan, hortara ibiltzen baldin bazara beste gauzak utzi egin behar dituzu. Gure burrukara dedikatu, baina nola?

ONCE (ORGANIZACION NACIONAL DE CIEGOS DE ESPAÑA)

ONCE-n bertan, hiru kategoría daude: batak dira saltzaileak, besteak dira ONCE-n barruan lan egiten duten itsuak eta besteak dira, administrazioan dauden langile "normalak", esango nuke. ONCE-k taktika bat segitzen du, eta taktika hori zera da: haiek ere pentsatzen dute, kupoiak saltzea halako limosna bat dela, gaurko egunean beste kategoría batetara pasatua, baina limosna, eta ez duela inongo satisfaziorik ematen. Orduan zera egiten dute: haiek kontsideratzen baldin badute itsu batek halako ahalmenak edo dituela, edo azkartasun batzu eta gertakizun batzu dituela, hemen barruan ematen diote postu bat, baina lanpostu horretan ez da ezer egiten. Eta ez da ezer egiten, administrazio-mailan lan egiteko medio batzu behar direlako (tesorerian lan egiten baduzu, kalkuladora batzu eta holako instrumentu batzu) eta ez dagoelako ezer, ONCE-ri ez zaiolako interesatzen.

BEHETIK HASI

Orduan pentsatu nuen, bueno, nik zein bide hartuko dut burruka hori hobe-

to eramateko?, eta kategoriarik bajeuna saltzailearena zela iruditu zitzaidan, eta hortik hasi behar zela burruka eramaten, nahiz eta saltzailea alderdi askotatik egoera txarragoan egon eta opresio handiagoan, gizartearen aurrean bere miseria nabarmenagoa delako. Hortik astea pentsatu nuen eta hala hasi nintzen orain dela hiru urte.

ITSUEN PROBLEMATIKA

Problema asko dago gaur egun itsuen munduan, itsua kulturatik aparte dagoelako, informaziotik aparte dagoelako, historian zehar oso zapalduak izan garelako. Adibidez, esango nizuke, orain dela 2.000 urte, itsu jaiotzen zirenak hil egiten zituztela, eta beti izan gara limosna eskatzen zutenak, edo magoak edo trobadoreak: holakoxe jende erabat baztertua.

Kupoiarekin, egia esan, itsuak salto bat eman du; diru nahiko irabazten duenez, itsuari berari, problema superzifialki hartuta behintzat, salto bat egin duela iruditzen zaio: eskale izatetik kupoi-saltzaile izatera, eta orduan, edozein mobilizaio, benetan zaila da.

KUPOIAK

ANAI.- Nola funtzionatzen du kupoiaren asuntua?

MANU.- Prozesua hau da: aurreko egunean gu etortzen gara hona eta kupoiak erosi egiten ditugu, kapitala geuk jartzen dugu. Gero saldu egiten dugu komisioi baten bidez, %20-30 gutxi gorabehera, zenbat eta gehiago saldu, diru gehiago. Saltzen ez dugunatik, kopuru bat dago bueltatu daitekeena, eta beste bat ezin daitekeena bueltatu. Baina honek bere ondorioak ditu: bueltatzen baldin baduzu, gero, igandeetako, oporretako eta jubilazioko eskubideak galdu egiten dituzu.

ANAI.- Eta hortik ateratzen da dirurik?

MANU.- Bai, eta bene-benetan esango dizuet hori ez dela problema: gaur behintzat, itsuaren problema ez da dirua. Ez da erreza hau esatea, baina kasi-kasi esango nuke aldrebes dela: dirua dela problema beste gauza batzu aurrera ateratzeko.

ONCE-ren BARRUTEGIA

ANAI.- Itsu batek, kupoiak saltzetik aparte egin lezake beste lanik?

MANU.- Egin lezake. Gauza bat da egin lezakeena berez, eta beste bat, gaur, gauzak dauden bezala egonik egin lezakeena. Adibidez esango dizuet, 1958. eko lege bat dogoela, itsuak ez duela lanik egiteko kapaziterik esaten duena,



ta era berdinean, edozein itsu Segurita-
Sozialetik kanpora gelditzen da. Bai-
ere esango dizuet, ONCE sortu ze-
ean (Francoren koñatuak egin zituen
onen estrukturak eta abar), bi mono-
polio hartu zituela beretzat: bata, kupoia
altzeko libertatea, Haziendari ezer ere
rdaindu gabe, eta besta, Españaiko

su guztiak, legez, nahi eta nahi ez,
ONCE-ren barruan egon beharra. Gaur-
egun, enpresa benetan fuertea
a. erabateko presupostu altuak erabil-
ten dituelarik: adibidez aurtengoa
3.000 milloikoa izan da, eta orduan,

kupoi-saltzen hori negozioa bihurtu du-
te. Orduan, eta galdetu didazuenari
erantzunez, ONCE-ri ez zaio interesa-
tzen itsuek beste gauzetan lan egitea,
eta ahal dituen oztoporik handienak
ipintzen ditu, itsuak beregandik inde-
pendizatu ez daitezzen ONCE-k, fisio-te-
rapia eskola bat du, tenika aldetik segu-
ru asko Europatik onena, baina eskola
hortan urtero 5 edo 6 bakarrik hartzen
dituzte, eta hori nahita, nahita egiten
dute, alde batetik eskola horri elitismoa
emateko, eta beste alde batetik, ez zaio-
lako interesatzen itsu asko irtetzea heu-
ren erakundetik. Hemen Bilbon adibi-

dez, bi itsu daude Cruces-eko Sendate-
gian lan egiten fisio-terapeuta bezala,
eta oso apreziatuak dira.

Nik uste dut, gaurko egunean, berezi-
bereziki, faszismoa, ONCE bezalako era-
kunde, ez dakit marginaletan esan, bai-
na honelako erakundeetan bizi-bizirik
dagoela. Jendeak ez du ezagutzen
ONCE eta antzeko erakundeak, eta or-
duan ez zaie ajola hemen zer gertatzen
den, eta hemen geratzen dira lehengo
fashistak, baina fashista-fashistak, beti
izan direnak eta gaur ere fashista bezala
konportatzen direnak, eta hauek, era-
kundeok nahi duten moduan eta nahi
dutenarako erabiltzen dituzte. Honetaz
luze egin daiteke hitz.

EZKONDUA ETA UME BAT

ANAI.- Eta beste arlo batetara pasa-
tuz, dakigunez, ezkondua zara, bai-
na, nola sartu zinen harremanetan
zure emaztearekin?

MANU.- Gure harremanak oso logikoak
izan ziren. Gaurregun, kolektiboak heu-
ren artean oso lotuta daude, edozein
kolektibo, eta itsuei ere berdin gertatzen
zaigu. COU egiten ari nintzela sartu nin-
tzen berarekin harremanetan, hura tele-
fonista kurtzillo bat egiten zegoela eta
pentsio berberean topatu ginelako. Ho-
nela, hiru bat urte iraun genuen, eta
gero bera Caceresera joan zen lan egi-
ten, eta Bilbora etorri nintzean bere lan-
postua hona aldatzeko aukera eduki
zuen, eta honela.

ANAI.- Zuek biok itsuak zarete, bai-
na zuen umea ez. Zer sentitzen du-
zue hori pentsatzean?

MANU.- Egia esa, hori ez da inprobisa-
zioa. Guk oso kezka handia dugu gure
umetaz, eta aurretik sendagilearekin
egonda geunden, itsua izateko posibili-
daderik zegoenentz jakiteko, eta ia ia
zihur esan zigun ez zela itsua izango.
Itsua izateko posibilitate handirik izango
bazen, ez genuen haurrik izango.

Zer sentitzen den?, poz handia. Gure-
tzat, ume normal bat izateak oso senti-
du berezia du, sentidu razista duela
esango nuke nik, zeren hain gara gizar-
tearen aldetik zapalduak eta baztertuak,
eta hainbeste aldiz esaten digute ezin
dugula ezer egin, ba, haur bat dugu-
nean eta haur horrek ez duenean era-
gozpen berezirik, esaten dugu: koño,
zer gertatzen da hemen!! Horrelako
gauza bitalak, sentidu handia dute gure-
tzat afirmazio moduan, ez luke izan be-
har, baina hala da: psikologia aldetik
behintzat, oso sentidu handia du.

HEZIKETA INTEGRALA

ANAI.- Itsuen problematikara itzuliz
(nahiz eta arazo familiarrekin ez ga-
ren bertatik irten), esaiguzu itsua gi-
zartean integratzeko zeintzu pau-
soak eman beharko liratekeen.

MANU.- Nire ustez bi soluzio daude: in-
tegrazio pertsonala, hau da, nik karrera
bat egitea eta neure burruka guztia neuk
neuretzat lan bat lortzea izatea, ala, per-
tsonalki ikusita behintzat, burruka global

bat eramatea.

Itsua, integratzeko, heziketa integrala behar du, gero, beste pertsona "normalekin" harreman normalak erabiltzeko. Heziketa integral hori nondik pasatzen den? ba, bueno, familiaren kontzientziazio batetik, auzokoen kontzientziazio batetik eta abar. Begira, adibide bat jarriko dizuet: ni txikia nintzanean eta nire osabak joaten zirenean gure etxera, nire anaiak gatik galdetzen zutenean, normal galdetzen zuten, baina nigatik galdetzen zutenean, beti esaten zuten **gaixoa, giza**joa edo holako zeozer. Nik uste dut, horrelako gauzak horrela jarraitzen du-

te bitartean, ez dagoela bestelako soluziorik lortzerik. Hori konpontzen ez den bitartean, bestelako soluzioak faltsuak izango dira.

BAZTERTUEN MAILAK

ANAI.- Sarritan erabiltzen da gaurregun marginatu edo baztertu hitza. Baina berdin da elbarria, itsua ala homosexuala izatea?

MANU.- Bai, eta ez hori bakarrik, nire ustez, marginazio-problema ez da elbarrituena, itsuena, homosexualena, alkoholikoena eta beste hainbestena baka-

rrik, berdin-berdin da emakumeena edo langileen problema.

Gizarte zatitu batean bizi gara, eta gizarte zatitu hortan orain arte politikoez heuren analisisetan bi zati erabili dituzte: burgesia eta langileria, baina langileriak ere, burgesiaren eskemak beretzat bezala hartuz heziketaren bidez eta abar, bere tartean ere zatiketak egin ditu, eta zatiketa horik zer dira? ba, emakumea zapaltzea, baina emakumea, homosexualak, itsuak edo beste marginatuen gainetik kontsideratuz, komosexuala elbarrituen gainetik kontsideratuz, beso bat falta zaiona itsuaren gainetik kontsideratuz eta itsua, buruko edozein problema duen baten gainetik kontsideratuz. Beraz, ez da hain problema asilatu bat, filosofia baten azken funtsezko problema baizik. Besterik ez da.

ANAI.- Beraz, zuen problematikak politika-loturak ditu?

MANU.- Nahiko garbiak ene ustez. Edozein gizarte kapitalistak ezin diezazkioke honi soluziorik eman. Zergatik? Kapitalismoak daraman filosofia politikoa eta filosofia morala direlako problema hau sortzen dituztenak. Aldaketa benetan iraultzaile bat ez baldin badago eta egoten ez den bitartean, ezin da problema hau kualitatiboki soluzionatu.

INFORMAZIO - PROBLEMA

ANAI.- Zure filosofia politikoa egiteko, egunean egoteko, partidu politiko bakoitzaren programa ezagutzeko eta abar, informazioa ezinbestekoa da. Zuk zelan lortzen duzu informazio hori?

MANU.- Guk, informazioa lortzeko ahalgin bereziak egin behar izaten ditugu. Ni Ataungoa naiz, eta lagunekin hitz eginez eta gauzak irakurriz, planfletoak diskuituz eta abar zerbait lortzen da. Ni beti izan naiz politika zalea. Niretzat politika oso gauza elementala izan da; hamar urte nituela nire anaia exiliatu egin zen, eta planteatu beharra izan nuen politika zer den, zein diren onak eta zein ez, eta horrelako planteamentu elementalak. Hortik hasi zen nire kezamina.


Gero, orduak eta orduak pasatu izan ditut irratia entzuten, egunean 8 eta 9 ordu, onda-kortako emisorak eta, ongi ezagutzen nituen; esan liteke, entzule espezialista bat nintzela. Itsuontzat, irratia; oso inportantea da, ia ia mudurako dugun lehiobakarra.

Eta informazio idatzia, lagun bidez lortzen dut, batari esan eta besteari esan eta honela, jendeari paliza emanez.

EUSKARA

ANAI.- Ikusten dugunetik, euskara aberatsa eta landua duzu, ez da etxekoa. Nola lortu duzu?

MANU.- Ez, ez, ez, hori gezurra da. Begira, nire kezkarik handiena momentu honetan horixe da. Nire heziketa intelektual guztia erdaraz izan da, eta gauzak nahi nukeen bezala idazteko euskaraz, oztopo handiak aurkitzen ditut.



BILBOKO KONTZEJALA

ANAI.- Zu laster, HB-ren partetik zinegotzi edo kontzejal moduan sartuko zara Bilbo Udalean. Jende askok, zu zerrendetan sartzea marginatuen botua lortzeko maniobra politiko hutsa izan dela uste du. Zer beritzozu horri?

MANU.- Hori pentsatzea naiko normala da, baina bi gauza esango dizuet. Bata da, nik Herri Batasuna bezala eta itsu bezala eta baztertu bezala ez nuela kanpaina handirik egin, eta beste aldetik, zer esango nizueke, hori pentsatzen duenari ez dagoela oraindano arrazoiz berezirik ematerik. Nik uste dut, kontzejal bezala egin nezakeela lana, eta espero dut beste edozeinek bezala egitea. Nire asmoa, hemendik bi urtetara demostratzea da, eta beste edozein pertsonak bezala neutre opzio politikoa hartu dudala eta opzio politikoa hortan, nik lan interesgarria egin nezakeela uste izan dutela. Nik ikuspegi berezia dut esperientzi konkretu bat bizi izan dudalako, eta neutre esperientzia bizi izan bezala neutre perspektiba politikoak ez dira pertsona normal batenak bezalakoak, eta gauza beste era batera ikusten dut.

Niretzat hori da lanik handiena. Baztertuen problema eta iraultzailearena eta langileriaarena, azkenean problema berbera direla demostratzea, eta nire eginkizuna momentu honetan zera da: analisi iraultzaile batean, gizarte honetako edozein sektoreren problematika analizatu ahal izatea. Explikatuko naiz. Nik uste, orain arte, edozein analisisan hirulau sektore erabili izan direla bakarrik, burgesia edo langileria edo emakumea eta azken urteotan, nahi baldin baduzue, baita homosexualen problema ere, baina beste hainbat sektore daude orain arte analisi iraultzailetik kanpora gelditu izan direnak, eta nik demostratu nahi dut, ezin dela egon inongo transformazio iraultzailetik ez baldin bada

hartzen sektore guztien problematika, eta ezin badugu batu hori dena analisi berean.

BAINA, ZER EGINGO DU ITSU BATEK?

ANAI.- Lanean hasten zarenean, kontzejalen batek ez zaitu hartuko gauza folkloriko bat bezala?

MANU.- Ez kontzejalek bakarrik, jende gehienak!, eta ez jende gehienak bakarrik, oraindik gehiago esango dizut, Herri Batasuneko jende gehienak baita ere: ni konziente naiz horretaz, zeharo konziente. Nik uste dut, % 90ek pentsatzen dutela: baina, zer egingo du itsu batek Udaletxean? Nire lehengo lana horixe da, demostrazio bat ematea, baietz! nirekin ados egongo direla edo edo ez direla egongo, baina nik lan on bat egin dezakedala. Orduan, niretzat garrantzi handia du kontzejala izateak, baztertu guztien espilua izango naizelako momentu honetan. Ardura handia dut, nire obligazioa ispilu ona izatea delako.

INTERESEN PROBLEMA

ANAI.- Nola ikusten duzu gaurregun Bilboko Udaletxearen egoera? Egin daiteke lanik?

MANU.- Udaletxean lan egiteko bi era garbi ikusten ditut, bata, Udaletxeko gestioan lan egitea, eta beste, Udaletxeko ordezkaritza aprobetxatu auzo-elkarreetan eta edozein elkarte herrikoietan lan egiteko. Nire ustez, aurreneko bidea erabat itxita dago; ez dago Udaletxean gestio positiborik egiterik, eta orduan, Herri Batasunaren lana udaletxean, gaurregunean, herriaren abotsa izatea da.

Gaurko problema hau da: PNV-k, burruka politikoa PNV eta HB-ren artean dagoela demostratu nahi digula, elite poliko batzuren artean, eta HB-ren lana hori ezetzatzea da eta gaurregun Bilbon PNV herriaren interesen kontra ari dela

egiten lana. Eta hori nola demostratu? ba, zenbat eta HB-k auzoen problematika eta baztertuen problematika eta sektore konkretuen problematika gehiago erosotu, eta orduan, sektore hoiek hobeto ikusiko dute ez dela HB eta PNV-ren arteko problema, baizik eta interes konkretu batzuren problema.

OPORTUNISMOA APROBETXATU

ANAI.- Gu orain zuregana etortzea elkarrizketa hau egitera, oportunitatea dela uste duzu?

MANU.- Ba, begira, ez dezaket hori esan, zeren orain dela sei hilabete edo, ANAITASUNAKO batek esan zidan elkarrizketa bat nahi zidala egin, eta gero ez dakit zer pasa den, eta gero zuek deitu didazue eta hemen gaude. Baina ni horretaz erabateko konziente naiz. Ni kontzejal atera nintzenean Radio Nacionaletik deitu zidaten, EFE-tik ere bai, eta baita Lecturas-etik ere. Eta orduan nik planteatu nuen eta esan nuen: zer da hobeago?, zer egin behar du?, ezetz esan hori oportunitate hutsa dela eta, eta ez dela azken funtsean paternalismoaren bidea segitzea baizik, ala aukera aprobetxatu erakuspen progresista bat eramateko.

teko. Eta nik egia esan behar dut, Lecturas-en zidaten elkarrizketarekin gustura nago, hemengo zenbait egunkaritan baino hobeto atera da.

ANAI.- Eta gainera Lecturas, ANAITASUNA baino askotaz jende gehiagok irakurtzen du.

MANU.- Kazetariak esan zidan, astero 800.000 ale ateratzen dutela, eta hori garbi ikusi dut: orain kaletik pasatzen naizenean, jende guztiak, **hombre, te vi el otro día en la entrevista**, eta ez dakit, zer baina egunero 10 edo 20 kasu.

ANAI.- Apurtxo bat molestoa ere izango da, ez da?

MANU.- Bueno, gu horretan ohituta gaude, zeren nola itsu bat kalean joatea ez den gauza normala eta jendeak komentatu egin behar duen, ba, berdin zait esatea **pobrecito ciego** edo le vi el otro día en la revista, **berdin-berdin zait, jendea ez delako isiltzen**.

Gauza luzatzen zihoan eta amaitu beharrean aurkitu ginen, nahiz eta hainbat gauza gelditu oraindano airean.

Manu-ren ikuspegi orokorra ematen saiatu gara eta agian lortu dugu; pena da bere hitz egiteko era lasaia, hitzak neurtuz eta zerbait esan aurretik gauzak ondo pentsatuz, transkribatze ezina izatea. Behin baino ez zuen apurtu elkarrizketa osoan bere hizkera hau: bere euskara landua zela esan genionean; aserretu egin zitzaigun. Ikusten denetik, ez du nahi inork jaboirik pasatzerik ala merezi ez duen lorarik botatzerik (gure ustez lora hori merezi zuenarren), baina berdin aserretzen da jendearen minusbalazioaren aurrean. Bakoitzari berea, ez errukirik ez mesprezurik" dela esango genuke Manu-ren ikurra.

Itsaso eta Harkaitz



BERTSO BERRIAK DESPELOTEARI

(doinua: esnesaltzailearena)

Bertso hauen bitartez
azaltzera noa
zer den nudismoa
gosea ez ote da
nonbait motiboa?
uda datorkigu ta
horrekin beroa
horrela berotzen da
ingurugiroa
berotzen ez dena da
betiko leloa (bis)

Nudismo horrekin gaur
hondartza bete da
noa ikustera
jendea handik dabil
piztien antzera
zakila dago gora
ta titia bera
urtuko litzateke
han Luzifer bera
kanpo ta barrukoa
dena da batera.

Jendea bildua da
hemen ehundaka
guzkiok saltaka
kendu dute gona ta
kende dute praka
ez zaie axola, ez,
gaueko enbata
eta berbetan dagoz
bi-hiru-launaka
jendea pozik dabil
lotsarik ez da ta (bis)


Ni ez nago oituta
ba dinot benetan
ez nago brometan
horkoa ikusita
gorputza dut ketan
honetaz ez zidaten
aipatu umetan
baina abantaila bat
da gauza honetan
eguzkia sartzen da
leku guztietan (bis)

Ilun dagon tokira
gu sarritan goaz
argia emonaz
gauzak ikasten dira
eindako aprobaz
praktika gabe ez da
teoria inolaz
haizeak hondartzako
hareak daroaz
hortxe ikasi ditut
makina bat jolas. (bis)

Nudismoa ba dago
gaur hainbat herritan
asko ta sarritan
jendea pozik dago
arazo berritan
behin ikusi ezker
ba dator birritan
horregatik dinotsut
zinez ta egitan
zu be zatoz jartzera
hor larru gorritan. (bis)

Sastraka

JARRIAK



FORUAREN HOBEEKUNTZAZ

"Navarra se vió en la alternativa de incumplir el mandato regio, aceptando la unidad constitucional ó de aparecer rebelde al trono de la reina, sufriendo las consecuencias de la resistencia".

(Pablo Ibarregui)

Zer izan den eta zer izan daitekeen "Foruen Hobekuntza" konprenitzeko jo beharra dugu Hobekuntza hau finkaturik daukan oinarrietara, Nafarroako foru arauetara hain zuzen.

Horregatik uste dut ezinbestekoa dela Pablo Ibarregui joan den mendean izkiriaturako hitzok hemen aipatzea. Horrela idazten zuenak jakin ba zekien ongi, Nafarroako erresumaren independentzia hiltzera kondenaturik zegoela. Handik oso epe motzera Nafarroaren independentzia foralatasuna bilakatuko zen, Espainiako probintzia bati zegokion edo legokioken foralatasunarekin. Horixe bera foralatasuna, aur/hobetzen/saiatzen den berbera.

Eta ezinbestekoa da aipamena, ageri agerian erakusten baitigu Espainiako Estatuak Nafarroari eta bere gobernamendu apartekoari eman dioten begiramenduak kontura gaitezen. Zer nolako "hitzarmenez" ari garen objektiboki jakin dezagun eta hitz batez esateko, zein noble, jator eta errespetagarri izan zen "paktu" horren oinarri eta funtsa zeinen bidez, Espainiako Elkartearen sartu baikinuduzten.

Baina nola erreazionatu zuten gure jauntxoek tamainiako paktu horren aurrean?

Nola erantzun zioten xantaiari?

Honi erantzuteko beharrezkoa dugu orduko (1834) egoera nolabait ikustea. Nafarreak behienek gerrari eta ondorioz gerraren garaipenari jo eta ke zebilkioten baina bitartean Iruñea era liberalek hartuta, karlistekumeei haiek inosatzat zizkioten politikoak eta politika bera.


Egoera horretan egoten zirelarik, Ibarregui beraren beste aipamen batek erakutsiko digu herri-borondatearen usurpatzaileei zegozkien esmoez: "Temiendo no obstante la Diputación local que al perder Navarra su independencia o su autonomía política perdiera también los capitales que gravitaban sobre su vida pública".

... "La Diputación debe prevenir para el caso de que el cambio en lo legal sea anuncio de un cambio absoluto en la parte, ponga el remedio que por necesidad y justicia debiera aplicarse a sus acreedores".

Kasu beraz!: Herriaren nortasuna galtzearagoelarik, bidezkoa eta zuzena ez da nortasunari begiratzea, MEREZIENTEEN ONDAREASUNARI BAIKIZIK. Jakina! merezientek eta diputatuok ez ziren jornalariak. Nortzu ditugu merezientek?: Burjeseria; sortzen ari zen burjesiaren mandatariak eta dakigunez delakoei edura zitzairen gauza bakarra beren klase interesak defendatzea eta arrisku guztiez babestea.

Eta delako interesok arriskutan zeudelarik, Herriaren betidaniko nortasunaren kontra erasotzea erabakitzen dute Estatu Zentralea asetzeko itxaropenean. Ez da kasualitatea mende honetan egin zen "Herri-mobilizapen" bakarra zelako interesez oinarrituta zegoen ikustaraztea. Gamazadaren foralatasuna defendatzea erabaki zuten baina foralatasun horrek ez zuen deus egin euskararen alde, kulturaren alde, herri-hezkuntza eta osasungintzaren alde. Ez zuen ukitu nahi Nafarroan zeuden azpiegitura feodalak. Gamazadaren helburu bakarra, zera zen orduan: Subiranotasun fiskala defendatzea eta honen bidez klase interesek ematen zizkieten mozkinak gordetzea: Beren buruei subentzioak eta salbuespenak eman eta bitartean herri xumea, zerga eta taseen pisua medio zela, zapaltzea. Eta modu honetaz jokatu dute Nafarroaren defendatzaile horiek gure historian zehar. Mugak Ebrotik Piriniotara aldatzeko proiektua mila bider eraman zuten Gortearen aurrean eta Gorteak ezetz erantzuten zielarik erresuma bera deuseztatzea erabaki zuten. Leringo Kuntearen antzera. Hark bere titulu eta ondareak arriskutan ikusi zituenean nahiago izan zuen Nafarroa saltzea.


Horregatik hain zuen, burjabetasuna galdu genuen eta "Hobekuntza" edo gaizkikuntza horren bidez, Espainiako probintzia bilakatu ere bai. Baina hala ere, ezin konpreni daiteke osorik gaur eguneko Hobekuntza hau, arazoren beste atalari begiratzen ez badiogu: Ba dugu beraz, Nafarroa forala eta espainola baina zer gerta dakioke Nafarroako euskaldunatasunari? Zer du ikusirik horrekin Hobekuntzak?. Erantzuna oso argi dago: Forua sorrera-



tik gaizkiagotzen hasi zela bistan dago. Froga hortxe dugu: Mendien arazoak (1859. urtean jadanik), Gamazada, etc., etc. Gaizkikuntza honek ez zituen kezkatu meneratzaileak eta zapaltzaileak, aitzitik.

Bistan dago, beren interesak arriskutan ikusten dituztelarik prest egoten direla beti Nafarroaren burjabetasuna bera deuseztatzeko. Froga ona hortaz, XX. mendean zehar egin diren kontraforukeria eta uzkeria.

Baina uzkeri honek halaber, euskal naziotasunaren espiritua lortu du Nafarroan eta baita Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan ere. Delako



espirituak sortu duen ondorio logikoena bertantxe dugu: Euskal Elkarte politiko bat sortu nahia eta beronen bidez, Nafarroako jauntxo eta notableen pribilegioak murriztu eta deuseztatzea, Estatu erdirakoari lotu loturik egonez, boterea beren esku bakarretan egon baita.

Eta hori berori da burjeseria honen kezka bakarra. "Hobekuntza" ari badira une hone-tan "peligro separatista"-ri esker zor zaigu. Hau da, boterea beren eskuetatik kanpo eror ez dadin, ahalegin guztiak prestatu "Hobekuntza" dela medio.

Jadanik 1918.ko Abenduaren 30ean Nafarroako Jauregian udal biltzarre orokorra bildurik zegoelarik, Nafarroaren nortasuna berre-raiki behar zela proklamatu zuten aho batez.

Era berean, 1839.ko foruen kontrako legea deuseztatu behar zela adierazi zuten biltzarkideok. Uste dut delako hau kontutan hartzekoa dela, gure oraingoek zenbat puntu edo hobe zenbat praka eta zenbatetaraino jeitsi duten ohar gaitezen. 1918.hartan jakina, euskal naziotasunaren sentipena nahiko zabal zegoen baina arriskua behin iraganda, ez zen berriro mintza gauza horietaz, 1933.erarte hain zuzen, nahiz eta "Hobekuntza" baino, gaizkikuntzak gainera hartu.

1933.urtean beste mamu bat agertzen zaie betiko HOBENDUNEi: Euskal Estatutuaren mamua. Beti bezala, pausatuta egingo da Nafarroan zehar HOBENDUN eta gaizkile horien desioa: Pribilegioak gordetzea. Eta burutu egin zitzaizkien askotan entzundako leloa: ESTATU-

TUA EZ, FORUAK BAI. Baina arriskua berez alde egiten ez zitzaizenez, Franco eta Molarekin batera konplotatu zuten pribilegioak gordetzen segitzeko.

Betidaniko foruzale hauek "garaipen heroiko" hura izan arren, ahaztu egin ziren berehala betidaniko hobekuntzaz eta gertatu egin zituzten beren buruak betidaniko mozkinen bidez bizitzeko. Alkate foruzale hark zioenez: "Mi elección no la debo a los cazurros de mi pueblo sino a la designación de la cultura del Sr. Gobernador".

Benetako esaldi antologiko eta surrealista. Are gehiago kontsideratzen bada delako alkate hau gaur egunotan alkatea ere dela eta bere alkatesuna horretatik demokraziari buruzko hitzaldi eta lekzio ugari ematen digula lasai eta patxadaz.

Berrogei urte iraundu du diktadurak eta behinik behin ere ez dira foruzaleak altxatu foruen bihurpenaren alde. Kontrakoa egin, hori bai, mila aldiz egin dute. Orain ordea, Euskal Herriaren egia alde guztietatik zabaltzen delarik, betidanikoari buruz hasi dira: Foruaren Hobekuntzaz. Estatu ez, Foruak bai. Hori da hain zuzen, foru horien jatorria eta beren desobekuntzaren historia. Francoren heriotzarekin batera, "Betidaniko arriskua" bersotzen zaie.

Euskal sena eta sentipena Nafarroatik kentzeko ahalegin guztiak porrot egin dute eta sentipen hau indar osoan bizitu eta nabaritzen dugu gaur egunotan. Honen aurrean Diputazioaren lehengo kontraekintzak ez zuten luzaro itxaron. 1977.ko Abuztuak 20 duela, informe berezi bat eskatzen dio Diputaziok Nafar eskubideen Ikasketa Batzordeari. Delako informe horretan, zeintzu diren eta izan diren funtsezko arazoak Berreskuratze osoa lortzeko galde-tzen dio; hau da, burjabetasuna edo independentzia osoa zertan oinarritzen den jakin gura du Amadeo Marcok. Benetan gehiegikeria. Ba dago beste antz bide eta medio, euskaldunak zatikatzen eta erdibanatzen segitzeko. Horregatik Ikasketa Batzordearen erantzuna erabatekoa da:

1º.- Hay que hablar de Reintegración Foral deseable a conseguir mediante una interpretación razonable y congruente de la ley Paccionada de 1841.

2º.- Nada de veleidades democráticas. La Diputación debe seguir concentrando todo el Poder. A lo máximo puede funcionar un órgano consultivo con alguna función deliberativa si la Diputación lo cree conveniente para algún caso concreto.

3º.- Nada de mezclarse con alguna otra región.

4º.- En cualquier caso el momento no es oportuno para reformas de la ley de 1841.

Susto ederra hartu zuen gure Amadeo anal-fabetok zer eskatzen egon zen konturatu zenean. Horretarako ba dago hainbat jakintsu eta haietako batek ardura hartu zuen esplikatzen. Ikasketa Batzordearen erabakia, duda izpirik gabe, onartu zuten parlamentuan. Baina hone-tan azterten gaudelarik, interesgarria topa-tzen dugu honi berari buruz Del Burgo-k eduki zuen jarrera berezia. Interesgarria, zeren eta

gonbaraketak atera baitaitezke geroago. Jarre-ra berezi horri buruz honela mintzo zen orduar Del Burgo: "Lo importante es que la reintegración foral se lleve a cabo de forma paccionada y sin que se derive de la Constitución del Estado".

"Es evidente que no puede abordarse un planteamiento global de la cuestión mientras no se defina en la futura Constitución Española el marco autonómico, es decir, mientras no se concreten las funciones y competencias que el Estado está dispuesto a transferir a los poderes regionales".

Bistan dago bi esaldi horien artean dagoen aldrebesa baina gobernamentu foralari eta bere etorkizunari dagozkien oinarriko arazoak azaltzen dira: Jatorria eta oinarri politikoak. Konkretatze praktikoa eta Autonomi Estatueki-ko harremana.

Amadeori joan egin zitzaion ikara eta Madrilen "rupturaren" aldeko nahikeriak ahitu ziren. Etorri egin zen berriro burjeseriaren zentzutasuna zeinek nahi du esan behar baitela aldatu derrigorrezkoa, ez oster beharrezkoa, deue-re alda ez dadin. Horrela publikatu egin zen nafar orri ofizialean hiru erret lege. "R.D.L. nº 1/78-a, R.D.L. nº 2/78-a eta azkenez R.D.L. 121/79-a. Azken honek 1841.ean "paktatu omen zen egoera juridikoari aldaketa sakon egiten dio. Ezein Herri-Kontsultarik gabe, indarrean sartu zuen azken Diputazio frankista eta Suarez-en Gobernuak. Erret-lege honen hiru atalak apagarriak dira. Delakoetan Nafarroako oinarri juridikoa zein den azaltzen du eta gobernamentu forala indarrean sartzeko Herr kontsultarik ez da aipatzen bertan. Nafarroa d beraz, Herriaren borondaterik eskatzen ez de Erkidego bakarra. Baina argi dago. Indarrea dauden legeek ez dute helburu Nafarroan borondatea berrezagutzea. Indarrean dauden lege hauen helburu bakarra zera da: Euskal Batasuna eragozte. Erabakitako erreferendum bakarra 2/78.ko Arret-legeak ematen duena da. Baina praktikan jartzeko, altxatu dituzten tramankulu guztiak lehenengoz porrot egin behar dute, Parlamentuak euskal batasuna eskatze an. Foruzale guztien zoritxarrerako, delako lege eta eragozpen hauek ezin debeka dezaket euskal naziotasunaren sentipena gorantz joan dadila Nafarroan barna eta hor horretan jand daude aspaldian. Saiatu, saiutzen dira eta horregatik lortu nahi dute, aintzina bezala "gure Foruen Hobekuntza".

Zein izanen den prozedura guzti-honen ondorio zehatz eta iraunkor ezin asegura daiteke zientifikoki baina historiaren aldetik egon de aintzindari eta betikoan aldetik edukit dute portaera jakinda, ez da izan behar belagile famatua. Lasaikiro, ondorengo bi baiezkio hauek bota ditzakegu:

a) 1841.tik hona Nafarroak eduki duen jatorrizko eta aparteko gobernamentu foralaren antza ere desagertuko du Hobekuntzak.

b) Hobekuntza horretatik aterako den gobernamentua Estatuko edozein Erkidego autonomoaren estatutu bezala izanen da. Nahiz eta izena aldatu.

FORUAREN HOBEEKUNTZAZ

Aspaldian hasi omen dira, Madrilen noski, Nafar foruen hobekuntzarako negoziaketak. Triste ba da ere gure "viejo" Reyno-ren sistema forala, burujabetza, Madrilen negoziatzea, tristeago da inor ez dela jabetzen han egosten denaz. Dirudienez negoziatzaileei ez zaie gehiegi kezkatzen nafar herriari informatzea.

BATZORDE NEGOZIATZAILE BATEN HISTORIA

Hainbeste garrantzi haundiko negoziaketa bat egiteko Espafiako gobernu eta Nafarroako Diputazioa artean bi batzorde negoziatzaile sortu ziren. Gobernuarenaz ez dugu asko esatekorik, bertan Martin Villa dago eta nahiko ezaguna dugu. Diputazioaren batzordea hauta-zerakoan sortu ziren lehenbiziko istriuak. Orain arte honelako negoziaketak Diputazio osoaren ardurapean zeuden, baina oraingo tirabira diputatu abertzaleak kanporatzea izan zen. Ez da kome-nigarri Madrigo gobernuarekin negoziatu eta batzorde berean Euskal konzientzia daukatenak euki. Ez zen zaila akordio batetara heltzea. Denek zeuka-ren zerbait irabazteko. UCDren sector criticoak lortu zuen Del Burgo eta Aber-zaleak batzordearen kanpoan uztea. PSOEk bere representapena haunditu zuen eta UPN sartu zen batzordean nahiz eta ez euki diputaturik. Jesus bueno, Amayurkoa, eta Garcia de Dios bazter-uak izan dira, Batzordea Eskuindarren eskuetan geratuz, UCD 5, PSOE, 2 eta JPN 1. Oso argi ikus dezakegu zein den PSOEren jokabidea eta zeintzu beren intereseak.

JCD NEGOZIAKETA BI BANDATAN

Esaten badugu Nafar foruak UCDren eskuetan daudela ez da harritzeko, JCDk Madrilen edo Nafarroan interes berbera baitu. Dena hau gutxi izango balitz eta "23 F"aren golpearean ondorio bezala, Jaime Ignacio del Burgo bere "protagonismoa" berreskuratut du. Sus-nagarriak izan dira, azken negoziaketak bukatuz gero, Martin Villa eta Del Burgo arteko elkarriketak.

ONDORIOAK

Ondorioak garrantzi haundikoak izan daitezke; denok dakigu estatuto bas-congadoo egin gero, hemen Nafar gobernu bat sortuko dela, nafar hazienda, telenavarra eta abar... hitz gutxitan orain Euskal Herrian daukagun harresia haundiago izanen dugula.

Bestaldetik libre sortu ziren foruak, Euskal Herri guztietako foruak, konztitu-ziopean jarri behar dira. Ezin da gaingitu ere beste Estatutoen mugak, zeren eta Gobernuak ez du onhartuko bereiztazu-nik beste lurralde autonomikoen exenplu bezala. Laburki, UCD, UPN eta PSOE ren kontsensuari esker, negoziaketa hauetan aterako dena autonomia arrun-ta bat izanen da. Gero TVE, Diario de Navarra, eta abar saiatuko dira produk-toa saltzen, irakaskintza forala, gobernu forala, teleNavarra eta abar. Eta garran-titsuene Euskal Herria zatikan, Iparralde, Vascongadak eta Nafarroa.

ETORKIZUNA ZER EGIN

Oraindik ez dakigu nola bukatuko den ipuin hau, hala ere ez da oso zaila buru-tatzea. Bitartean, herria, erakunde eta alderdi politikoak lotan daude. Edo be-hintzat hala dirudi.

Batzorde negoziatzaile izenatu ze-nean EE., LKI eta PT saiatu ziren kan-paina bat egiten; alferrik ez baitute egiazko pisu bat Nafarroan.

Beste batzuk esaten dute "foruen ho-bekuntza" ez dela deus konponduko, arazoa jarraituko dela eta borroka ere jarraituko duela. Haienzat ateraldia ne-goziaketan dago eta konkretuki "Hiru-garren bidean".

HB, dirudienez itxoiten ari da nego-ziaketeen bukaera, ikusteko eta Kon-zientze-kanpaina bat antolatzeko. Gure ustez, erantzun gogor eta bateratu bat eman behar genuke, denbora zaharren metodoak berreskuratuz, hau da, lantoki, hauzo eta herrietan jendea informa-tzen jokatzen dugunaz.

Juanjo Iturralde

BERTSO BERRIAK BILBORI JARRIAK

Halako egun batean, edo gau batean behar bada, afalostean zihur aski, beroak jo gintuen eta Bilbori Bertso Berriak jartzea pentsatu genuen. Baina ez bakarrik jarri, kantatu ere bai, kantatu ahalá saldaz eta saldu ahalá kantatuz (inork erosiko balu behintzat) aintzina ohitura zen bezala.

Ale guztiak ez ziren agortu. Gelditzen zaizkigunotatik bidaltzen dizuegu.

Bilbo hiria gaitzat hartuta hiru lau bat bertso berri
Lasa ta Aurrek jarri dituzte hitza emanda elkarri.
Domoka goizez, ohitura den lez, Plaza Berrira etorri
hemien ez dugu inor jango ta umeak ere ekarri.

Gauzak erosi nahi badituzu' oso da kontu erreza
Bilboko denda erosbena hor dago Corte Inglesa.
Apain jantzita irteango zara nahiz eta izan iraketsa
urte guztiko koxak uzteko ez da leku aldrebesa.

Bilboko diru zaharrak: AFINATU DITZAGUN
izar zuen sona arpa ta gitarrak
ez zen gero bromá! agur bilbotarrak!
bain aldatuz doa hona ekarri gaitu
lehenagotik hona. aurretik Iparrak.
Estatusuak jo du Xanninia haundiok
agintzen zegoen ikutizen izarak
txaketa aldatzeko aberatsen fabore
prest dugu gizona, pizturi su-garrak
kaiku saltzaileentzat noraino heltzeri dira
negozio ona. Bilboko indarrak?

Agintari bagina hau gure ordéna
ere Bilbo dena!
inork ez luke izango galtzearen pena.
Etxe gabe bilutsik lu gorri gardena bertan egingo dugu
herri ederrena Nafaroren legeek dezaten goberna.

Iñaki eta Jonel.

18.000 Km. EUSKARA IKASTEKO

Kaliforniako Santa Klara Unibertsitatean Hizkuntza Modernoer Katedratika den Gloria Kastexanak 18.000 Km. egin du Ulibarri Euskaltegiak Arantzazun gertatu dituen ikastaroetara agertzeko.

- G.K.: Nere benetako hizkuntza propioa ikasteko ordua zela uste dut. Denporaldi luzeak eman ditut hemendik kanpo, bai Afrikan eta Ameriketean hainbat mintzaera ikasirik, baina oraindik ez dut ikasi neurea. Hau dela eta internatura etorri naiz euskara ikastero beste zeregin guztiak albo batetara utzirik.

- Baina zergatik etorri zara ikastaroa hasi aurretik?


- G.K.: Urte bi direla, Ameriketako Unibertsitatean irakasle ginen zazpik "Society of Basque Studies in America" taldea sortu genuen, hau (USAn) bizi diren euskaldunek jartzen zituzten beharrei erantzuteko. Talde honek 1982.eko Abuztuan Euskaralogoen Nazioarteko Kongreso bat antolatu nahi du Kaliforniako Fresno herrian. Nire betekizuna kasu honetan Euskal Herriko banku eta gainerako entitate komentzialekin hartuemanetan jartzea litzateke, horrexegatik etorri naiz aurretik.

- Zuk zuzentzen duzun elkarte honek zer egiten du kongreso honez gainera?

- G.K.: Denetatik egiten dugu. Dantza taldeak sortzen ditugu, "Picnic" egitera joaten gara kanta eta dantzatzeko. Frantsezez, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz idatziriko aldizkaritxo bat ateratzen dugu. Indianan euskal gai ez espezializaturik dagoan liburutegi bat jarri dugu martxan. Gaurko lanik kandiena Ameriketako Unibertsitatean dauden Euskara Sailak ofizialki onarturik egon daitezen egiten dugu, bestalde Euskara Saila hori ez duten Unibertsitateetan jartzea eskatzen dugu. Datorren urteari begira beste lan bat prestatzen ari gara, kasu honetan Ulibarri Euskaltegiarekin gaude elkarriketetan hango 100 ikasle hemengo beste 100 ikasleen etxeetara etorteko, haiak euskara sakontzeko eta trukean, berbera hemengo ikasleekin ingelesera ikas dezaten hango etxeetan.

- Zer nolako harrera izaten dute lanok Estatu Batuetan?

- G.K.: Estatu Batuak nahiko handi direla esan behar dugu, baina halan eta guztiz ere harrera herrikoia oso ona izan dela esan behar. Kasureko "I'M PROUD TO BE BASQUE" ("Euskaldun izatearren



arro naiz") "idatzirik daramaten plakek oso harrera ona izan dute azkenaldi honetan.

- Amaitzeko, lehen aipa elkarte honen erlazioetan aritzea nahi duten guztiek nora jo behar dute?

- G.K.: Helbide honetara: SOCIETY OF BASQUE STUDIES IN AMERICA

P.O. BOX 13212-FRESNO, CALIFORNIA 93796.

Aipa zuzenbide honetan gaude gurekin harremanetan jartzea nahi duten guztientzat. Lanak geuk bakarrik egitea ez da asmoa, baizik eta Ameriketean dauden euskaldunen enbaxadore izatea.



EUSKARA IKASTEKO 18.000 Km.

LA PAZ: GATAZKA HANDIKO AUZOA

Igaro Martxoaren 7an Donostiako Gros auzoan dagoen Aurrezki Kutxa lapurtu ondoren mutil bat bahitzen zuten poliziek. Komisaldegira eraman ondoren dirua droga erosteko behar zuela azaldu zien. La Paz auzokoa zen eta hamabost urte zituen.

Trintxerpe alboan eta Ulia mendiaren magalean kokaturik dago La Paz etxe multzoa, hots, Donostiatik 2 Km. tara. Azkenaldi honetan hazkunde izugarria azagutu du 10.000 edo 15.000 biztanle dituelarik, haietariko gehienak haur eta gazte direla. Biztanleen kopurua hazten zen bitartean beste arazo bat agertzen zen, gazte delinkuentzia eta beronekin batera drogarena ere bai.

Gaur egun kinki eta lapurren auzoaz azagutzen du jenderik gehienak. Egia esan, toki honetan aski ezagunak dira hogako ekintzak (motorren, lapurketak, pisuena eta abar, bai auzoaren barruan bai kanpoan), baina fenomeno hau ez da sortzen ezeretatik.

La Paz auzo hau 1962. urtean eraiki zen Etxebizitza Ministeritzaren gainbegiradaz eta "Etxebizitzarako Arau Orokorrak" esaten zuenari begira. Etxeak eragiteko "urralde"en jaubeak expropiatuak izan ziren eta etxebizitzak egin ondoren haien jabe goa "Obra sindical del Hogar" horren eskuetara joan zen.

Eraikitzea 1965.ean hasi zen 1974.era arte amaiturik egon ez dela. Egun dauden etxeak honelako hauexeez dira: 12 bloke eta 8 dorre, lehenek 60 eta bigarrenek 80 etxebizitza dituztelarik. Ikus daitekeenez dagoan masifikazioa izugarria da.

Etxebizitzak, lehenak behintzat, Donostiako bariantea egin zeneko expropiatuei eraman zitzaizkien. Jende honen ekonomia



egoera nahiko larria zen, txaboletan bizi ziren eta.

Bestalde batetik La Paz auzo berri honetara etorri ziren gehienak etorkinak direla esan behar dugu; Kastila, Galizia eta Extremaduratik etorriak hain zuzen. Populaziorik gehienak, ere, hamaika etxeko direla. Etxebizitzetan neurri bi ematen dira: handienak 60 m² eta txikiak 40 m². Hala eta guztiz arazorik gorriena umeek (legun osoan) kanpoan jardun behar dutela da. Gainara amarik gehienek lan egin behar dute haien senarrekina batera etxea aurrera ateratzeko eta horrela haurrak zaindurik gabe gelditzen dira denpora osoan. Faktore hauek, jakina denez, umeen egonezina eta delinkuentzia sortarazten dituzte.

Aipatu behar dugun beste konstante bat kulturala dukegu. Oso nagusi gutxi igaro dira eskolatik eta gutxiago dira lehen ikasketak bukatu dituztenak. Areago gutxiago goi mailako ikasketara heldu direnak eta ia inor unibertsitatera joan dena. Analfabetismoa edonon aurki daiteke auzo honetan, batez ere nagusiengan, nahiz eta gazteek hartzen duten irakaskintza oso pobrea izan.

O.H.O.a baktu eta gero umeek ez dute besterik ikasten etxean horretarako dirurik ez dagoelako edo gurasoek ikastean etorkizunerako irtenbiderik ikusten ez dutelako. Gainera La Paz honetan dauden ikas azpiegiturak oso eskasak dira: eskola publiko bakar bat eta instituto bat, bizi den jende guztiarentzat txit gutxi. Aipa ikastetxe hauek bete beterik aurkitzen dira, jendea piloturik eta batzuk kanpoan gelditzen direlarik. Kasureko, aipa dezagun institutuak egin behar izan duena: C.O.U.ko ikasleak nonbait sartzeko ikasgela aurrefabrikatuak lortu behar izan ditu. Ikastea erdi galerazota baldin badago lan egitea oso zaila da ere bai. Gauzak horrela daudela gazteak kalean dabilta gora eta behera denpora ematen, porroa erretzen edo injektatzen. Haien gurasoek ezin diete dirurik eman, orduan...

Gazte delinkuentziaren arazoa geroz eta larriago izan da La Paz auzoan, baina unerik gorriena 75-76. urteetan eman zen munduak ezagutu zuen krisialdiarekin batera. Krisialdi honek paroa ekarri zuen eta langabezi honek delinkuentzia gehiago erakarri zuen. Gazteek oso zaila dute heuren lehen lana aurkitzea.

Langabeziak mintzatzerakoan bakarrik arduratzen gara ekonomia arloaz, baina badago beste arlo bat. Egia esan dirurik gabe ezin erosi daiteke ezer eta lehen beharizanak bete barik gelditzen dira. Hau grabea baldin bada arlo bat besterik ez da. Beste arlo batetan lanik ez duenak jazaten duen psikologi kolpeak daitaude.

Gizartearen aurrean ezgauza ikusten duelako bere burua eta senidearen aurrean parasitotzat hartzen baitu bere burua. Arazo honek pertsonak biolentago izatera bultzatzen ditu, azkenean desiluratuta gelditzen dela eta bere izaera mingoiztuta gelditzen zaiolarik. Elkarbizitza nahastu egiten da horrela.

Gauzak horrela ikusirik, bukatu ezinezko zirkulu batetan sartzen gara: gazte delinkuentzia, droga, kultura eza, ekonomia arazoa, langabezia... Aipa faktoreok zergaiti eta ondorio dira heuren artean.

Azaltzen ari garen ekintza hauek ematen diete La Paz auzoko gazteen bizitzari zentzuna. Heurekin mintzatzean hori egitera zerk bultzatzen dituen ez dakitela esaten dizue. Ez daude ezertaz motibaturik, nagusien ematen dieten bizitzeko arauak ez dituela betetzen, berdin diotela hiltzeak ere bai. Haien ustez droga irtenbide bat litzateke beste zerbait hobetoago itxaroten duten bitartean.

Baina egoera honetan dagoen haizerik kutsatuena jendearen ezkortasuna litzateke. Bertoko jendeari galdetuz gero, ikusten duten bide bakarra zigorraren munduan ikusten dute, lehen aipa arazoak urrintzeko kartzela oso bide egokitzat aurkitzen baitute. Arazoa ulertzen ez dutenentzakoak ditugu hauek.

Beste batzuen ustez arazoak ez du inolako irtenbiderik eta gizarteak ez du aukerarik ematen arazoak konpontzeko.

Beste batzuk irtenbideak ikusten dituzte baina epe luzerako. Honeen ustez arazo osoa konponduko da erazo ekonomikoak bere azkena ezagutzen duenean.

Beste batzuk kultur talde eta etxeak egin behar direla aipatzen dute (legun ez dago bat ere ez), era honetara bertan bizi den jendea beste ekintza batzuk egin ditzaie eta arazoak konpontzen joango litzateke.

Azkenez, beste talde txiki batek hurrengo honetan dakus irtenbidea: haurrak txikitatik beste era batetara heztuz, giro deliktiboetik urrunduz, kultura haien esku jarriz, ikasteko zaletasuna haiengan sortuz... Teorikoki oso ongi dago dena, baina nola eraman hau aurrera? Egun auzoak duen egoera sozial eta ekonomikoak ez dio irtenbiderik uzten plangintza hori.

Ikus daitekeenez, La Paz auzoak duen etorkizuna nahiko beltza delakotan gaude. Dena den, gauza bat argi eta garbi ikusten da, zera: delinkuentziaren arazoa, gazteen delinkuentzia batez ere, ez dela berez sortzen, baizik eta arrazoi sakon batzuk bultzatzen dutelako.

M.A. Merino Arranz

KOMUNAN IRAKURTZEKO GAIAK

HIZKUNTZAK BATZEN ETA URRUNTZEN GAITU

Gutxi entzuten dut irratia; hala ere noizean behin jartzen dut, informazioaz aparteko programak entzuteko ere. Eta hizkuntzari dagokionez, zer pentsa ematen dit ia beti.

Ez naiz hasiko euskararen erabilkuntzazko portzentaia aipatzen, puntu hori nahiko ezaguna baita. Bestelakoa izango da oraingo irazkina. Pasa den igandeko kontu bat azalduko dut, iganderokoa hobeto esan. Bilboko Herri Irratia zen. "El tunel del tiempo en la canción sudamericana" edo horrelako zerbait zen programaren izenburua. Ez dut programaren kalitateaz edota egokitasun tekniko-musikalaz hitz egingo, alde horretatik maila interesgarrikoa zelakoan bainago. Programa horren inguruan izandako zerbait gogoeta adieraziko ditut soilik.

Hego Amerika urrun samar dago; Frantzia baino urrunago noski. Portugal baino urrunago. Ostersa, arreta eta xehetasun handiz aztertzen ari ziren bertako musikaren historia, nik entzundakoa ia ehungarren programa baitzen. Hala ere, ez dirudi Frantziako musika aztertzeko horrenbeste interesik dagoenik. Horrenbeste programarik ez, behintzat. Eta ez agian, musika hori txarrago delako, urrunago gertatzen delako baizik. Urrunago? Nola liteke urrunago gertatzea Baionatik Frantziara (edo Okzitaniara) pauso bat baino ez badago.

Askok eta luze pentsatu gabe ere, hizkuntzaren zubiaz konturatu nintzen. Hain zubi luzea ezen Ozeano Atlantiko osoa zeharkatzen duela. Bilbo Hego Amerikarekin lotzeraino, Hego Amerika Frantziara baino hurbilago jartzeraino! Horrenbesteko inlar erakarlea baitu hizkuntzak!

Eta gure arteko batzuk garrantzia kendu nahi diote hizkuntzari! Gaur egun. Euskarari, noski!

J.R. Etxebarria



GAY

Gogoratzen naiazenez, hiru alditan erabili da ANAITASUNAN homosexualitatearen gaia, behin dossier gisan, eta beste bitan EHGAMgoekin elkar ikusketan. Oraingo hontan berriro ukituko dugu, "Gay Harro-
tasunaren Eguna" laster izango baita.

Emakumeen eguna Martxoaren 8an eta Langileena Maiatzaren leian ospatzen diren moduan, Ekainaren azken asteburuan "Gay Harro-
tasunaren Eguna" ospatzen da. Aurten, 28a da, izatez, egun "ofiziala" mundu osoan, baina Euskadin alde zuretik ekin-
tza sorta bat egingo omen da. Hala nola, hitzaldi-elkarrizketak, zinea eta abar.

"Bai, gure asmoa zera da: -dio EHGAM go batek — **hilean zehar hitzaldi batzu antolatuko ditugu**. Azken orduko aldaketarik ez badago, hauxek dira prestaturik daudenak: "Nazioarteko Errepresioa"z, Ricardo Lorenzok emanda ("Homosexualidad, el asunto está caliente" liburuaren egiletariko bat); "Lege Arazoa"z, Bandresekin; "Homosexualitatea eta Erljoa"z, apaiz parroku bategi hitz egingo du; zenbait psikiatrarekin mahai inguru bat; eta "Gay mugimendurako alternatibak", EHGAM, ESAM eta Catalunya-ko erakundeetako batzu direla hizlariak.

Hontaz gainera, "Gay Zine I Maratoia" eratzekotan gaude, baina oraindik ezin dituz ezer zihurrik esan. Gero, betiko manifestapena, noski, **bera 26an, ostiralez, izango delarik.**

Aipatu dudan guztia Bilbon egingo da. Donostian ere manifestapena da eta agian zine zerbait ere".

A.- Zuen "Il Biltzarre Nagusia" egin berria duzue, ez al da?

- "Bai, Martxoan egin genuen, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako jendearekin. Gasteizkoak orain apur bat "galdurik" daudela dirudi.

Bertan, arlo homosexualen transformaketaz eztabaidatu genuen. Nola gertzen ari den burjeseria homosexual bat, bere klaseko berezitasun ideologikoekin; nola hasi den gayentzako material berezitateko prozesu kontsumista bat... Gainera, zentzu berean, argiro nabaritzen da leku hertsietan, "urrezko ghettoan", nolabaiteko tolerantzia dagoela; kalean edo leku zabaletan, aldiz, betiko errepresioa afektibitatearen adierazpenerako. Errepresio hau ez da beti izaten lege aldetikoa, jakina, herri mentalitatean moral sozial homofobiko berberak jarraitzen baitu.

Sexu askapenerako mugimenduek modernizazio burjesaren abandoardia bihurtzeko arriskua daukatela ikusi genuen. Hau da: "izan zaitez aske eta dinamiko, bota ezazu ahalik eta gehien "hauts"...". Guk, berriz, kuantitatiboaren aurrean, kualitatiboa hazi erazi behar dugu. Ondo dago askotan larrua jotzea, zergatik ez, baina interesgarria da ere harreman sexualen erdiko maila ona izatea, eta gaur egun, hemen, ez da batere ona, nahiko txarra baizik.

Askatasuna eta sexu askapena oso loturik daude. Baina ez zentzu permisibo kapitalistan ulertua, **trukeko objektutzat, pertsonaren bultzapen global bezala baino**".

A.- Zuek esaten duzue kapitalismoaren aur-



HARRROTASUNA

ka zaudetela. Zein da, orduan, sistemarik hoberena zuentzat?, sozialismoa ote?

- "Bai, bai. Baina kontuz. Argi dago gaurko familia krisi agerian aurkitzen dela. Hau ez da nahiko, bestalde, alternatiba praktikorik dagoela esateko. Ez lurralde kapitalistetan, ezta "Ekialdekoetan" ere, edo haue-tan oraindik gutxiago. Orduan? Hortxe nahi dugu orain hasi lanean. Giza harremanen sare berri bat asmatu behar dugu, sexuen banaketa (maskulinitate eta feminitate "rolak") historiaren kondakindegira jaurtikiz.

SEXUALITATE SOZIALIZATU baten alde gaude. Hau da, norberaren aurrera bidea, bizitzen den ingurugiro sozial eta naturalarekin armonia osoan.

Kontsekuenteki, beraz, sozialismoaren aukera defendatzen dugu; baina adierazi, bildu eta elkartzeko askatasunak segurtatu-kotu dituen sozialismoa; Estatuaren boterea

deskonzentzatzeko eta deserdiratzeko bi-deak sortuko dituen; gutxiengoak errespetatuko dituen... Hots, inoiz egon ez den sozialismoa.

Beno, hobeto azalduki dago atera dugun biltzarreazko txostentxoan. Norbaitek gura badu eska diezagula".

A.- Prentsan irakurri dugu Madrilen "Gay-en Topaketa batzu" izan zirela, eta baita "Internacional Gay"aren urteroko bilera. Parte hartu al duzue?

- "aurtengo I.G.A.ra" ("International Gay Asotiation") ez gara joan, dirurik ezagatik batez ere. Dena dela, eta partaide garenez, informazio osoan hartzen dugu. Ez dut uste merezi duenik zertaz aritu zen esatea, baina bai El Salvadorren gertatzen ari den gayen kontrako zapalkuntza aipatzea, zeren gizon eta emakume gau asko hiltzen ari baitira. IGA honen aurka aterada, eta protestak

bidaltzeko eskatu digu fronteei. Era berean, USA, URSS, Austria, Frantzia, Grezia eta Txipren dauden lege diskriminatzaileen kontra ekiteko deia zabaldu du IGak.

Madrilen izan diren bi COFLHEEetara (estatu mailako koordinakundea), joan gara, berriz. Beraietan, beste gauza askoren artean, kanpaina txiki bat egitea erabaki zen Belgikako Enbaxadara telegramak eta sinadurak bidaltzeko, irakasle lesbiana baten kaleratzea salatuz. Kaleratze hau teleaia batetan bere burua lesbianatzat agertzea-gatik gertatu zen. Hortan gaude orain.

Azkenez, topaketei buruz zera esango dizut, lau ponentzia egon zirela; "Gay Mugimendua eta langileen eta herri mugimendua", EHGAMek aurkeztua; "Homosexualitatea ete eguneroko bizitza", Gaztelako FLHOCena; "zigor Araudia", Galizako CCGGk aurkeztua; eta Catalunyako FAGC ren "Gay mugimendurako alternatibak".

Gauza aipagarri bitxi bat suertatu zen han. Prentsaurrekoa prestatzen ari zirela, Gipuzkoako EHGAMgo batek "Egin" eko berriemalez ez ahanzteko esan zuenean, norbaitek "za esos terroristas?" ohiu egin zuen. Gero, prentsaurrekora "Egin"ekoak zen agertu zen kazetari bakarra".

A.- Zer gertatzen da zuen legeztapenez?


- "Ba dakizu urte bat baino gehiago dela eskatu egin genuela, baina ez zaigu erantzukin ailegatu. Beraz, berriro presentatuko ditugu estatutoak ea zer jazotzen den, eta beste bidetik aurreko eskapenez galdetuko diogu Gobernuari.

Gai hortaz EAJ salatu behar dugu bere joera atzerakoiatatik gure mozioa "Eusko Legebiltzarre"an aurkeztua izan zenean".

A.- Eta daukazuen txokoaz?

- "Txoko Landan" diozu? Hori zenbait lagunentzako txokoa duzu __ezagutzen den txoko mixto bakarra__. Gertatzen dena zera da: denak direla, gutxi gora behera, taldekoak, eta orduan praktikan EHGAMeren egoitza egiten du. Bertan moeta askotako ihardunaldiak izaten dira, hala nola hitzaldiak, antzerkia, zinea, jaiak, e.a.. Gure asmoa zerbitzuak eratzea da. Liburutegia muntatu nahi dugu, eta mediku, psikologo abokatu eta abarren kontuak erraztu.

Beraz, edozertarako EHGAMgoekin harremanetan sartu nahi baduzue, joan zaitezke "Txoko Landan"era (Solokoetxe eskilarak, 4. Bilbao), edo dei egin (94) 4150719 telefonora. Donostian posibilitate bakarra 953 posta kaxa duzue.



ABORTOAREN INGURUAN HAINBAT HABURU (eta II)

Abortoaren aldeko egun internazionalaren inguruan agertzen zen gure lanaren lehen zatia, eta orain, handik hilebete batetara gutxi gora behera, bigarrena; hirugarren bat egingo dugulakotan.

Joan zen, aspaldian, Italian gerturik zuten erreferenduma; italiarrek lege berberaz jarraitzea erabagitzen zutela. Orduko beldurrak baretu direla dirudi, baina halan eta guztiz ere, abortoak ez du behar lukeen irtenbiderik, tamalez baina horrela da.

Oraingo honetan beste lejislatzio bi ekarri ditugu hona, alde batetik Holandakoa eta bestetik Alemaniakoa. Hurrengo batetan, eta betiko aitzakia jarritz, toki eza jarritz, Euskal Herriko alderdien eritzia argitaratzen saiatuko gara.



1- Holandako kasua

Aurtengo Apirilaren emaniko lege baten bitartez legalizatzen zen Holandan abortatzeko eskubidea haurraldiaren lehen hamabi asteetan erabagitzen baldin bazen, bai ama eta bai osagilearen adostasuna bat etortzen baldin baziren.

*** Haurdunaren adostasuna eta osagilearen aholkua lirateke Alemanian gehien baloratzen diren baldintzak abortoa zilegiztat hartzeko unean.**

Dena den, eta Holandako senatuan ziren botazioen ondoren ikusiezer gero badirudi legen nahiko estua dela. Demokrata kristauak haien baietza eman zioten legeari, baina sozialistek eta gainerako beste ezkerrek bere ezeztza oso lege kondizionatu eta laburkorra delako.

Lege honik amaiera ematen dio legegintza hutsune bat eta lehen hamabi asteetan abortatzeko baldintzak jarzen ditu. Lehena hau da: erabakia amak eta osagileak hartu behar dutela elkarrekin, arazoa pentsatzeko bost egun pasa eta gero. Bigarrena zera: abortatzeko egin behar diren medikal ekintzak espezializatuta eta gobernuaren baimenaz ari diren etxeetan paizik ezin direla egin.

Legea honela dagoelarik, Holandako zenbait emakume ez dator bat gobernuak zabalduzako legeaz manifestaldiak egin baitira legea zabalago izan dadin eta lehen hamabi asteok igaro ondoren abortatzea legezkoa izan dadin orduan ere bai.

2- Alemaniako lejislatzioa

Gaur egun Alemanian daukaten lejislatziotik bi artikulua ateratu ditugu ale honetan aurkezteko. 218 eta 219. artikulua, hain zuzen, abortoari buruz mintzatzen diren puntuak.

Teorikoki haurdunaldia ebakitzea zigortua dago legearen aldetik 218. artikulua honek esaten digun bezalaxe. Era honetaz abortatzen duen emakumeak modu ezberdinetako gatzigu izan dezake. Kasurik gehienetan ezar daitezkeen 3 urtetako zigorra gartzela da edo diru zigorra. Halan eta guztiz ere, batzutan ezartzen den gartzela pena hori

5 urtetakoa da; adibidez, abortoa emakumearen nahiaren aurka egiten denean edo/eta abortoa egitean, nahiez, haurraldian dagoen emakumearen bizitza galdu edo arrisku gorrian ipintzen denean.

Legea hauxe baldin bada, beste puntu batetan abortoa ez gatzigtzeko nolakoa izan behar den azaltzen zaigu. Kasu hauetan haurdunaldia ezin du emakumea zigortu. Noiz ba?

1.- Haurduna ados baldin bada eta bere haurdunaldia ebagitzea bere bizitza zaintzeko eta bere osasuna gordetzeko egingo balitz.

2.- Medikuek horrela azaltzen badio haurdunari jaiotzera doan umeak kalte izugarriak izango dituela espero denean bai jarauntziari eta gestazioari begira. Bestalde batetik, haur hori ekintza biolento baten ondorioa balitz haurdunaldia ebagitzea ez litzateke zigortua izango. Aipa gestazioan lehen esandako formazio eta kalte txarrak espero direnean abortatzeko dagoen epeak lehenengo 22 asteetan egitea uzten du. Beste kasuetan lehen 12 asteetan egin beharko da.

*** Holandako kasuan, abortoa egiteko ernalketa eman ondoren lehen hamabi asteak igaro baino lehen egin beharko da.**

Orain arte aipaturiko kasu guztiok osagilearen baimen eta arduraz egiten direnak izan dira. Medikua aholku-

Artikulu berber honek ondorengo hau dio: "medikuak ezin izango du abortoak aholkatu horretarako baimen

abortoak aholkatzeko medikurik gehienak duten baimena kendurik izango du, abortoak dekretatu ezin duelarik. Baina ez zaio baimen hori kentzen egin duena segur dagonean, susmatzen baldin bada edo akusaturik baldin badago ere berdin jokatzeko baita.

Dena den, badago beste ohar bat artikulu honetan. Kasu honetan mintzagaia abortoaren propaganda litzateke;

*** Abortatzeko eskatzen den betekizuna ez dago Alemanian adin nagusitasunean, baizik eta haurraldiaren ebagiketaz eta bere ondorioez ideia zehatza edukitean; hau da, ekintzaren balantzea analizatzeko gaitasuna izatean.**


rik gabe dauden abortoak zigorturik ditugu 219. artikulua dioenez: "Osagilearen baimena idatzirik gabe ez duenak eta abortoa egitera ausartzen denak urtebeteko kartzela hartuko du, haurdunak ez du zigorrik hartuko. Berdin jokatuko da abortoa 218. artikuluan azalduz baldin ez balego".

zehatzik ez badin badu noizpait eginiko ekintza ilegalen baten ondorioz. "Esan

*** Aborto ilegalak egiteko asmoz merkatu orokorrean tresnarik zabaltzen duena zigortua izango da eta berak zabalduriko tresnok bahituak izango.**

nahi da, osagilearen batek aborto ilegal egin baldin badu noizpait eta hori dela eta, zigortua izan baldin bada

abortoa egiteko deitzen duenak, edo abortoa egitea goratzen duenak ondorengo zigor hartuko du: bi edo hiru ur-



Klinika eta osagileen lanik garrantzitsuena, haurraldia ebagitzean, siguritatea bermatzea da.

tetako gartzela edo bere trukean jar daitekeen zigor ekonomikoa. Lege hau, noski, ezin ezar dakioko, osagile mailan, bai abortatzeko dauden praktikez ateratzen den propagandari ez abortatzeko dauden tresnez (maila berberan, jakina) egiten denari.

Aborto ilegalak egiteko asmoz merkatu orokorrean tresnarik zabaltzen duena zigortua izango da Alemanian 219. artikulua dioen bezalaxe. Sartzailea, bera, zigortua baldin bada, be-

rak sarturiko tresnak kenduak izango dira aipa merkatu orokor horretatik.

Abortatzeko lege hau haurraldiaren ebagiketari aplikatzen zaio soilik; hau da, arraultzen ernaldia umontzian kokatu aurretik egin daitezkeen beste operazio eta ekintza guztiak legetik at gelditzen dira; lege honen zigorgaietatik kanpo gelditzen dela esan nahi da.

Alemaniko lege hau, ondoren aipatuko dugun gaiaz, behintzat, Italiako

baino lasaiagoa da. Lege honek ez du ezer zehazten abortatzera doan emakumea adinez nagusia ez denean. Aurreko lanean azaldu genizuenek, Italian, kasureko, behar beharrezkoa dute nagusi ez direnek guraso edo tutorearen baimen zehatza. Azaltzen gabilten den betekizuna ez dago adin nagusitasunean, baizik eta haurraldiaren ebagiketaz eta bere ondorioez idea zehatza edukitean; hau da, ekintzaren balantzea analizatzeko gaitasuna izatean.



Euskal Herrian, Holandan bezala manifestaldiak ugariak izan dira abortoa legalizatzeko, han lortuaren hemen ez da holakorik eman.

Dena den, badira azalpen batzuk arlo honetaz. Abortatzera doan emakumeak 16 urte baino gehiago duenean, esaterako, berak erabagitzen du. 16 urte baino gutxiago dutenek osagilearen baimendua eduki beharko dute. Baina, emakumeak 14 urte baino ez balu gurasoek edo tutoreek eman behar izango lukete azken hitza.

Bestalde batetik buru hutsunerik dutenek, daukaten adina baztertuz, abortatzera heltzeko haien guraso edo zaintzaileen baimena izan beharko dute klinikara sartu aurretik eta haurdunaldia ebagitzeko ekintzak hasi baino lehen.

Lege honek ez du ezein osagile abortoa egiten bultzatzen bere kontzientziak horrela eskatuko balezaiok, hala eta guztiz, haurdunaren bizitza edo osasuna arrisku gorrian aurkituko balitz abortoa egin beharko lukete legeak horrela eskatzen baitie.

Laburtzeko jar dezagun orain Alemanian abortatzeko eraman behar den prozedura osoa zein eta nolakoa den. Lehen bait lehen haurraldia determinatu egin behar da, honetarako osagile baten azterketa eskatzen da eta bere lana (osagilearena) arraultzea noiz erndu den zehaztea litzateke (gero, legea ezartzeko, ernalketaren eguna behar beharrezko agertzen baita) Bigarren pauso bezala hurrengo hau

eman behar lukete emakumeek abortatu nahi izanez gero: kontseilutegi sozial batetara joatea abortoari buruz elkarrizketa izateko. Pausu hau ez da derrigorrezkoa abortoa osagileak aholkatu baldin badu hasieratik, baina beste kasu guztietan beharrezkotzat hartzen da esan toki honetatik pasatzea eta bertoko kontseilariekin elkarrizketa bat izatea. Kontseilua abortatzeko baino hiru egun aurretik jazoia eduki behar du emakumeak.

Hirugarren pausua ernalketa zehaztu duen osagileak'emandako informazioaz abortoa eragingo duen beste osagile batengana joatea litzateke ondoren aipatuko dizkizuegun agiri guztiekin: a) Ernalketaren zehaztasunak; hots, azken hilerokoaren data, b) ebagiketari idatziz emaniko baieztapena, c) ebagiketaren beharrianaren azalpen argumentatua eta d) emakumeak baimena emateko duen ahalmenaren zertifikatua, eta abortatzera doan emakumeak adin nagisitasunik ez balu haien guraso edo tutoreen baimen idatzia.

3 - Beste zenbait datu.

Euskal Herriko alderdi politikoek abortoz duten eritzia hurrengo alerako uzten dugularik gaurko atal honen azken zati gisa jar ditzagun "Osasun Munduar Elkarteak" (O.M.S.) argitara-

tutako datu batzuk aski interesgarri iruditzen baitzaigu.

Informek dioenez badirudi egunero 100.000 aborto eragiten dela; hots, ematen diren hiru haurdunaldietarik bat ebagitzen da, abortorik gehienak herri azpidesarrolatuetan ematen direlarik.

Herri desarrolatuetara jotzen baldin badugu ere dauzkagun datuak honelakoxeak dira: Frantzia, adibidez, abortoetarik %22,7a adin nagusitasunik ez duten emakumeek eginak lirateke, eta bestalde batetik abortoetariko %73,4a antisorgailurik erabiltzen ez duten emakumeek eskaturik direla esan genezake.

Ifar Ameriketako datuak hauexek dira:haurraldietariko %30 ebagitzen dela eta15-19 urte bitarteko emakumetatik, %10a haurdun geratzen dela.

Spainian 300.000 aborto zenbakitu ziren 1975. urtean. Emakumeen elkarrekin diotenez 3.000 emakumeek galdu dute haien bizitza abortatzean Estatuan bide ezagatik, noski. Daramagun urte honetan ehunen bat emakume abiatu dira Erromara abortatzeko Espainian erarik ez dutelako eta bai Ingalaterrara eta Holandara 10-15 emakume espainiar heltzen da abortatzeko itxaropenaz.

ANAITASUNA K BERE HARPIDEDUNEI



Azken alean aipatzen genizuen behar beharrezkoa dugu zuen helbide aldaketan informazio zehatza eskuratzea, eta horregatik berriz ezkatu behar dizuegu, helbideaz aldatzen baduzue, bidaltzeko, mesedez, helbide berria lehen bait lehen eta honekin batera azken erribistan izan duzuen harpide-zenbakia, IB-Man egin behar ditugun aldaketak erreza goak izan daitezten.

Egia esan, batzuk izaten dira bueltatzen diren aldizkariak, zuen etxeetara heldurik gabe eta postariaren holako eskuizkribuaz: "desconocido".

Eskabidea haxe da: zure etxebizitza beste nonbait jartzen baldin baduzu bidali zuzenbide berria azken etiketarekin eta zure etxebizitza toki berean baldin badago, baina kalearen izena aldatu edo eta euskaratu egin baldin badute egin ezazu berdin.

Helbideei buruz zera adierazi nahi dizuegu:

- a) Ez jar, otoi, zuri gustatuko litzaizukeen izena, ofizialki onarturik ez badago.
- b) Ez euskaratu zure kontura erdaraz soilik agertzen den kalearen izena. vg: "Calle Correo" "Posta Kalea".
- c) Euskaraz ipin daitezkeen izen bakarrak ofizialki onartuta daudenak dira. Eta hemen, jakina, EUSKARAZ bakarrik jar itzazu.

Tal como os apuntábamos en la última revista nos es muy necesario el contar con información detallada sobre todos vuestros cambios de dirección. Os pedíamos que enviárais junto con vuestras nuevas señas la última etiqueta de la revista con vuestro número de suscriptor. Hoy os recordamos la misma canción.

La petición es esta: si cambias de vivienda que nos mandes puntualmente la nueva junto con la antes mencionada etiqueta, y si no la cambias pero tu calle cambia de nombre o es traducido al euskara que hagas de igual manera.

Sobre las direcciones ten en cuenta que:

- a) Solamente se puede recibir la revista si la dirección es la oficial, por lo tanto no pongas el nombre que a tí te gustaría si no es oficial.
- b) No traduzcas por tu cuenta el nombre de la calle si este solo aparece en castellano oficialmente. vg: "Calle Correo" "Posta Kalea".
- c) Los nombres que únicamente se pueden poner en Euskara son los que estén oficialmente aprobados. Y en estos casos, claro, pon únicamente el nombre en EUSKARA.



Tel que nous le disions dans le numéro paru au mois de Mai il nous est tout à fait nécessaire de connaître en détail tout changement d'adresse qui aurait pu se produire.

A cet effet, si vous changez d'adresse rappelez vous de nous envoyer la dernière étiquette d'envoi en nous précisant votre numéro d'abonnement et votre nouvelle adresse.

En tout cas il faudrait prendre soin aux recommandations suivantes:

- a) Ne mettez jamais d'autre adresse que celle officiellement reconnue et admise par l'administration postale. N'oubliez pas d'ajouter votre code départemental.
- b) Ne traduisez pas à vos risques de noms affichés seulement en français ou encore les substituer par d'autres purement simplement inexistantes. Ex: "Av. d'Espagne" par Hegoaldeko etorbidea.
- c) Mettez toujours en euskara tout nom officiellement reconnu ainsi.

ESKOLAPIOETAKO GAU ESKOLAK

UDAÑO IKASTAROA BASERRIAN ANTOLATU

NOIZ: Uztailaren 16tik 29ra. (bazkaltzeko heldu, egun horren bazkaria etxetik eraman.)

NON: Iturralde baserrian. Arrazola. Durangoaldea.

MATRIKULA: Bederatzi mila pza. 9.000 pza.

MAILAK: 3. eta 4. maila.

EGITARUA: Klaseak, irteerak, aktibitateak, e.a.

ZERBITZUAK: Joango direnak, janariak, garbiketarik eta zerbitzu guztiak egin behar dituzte.

ADINA: 16 urtetatik aurrera.

ERAMATEKO: Lozakua, klaseetako materialeak, e.a.

MATRIKULAZIOA:

- Ekainaren 15 - 19.
- Arratsaldeko 7 - 9.
- Eskolapioetan. Alda. Recalde 19. Bilbo. Tfno.: 424 14 36.

MATRIKULA

Ekainaren 20rarte zabalik egongo da matrikula epea.

Matrikula onartzeko kartaz, matrikula txartela ondo beteta eta matrikula dirua gure kontu libretan sartu duzula adieraziko duen agiria bidali BILE edo BIEra.

Matrikula onartu dela adierazteko bueltan agiria bidaliko zaizu.

Edozein berri argitzeko dei:
- BIEra 433 30 01 telefonora
- BIEra 673 00 10 telefonora.

"LAN METODOLOGIA ETA BERRESKETA"

ikastaroa

Helburuak:

- Umearen eboluzio globalaren kontzepzio teorikoa.
- Nagusien zeregina umeekiko harremanetan.
- Harreman "eragingarria" edo "inhibigarria".
- Familia, sozial edo geografía giroa kontutan izatearen garrantzia, lan inguruan.
- Ohizko jolasak. Zuzendutako jolasak.
- Jolas dramatikoak. Sinbolikoak.
- Abesti eta dantzak - Tailerra.
- Ekintza maniagarriak - Materialeak.
- Elementu ezberdinen konbinaketa espazioan (Pentsamendu abstrakzioak. Jolas araudiak, aurrikuspena).

HIZKUNTZAREN TERAPIA ikastaroa

Helburuak:

Ikastaro honen helburua, partaideei beharrezko diren ezagupenak ematea da, hoierekin baliaturik hizkuntzaren terapia ezberdinak egin ahal izan dituzten.

PSIKOMOTRIZITATE ikastaroa

Helburuak:

A) Psikomotrizitate hezkuntzaren oinarri teorikoak.

- 1) Jitea, jarrera
- 2) Psikomotrizitate hezkuntza eta berrezkuntza.

B) Psikomotrizitate prakti-

ka.

- 1) Partehartzaile bakoitzaren gorputz inplikazioa.
- 2) Bizipen egoeren analisi.
- C) Psikomotrizitate pedagogia eta hezkuntza
 - 1) Psikomotrizitateaz egin diren lanen filmeak
 - 2) Eztabaidak.



udan ere euskaraz

1.981rako UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

GIPUZKOA

Antolatzaile Lekua	Noiz	Mailak	Nola	Prezioa
Tolosako Euskal Eskola Tfno. 67 29 48 TOLOSA.	Ekaina Uztaila	Guztiak eta Alfabeta	Ikastaro intentsiboak	6.000 pts. ... 6 horas 4.600 pts. ... 4 horas
Goiherriko Euskal Eskola Lazkano Tfno. 88 34 03	Ekaina-Uztaila	Guztiak, Alf. D. Titul	Barneikaslegoetan	Matricula 6.250 Pensión Comp. 16.375
Gipuzkoako Euskal Eskola Abalziketa, Amezketeta, Ugarte	Uztaila, Abuztua		Barneikaslegoetan	Total 23.000 Guztitar
Arrasateko Euskal Eskola Hernaniko Euskal Eskola	Ekaina, Uztaila Uztaila	Guztiak eta alfabetak 3. maila eta mintzatzen	Ikastaro intentsiboak Barneikaslegoetan	4.200 pts. Matricula 6.700 Pensión Compl. 18.500
Tfno. 42 80 50 Hernani				
Ondarrabiko Euskal Eskola Tfno. 64 15 62 Ondarrabi	Uztaila	Denak Alf. D. tituloa	2 orduko ikastaroak	
Donostiako egia Euskal Eskola Tfno. 27 31 19 Donostia	Uztaila	2.eta 3.maila	Ikastaro intentsiboak	
Donostiako Ibaeta Euskal Eskola Tfno. 27 31 19 Donostia	Uztaila	2.maila	Ikastaro intentsiboak	
Ulibarri Euskaltegia Aranzazu Tfno. 444 19 41 Bilbo/raila	Ekaina, Uztaila, Abuztua,	Denak, Alf. eta D. tituloa	Barneikaslegoetan	18.000 pta. guztitar

1.981rako UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

NAFARROA

Antolatzaile Lekua	Noiz	Mailak	Nola	Prezioa
Berroizarko Euskal Eskola Berriozar		Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak	2.500 pts.
Ipes S. Miguel, 8 Tfno. 21 52 87 Iruinea	Abuztua eta Iraila Abuztua eta Iraila	Maila guztiak Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak Ikastaro intentsiboak	
Ipes Berastegi, sakana (Altsasu)	Uztaila eta Abuztua	1.2.eta 3.maila	Ikastaro intentsiboak	
Arturo Kanpion Tfno. 21 36 96	Uztaila, Abuztua eta Iraila	Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak	Matricula 2.500
Arturo Kanpion Tfno. 31 36 96		3. eta 4. maila		Matricula 9.000
Juan de Amendux	Abuztua	Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak	

1.981rako UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

BIZKAIA

Antolatzaile Lekua	Noiz	Mailak	Nola	Prezioa
Bilbo Zaharreko Euskal Eskola Correo, 9-3° Tfno. 415 82 92 Bilbo.	Uztaila eta Abuztua	Maila Guztiak	Ikastaro intentsiboak	
Iralabarri Euskal Eskola Irala, 8 Tfno. 431 19 36 Bilbo	Julio y Agosto	Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak	
Errekaldeko Euskal Eskola	Ekaina, Uztaila, Abuztua		Ikastaro Intentsiboak	
Zubibarri-Deustua Euskal Eskola	Uztaila, Iraila-Urria	Denak, mintza prakt.	Ikastaro intentsiboak	
Santutxu Euskal Eskola Karmelo Ikastola. Bilbo	Uztaila	2, 3, 4 eta mintza prakt.	Ikastaro intentsiboak	
Gazteleku Elkarte Kulturala	Uztaila, Abuztua, Iraila	1,2,3, maila	Ikastaro Intentsiboak	
Indautxuko Euskal Eskola Colegio Jesuitas Bilbo	Ekaina	Maila guztiak	Bi orduko ikastaroak	
San Inazio Euskal Eskola Kultur Etxea, 7,9. 1° Bilbo.	Uztaila	Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak	
Eskolapioak -Baserrian- Alda. Recalde, 19 Tfno. 424 14 36 Bilbo.	Uztaila	3.eta 4.maila	Baserrian	
Busturialdean Euskal Eskola Kortezubi, Areatza, Gorozika	Uztaila eta Abuztua	Maila guztiak	Barneikaslegoetan	10.000 ptz. bazkaria ap.
Busturialdean Euskal Eskola Tfno. 685 18 21	Uztaila	D. Titulorako	Ikastaro Intentsiboak	8.000 Pta.
Ego Uribe Basauri	Ekaina, Uztaila, Abuzt. Irai.	2. 3. eta 4. maila	2 orduko ikastaroak	
Txorri Herri Euskal Eskola	Uztaila	2. 3. eta Alfabetatzen	Cursos intensivos en caserio-baserrian	
Durangaldeko euskal eskola	Uztaila		Hiru orduko ikastaroak	
Ibarrekerra Euskal Eskola Santurce, Portugalete, Baracaldo, Sestao	Ekaina, Uztaila	Maila guztiak	Ikastaro intentsiboak	
Ullbarri Euskaltegia	Uztaila, Abuztua, Iraila	Alfabet. y Título D	Ikastaro Intentsiboak	6.500 pts.
Ullbarri Euskaltegia (En Billarol) Alda. Urquijo, 18. Bilbo	Uztaila, Abuztua, Iraila	Título D.	Barneikaslegoetan	18.000 pta. (guztitarak)
Mikel Zarate Ikastegia Tfno. 443 49 94.	Ekaina-Uztaila	lau maila	Ikastaro intentsiboak	4.500 pta.
Labayru Ikastegia Seminario de Derio Tfno. 453 31 00	Uztaila	Maila guztiak	Barneikaslegoetan	Matricula 6.000 pta.
Gabriel Aresti Euskaltegia Gran Via, 24. Tfno. 423 23 12 Bilbo.	Uztaila, Abuztua, Iraila	Maila guztiak	Barneikaleg. etaba-serrian	caserio 16.000 pta. internado 6.000

1.981rako UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ARABA

Antolatzaile Lekua	Noiz	Mailak	Nola	Prezioa
--------------------	------	--------	------	---------

Arabako Euskal Eskola Tfno. 233 13 39 Araba	Uztaila	1. 2. 3. eta 4. maila		
--	---------	-----------------------	--	--

Iparaldean ere uda ikastaroak egingo dira baina ez ditugu oraindik Datuak

Iparaldeko Harduraduna: Koldo Amestoy Tfno. 949 / 296791, 15, rue Port Neuf -BAYONA-

GAU ESKOLAK / idazkaritza - rue de L'Ursuia 64240 Hasparren-

>>> SAIOKAREN METODOLOGIA Ikastaroa

Helburuak:

1) Irakasleengan mentalitate aldaketa bat probokatu beren irakaskintza praktikoan metodologia aktibo bat erabiltzera bultzatuz.

2) Irakasleek ezagutu ditzatela, maila ezberdinetan Saioka materialea egiterakoan erabili diren kriterio psikopedagogikoak.

3) Irakaslea prestatu, Saioka materialean proposatutako metodologia jarraituz, bertako edozein gai programatzeko eta garatzeko gai izan dadin.

IRAKURKETA eta IDAZKETA GLOBAL METODOAREN BITARTEZ.

Ikastaro hau irakasle talde honek eramaten ari den esperientzian oinarritua izango da.

ANTZERKIA ESKOLAN

Expresioa bideen erabilkerara.

Antzerkia expresio bide bezala (gorputz expresioa, kreatibitatea, ikerkuntza.... e.a.) erabiliaz ditugun posibilitateak.

Metodologia: Saio praktikoak izango dira oinarritzko teoriaren azalpenetan oinarriturik.

HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA PIAGETEN TEORIETAN OINARRITUA.

Eguneroko ekintzetan Piageten teoriak praktikan jartzeko ditugun posibilitateen ezagutzea eta azterketa.

Metodologia: Teoriaren ondoren saio praktikoak.

PSIKOLOGIA EBOLUTIBA

- Psikologia ebolutiboaren prozesoa.

- Familiaren inguru giroa

- Inguruaren eragina

- Adimen Sensomotrizia

- Adimen errepresentatiboa

- Edipo....

MATEMATIKA 2. ETAPA

- Matematikaren planteiamendu orokorra.

- Programaketa: 6,7 eta 8. mailak.

- Metodologiaz (experientzia praktikoak)

- Materialearen aurkezpena (Elhuyar)

- Lan batzuren azterketa

- Jolasak eta materialea

- Matematika eta beste gaiak

- Pelikula bat

- Matematikaren ebaluaketaz zerbait.

"Errege berriaren otoiiza egin duenetz president berriak, ez dakigu. Baina girixtinoek gogoan hartu behar dute Jondoni Paulok Timoteo bere lagunari izkiriitzen ziona: "Fededunak otoiitz egin dezatela erregeentzat eta buruzagi guzientzat" **Iparraldeko HERRIA** aldizkariak **Miterrandén** garaipena zela eta.

"Ce sont des terroristes" disent les Anglais. Qui, peut-être! Encore que cela ne justifie pas qu'on laisse un homme mourir de faim. Ajoutons à cela que les terroristes de l'IRA sot, peut-être, d'un genre un peu particulier, différents, en tout cas, de leurs homologues italiens ou allemands. Prenons le cas de Francis Huges, qui vient de mourir, à vingt-cinq ans, à la prison de Long Kesh. **"LE NOUVEL OBSERVATEUR"** Irlandako burruka dela eta.

"Les grèves de faim sont un prétexte. Accédez aux demandes des prisonniers et, demain, l'IRA commencera à poser des bombes. L'IRA s'est rabattue sur la défense des prisonniers parce qu'elle n'avait plus d'autres. Nous sommes un group offensif. Cela peut vous paraître gênant; mais nous ne cachons pas que nous avons une liste de gens à éliminer: les militants activistes de l'IRA provisoire". Ifar Irlandako ekintzaile protestante batek **IRA**-koek daramaten burrukaz eta gose grebaz.

"La misión liberadora del pueblo soviético vive en la memoria de trece naciones de Europa y Asia, que el ejército soviético liberó o ayudó a liberar de la esclavitud... El día de la Victoria inauguró el tercio del siglo XX que hemos vivido sin guerra (...) El XXXVI Congreso del PCUS instó a "hacer todo lo posible para desviar de los pueblos el peligro de guerra nuclear, para preservar la paz en la Tierra". Honela mintzatzen zaigu **TIEMPOS NUEVOS** Errusiar aldizkaria Sobiet Batasunaren funtzio humanitarioaz. "Mais les deux hommes clés de sa politique étrangère, Alexander Haig et Gaspar Weinberger, sont déjà devenues les bêtes de l'extrême droite du Congrès." **LE**

NOUVEL OBSERVATEUR aldizkarian **USA**ko lehendakariaren lagunak direla eta. Noren erruz, beraz, munduko gudak egun?

"Es curioso el revuelo organizado alrededor de la pastoral de los obispos de Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Porque veamos, ¿Quiénes deben de estar enfadadísimo con nuestros obispos? Creo que únicamente, ETA, el BVE y sectores inmovilistas, anti-democráticos y militares con afanes golpistas. Nadie más". **EL CIERVO** aldizkarian egerturiko esku-titz baten zati bat, gaia baskongadetako apez-pikuek biolentziaren aurka eginiko pastoralara eta honen oihartzuna.

"Un estado democratico no es aquel en que todo el mundo puede hurtar el bulto a todo o impedir que cualquier cosa se haga, sino un Estado en el que los que hacen las leyes y los que gobiernan salen de una elección periódica. Una vez los gobernantes llegan al poder por esta vía han de verse en condiciones de ejercer ese poder, por que solo así pueden rendir cuentas en la próxima elección" **"ELCIERVOTIK HARTUTA**. Kasu honetan definizio batzuk ematen dizkigu aldizkari honek, Estatu Indartsua zer den azalduz edo Gizarte paketsua zer litzatekeen komentatuz, hemen daukazuena Estatu demokrakikoaren bere definizioa duzue.

"Ya han llegado las subidas tanto de los teléfonos como y de la luz y otras muchas más. Parece que este gobierno quiere ascender muy pronto y muy alto y seguro que si continúan con estas medidas alcistas, nosotros, para estar a la altura de las circunstancias, tendremos que volar en globo." **"Espainiako Bankuak** egindako agiri batetan **Espainiako ekonomiak**, urte honen zehar, hazkunde txikia ezagutu duela esaten baldin bazuen, kale-langileek, ostera, beste gauza bat uste dute, kasureko **EROSKI** aldizkarian argitaratuteko hau.

"Lanoperat sartzera doa Jugoslavia. Sei erre-

publika edo sei herrialde elgarri josik egiten dute Jugoslavia. Gune bakoitzak badu bere mintzaera, bere zuzenbidea, bere begitarrea. Seien hazua tinkatinkatua zaurkan bere burdin-esku tinki-tinkietan Tito marexalak. Zeraukan Francok Espainiako probintziak bezala. Franco eta Tito elgarren irudiko gizonak ziren, hala nola esku eskuina eta esku ezkerre, hala nola bi itxura, bat beltzez, bestea gorritz zirrizaratu.

Ukan ditu asko inarrote Jugoslabiak, Stalin nahiko baitzuen sei harmetako jauregia lurreratuzkali, Jugoslabiatarren gaztigatzeko. Ez ziren jasan holako herri txar batek hura bezalako jaunari buru egitea, eta haren eskupetik ihes egitea, itsas alorretik etortzen ahal zitzaion lagunak baliatuz.

Tito bi haundietarik berex dagon aldozaren lehendakari bat egon da; Fidel Castro, azken hau Rusiari josia egonez kanpo eta barne, zen beste bat horrekin.

Hobe dela ezpainiak josirik egoitea Jugoslabiaren lehenago Espainian bezala, denek badakite mundu zabalean. "Leinu berria" idatzi zuetakoz Djilas, Titoren adixkideak, baina Titoren lagun aberastuen kontra, Titok igorri zuen zalu mila debru zenbait urterentzat". **HERRIAK** horrela idazten zuen Titoren eriotzaren lehen urteurrenan.

"Si de lo que se trata es de que mejore el seguro de desempleo o que los sindicatos alcancen las altas cotas de presencia institucional o que incluso se devuelva el patrimonio sindical, bien está perseverar lo más unitariamente en el empeño, pero coincidiremos que para estos y otros y otros objetivos puntuales es menester hacer precisamente lo contrario, no hipotecar la acción sindical.

(...) Ojala que, libres de interferencias de grupos políticos, mejorando día a día nuestra organización, nuestra capacidad de respuestas, vayamos ganando confianza en nosotros mismos, sin preocuparnos tanto las puertas de castillos en el aire que se nos cierran y abriendo al ritmo de nuestras posibilidades puertas y mas puertas en el avance sindical" **ELAREN** aldizkarian idatzia artikuluburu gisa.

AUZMENDI



SASTRE-VERGARA I.
DOMOSTIAKO ESTILOA.



UDALETXKO BATZARGELAN

GARAGARRILLA'ren 20'an
Arratsaldeko 7etan

**AKADEMIKU
EGINTZA**

- Maiburu: IÑAKI BARRIOLA jauna
- Izleriak
- MANUEL LEKUONA jauna
Gaiak: EUSKALERRIKO ANTZERKIA
- AGUSTIN ZUBIKARAI jauna
Gaiak: LABAYEN'en ANTZERKIA
- EUGENIO AROZENA jauna
Gaiak: ANTZERKI BERRIAN EUSKAL ANTZERKIAREN SARBIDEA

GARAGARRILLA'ren 21'an
Goizeka 10'30etan

**MAI
INGURUA**

- Gaiak: EUSKAL ANTZERKIA AZTERTZEN
- Maiburu: YON ETXAIDE jauna
- Izleriak: IÑAKI BEGIRISTAIN jauna
TXOMIN KORTAJARENA jauna
ANTONIO M.ª LABAYEN jauna
ESTANISLAO URRUZOLA jauna
AGUSTIN ZUBIKARAI jauna

GARAGARRILLA'ren 20'an LEIDOR ANTZOKIAN

Gabeko 10'etan

LENENGO - ALDIZ

DOMENJON DE ANDIA

A. M.ª Labayen'ek eratuia

BANAKETA: Alegi'ko INTXURRE ta TXINTXARRI antzerki taldekoak
Donosti'ko EUSKAL IZTUNDE antzerki taldekoak
Oiarzun'go INTXIXU antzerki taldekoak
Tolosa'ko LIZARDI ta OARGUI antzerki taldekoak
Urnieta'ko EGI BILLA antzerki taldekoak

ZUZENDARI: Joxe Mary ETXEBESTE **APAINTZAILLE:** Joxe Luis BELLOSO

**URREZKO
ASTABELARRIAK**

Gure ohiturari jarraituz berriro gauz-kazue zuekin "Urrezko Astabelarriak" banatzen. Egia esan, nahiago genuke "urrezko krabelinak" edonori eta edonon zabaltzea, baina zoritxarrez gugana datozen testuetarik gehiago dira gaizki daudenak ongi daudenak baino.

Oraingo honetan Tolosako C.I.T./elkartea dugu irabazlea, meritoak ondoren dituzue apostrofe apaintzaile eta gutzituz:

**EUSKAL PRENTSA BARIK EZ DA EUSKAL HERRIRIK
SIN PRENSA EN EUSKARA NO ES POSIBLE EUSKAL HERRIA**



Boletín de suscripción

**Harpidedun
berririk gabe,
Euskal Prentsak
ez du
etorkizunik.**

Eta aldizkariok desagertuko balira, ondorio latzak izango lituzke horrek Euskal Herriko kulturarentzat. Gure Herriaren ondare eta gure nortasunaren ezaugarri den euskarak, elkarri aditzeko erabiltzen dugun tresna horrek, beren atek zabal-zabalik irekitzen dizkioten komunikabide bakarrak galduek lituzke betirako.

Egoera honi erremedioa jartzeko, zure laguntza behar dugu.

EGIN ZAITEZ ALDIZKARIOTAKO BATEN EDO GEHIAGOREN HARPIDEDUN. BETE EZAZU TXARTEL HAU.

"Prentsa euskaraz" en izenean, mila esker.

**Sin más suscripciones
a la prensa en euskara
no es posible
la supervivencia
de estos Medios.**

Y la desaparición de estas publicaciones acarrearían unas graves consecuencias para la cultura de todo el País. El euskara, patrimonio del pueblo, vehículo nuestro de comunicación, elemento definidor de nuestra personalidad, perdería así los únicos Medios impresos en cuyas páginas encuentra una acogida total.

Para intentar salvar esta situación, necesitamos tu colaboración.

SUSCRIBETE A UNA O VARIAS DE ESTAS REVISTAS. LLENA ESTE BOLETIN.

En nombre de toda la "Prentsa euskaraz", gracias.

Izena
Nombre
Kalea
Calle
Herria
Población

ZK N.º Bizitza
Piso
Herrialdea
Provincia

Hartu nahi dut:
Deseo suscribirme a:

- ANAITASUNA** Hamabostkaria, Urteko harpidetza: 1.500 pztz. Publicación quincenal. Suscripción anual: 1.500 ptas.
- ARGIA** Astekaria, Urteko harpidetza: 2.500 pztz. Publicación semanal. Suscripción anual: 2.500 ptas.
- HERRIA** Astekaria, Urteko harpidetza: 2.250 ptas. Publicación semanal. Suscripción anual: 2.250 ptas.
- JAKIN** Hiru hilabetekaria, Urteko harpidetza: 1.100 pztz. Publicación trimestral. Suscripción anual: 1.100 ptas.
- SASKI-NASKI** Hilerokoa, Urteko harpidetza: 900 pztz. Publicación mensual. Suscripción anual: 900 ptas.

X batez jar ezazu harpidetu nahi duzun aldizkaria.
Señale con una X la revista o revistas a las que quiera suscribirse.

Txartel hau bete eta gero bidal ezazu mesedez 495 posta kutxara, Bilbo, PRENTSA EUSKARAZ karta azalean jarri. Una vez rellenado este boletín, envíelo, por favor, al apartado 495 de Bilbao, poniendo en el sobre PRENTSA EUSKARAZ.

ORDAINKETA MODUA: Harpidea hartzen duzun aldizkariak zurekin sartuko da harremanetan ordainketa modua jakin dezazun.

FORMA DE PAGO Cada revista, a la que se suscriba, se pondrá en contacto con usted para darle a conocer sus formas de pago.



**DINERO A
CUALQUIER HORA.**

**CREDITO EN
CUALQUIER SITIO.**

DIRUA ORDU GUZTIETAN

Ordu guztietan Kutxaren zerbitzuak zure mesedetan daude.

Hemen duzu gure Txatel Berdea. Txartel Berdearekin eragiketa guztiak, diru ateratzea, diru sartzea, etab. edozein ordutan egin dezakezu, gauean edo egunean, lanegunetan edo eta jaiegunetan. Txartel Berdeak ez du ezagutzen jairik.

Erlojua begiratu barik, behar dituzun soluziobideak zeure eskuetan daude:

- Edozein unetan dirua ateratzen.
- Dirua sartzen.
- Zure saldoa berehala ezagutzen.
- Taloi txekeak eskatzen.

KREDITUA EDOZEIN TOKITAN

Bidai agentzietan, hoteletan, jate-txetan, dendetan, erostetxe handietan.

Bizkaian 2.000 toki baino gehiagotan.

Munduan zehar 2.600.000 tokitan.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartela erakutsirik **NONAHI**, txakur txiki bat ere gabe, erosiko duzu.

Horrela, ez duzu gainean dirurik eraman behar ez eta konturik atera behar.

Gauzez gozatzeko ez duzu itxaron behar. Pagatzeko itxaron behar duzu, gure kreditu osoa duzu eta.

ETA 5.000.000 TAKO SEGURU DOHAIN BAT

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartelarekin harantz honantz ibiltzea ez da bakarrik eroso. Segurua baita.

Abioiez, trenez edo eta itsasuntziz egindako bidaiak txartelaz abonatzen badituzu, zuek eta zeure etxeok

istripuen kontrako aseguru bat duzue. 5.000.000 pztako aseguru hain zuzen. Dena debalde.


Horregaitik ere Bizkaiko Kutxaren Master Charge-a eduki eta erabili behar duzu.

Seguru gaude.

**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**



**BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA**



ARLOTE ALA PERTSONA

IZAN?

Mendez mende ahozko komunikabide bakarrak herritarteko giza harreman arruntak izan dira.

Mendez mende entzun ikusteko komunikabide soilak gure plazetan, kaleetan, baserrietan eta etxekoen eta ezagunen artean izan dira.

Erdal Eskolak ez zuen bada euskararen etorkizuna errotik moztu.

Baina 1920.tik aurrera giza harremanetan aldaketa sakonak ematen ari ziren: Irratiak. 1960.tik aurrera: Telebista; jadanik zeuden komunikabide idatziak kontutan hartu gabe.

60 eta 20 urtez atzerapenez gaude euskaldunok.

Gauden egoeran, hiritar euskaldunen erantzunkizuna behar beharrezkoa da baina guztion gainera **Eusko gobernuak** ba du erantzunkizunetarik handiena.

Erantzunkizun hauen artean ondorengoak dira ezinbestekoak:

- Hainbat eta arinen kultura unibertsala adierazteko euskara telebistan eta irratietan sartzea, euskara hutsezko irradi telebista sortuz.

Eta horri buruz lehendabizikoa ez da euskara ezdakitenei irakastea. Lehendabizikoena euskaraz bizi diren eta bizi nahi dutenei, ama-hizkuntza edo eta norberaren borondatezko hizkuntza delako motibapen logikoak ematea da.

- Kultur unibertsalaren obrak edo liburuak itzultzeko erakunde ofizial bat antolatzea, denon presupostu publikoak babestu eta ordainduta.

**Halakorik egingo ez lukeen Gobernuak
urrelilipean egotea mereziko luke.**